

**ESPAINIAREN ETA  
EUSKAL  
HERRIAREN  
XX.MENDEKO  
HISTORIA**

**Maddi Galdos Areta**

**2018-2019**

# ESPAINIAREN ETA EUSKAL HERRIAREN XX.MENDEKO HISTORIA

Sara Hidalgo García

[sara.hidalgo@ehu.eus](mailto:sara.hidalgo@ehu.eus)

**AURKIBIDEA:**

## 1.GAIA

### BERREZARKUNTZA

(1874-1931)

#### BERREZARKUNTZAREN AURREKARIAK:

1814ean itzuli zen Fernando VII.a Espainiara, eta 1833 arte iraun zuen bere erregealdiak. Erregealdia nahikoa gorabeheratsua izan zen, eta bertan islatu ziren absolutismoaren eta liberalismoaren arteko gatazkak.

1814-1820 Absolutismoa	1820-1823 Liberalismoa	1823-1833 Absolutismoa
---------------------------	---------------------------	---------------------------

Ordea, erregealdiaren amaieran arazo garrantzitsu bat izan zuen: Fernando VII.ak ez zuen oinordekorik izan, eta bere anaia Carlos María Isidro izango zen, hala, koro eskubideak jasoko zituen.

Ordea, 1829an zeharo aldatu zen egoera: Fernando VII.a Maria Cristinarekin ezkondu eta 1830an Isabel alaba jaio zen. Jaiotzaren aurretik, Fernando VII.ak “*Lege Salikoa*” abolitu zuen; hots, emakumezkoek koro eskubidea jaso zezaten debekatzen zuen legea. Horrek, Carlos anaia haserre zedin eragin zuen eta luzaroan iraun zuten liskarrak hasi ziren hala.

1833an Fernando VII.a hil eta Isabel II.a Espainiako Erregina bilakatu zen. Erregealdi honek 1833-1868 bitartean iraun zuen.

Honek guztiak, Carlista eta Isabelinoen arteko gatazka sortu zuen; eta horrela sortu ziren Gerra Karlista edo Karlistadak. Hasiera batean tronuarengatiko borroka gisa azaldu zenak, bi ideologia politikoaren arteko talka islatu zuen: Carlosen aldekoak tradizionalak ziren, “Jaungoikoa, Aberria eta Erregea” lemapean; Isabel II.aren aldekoak, aurkara, liberalismoaren aldekoak.

- Lehen Gerra Karlista: 1833-1839
- Bigarren Gerra Karlista: 1846-1849
- Hirugarren Gerra Karlista: 1872-1876

Isabel II.aren agintaldia, hala, gatazkatsua izan zen. 1863 eta 1868 bitartean zuen babes asko urritu eta, 1868ko iraultza (*La Gloriosa*) medio, *Seiurteko Demokratikoa* ezarri zen.

Testuinguru horretan, 1871ean Amadeo I.a heldu zen Espainiara, eta bera izan zen 1873ko otsaila arte Errege. Dena den, hasieratik izan zituen gobernatzeko zailtasunak:

gaztea eta esperientzia gabekoa zen, eta sektore asko eta asko zituen bere aurka: Monarkikoak (Karlistak eta Alfontsoak), Errepublikanoak, Internazionala, Eliza ...

Honekin guztiarekin, Amadeo I.ak abdikatu egin zuen eta **Espainiako I Errepublika** (1873-1874) ezarri zen hala.

Errepublikaren norabidea moderatua izan zen, kasik kontserbadorea izatera heltzeraino. Zentzu honetan, eta horrek erradikalak asaldatuko zituela ikusita, 1874ko urtarrilean estatu golpea jo zuten militarrek. Hauek Serrano izan zuen buru, eta **errestaurazio monarkikoa** prestatu zen.

1874an zehar militarrek agindu zuten, eta abenduan pronuntziamendu baten bidez Alfontso XII.a Espainiara itzularazi zuten, 1875tik aurrera Errege izan zedin. Honakoa izan zen, bada, **Errestaurazio garaia**.

Errestaurazioa 1874an hasi zen, Alfontso XII.aren erregealdiarekin. Eta 1923.urtera arte iraun zuen, Primo de Riveraren diktadura hasi zen arte, alegia.

#### **BERREZARKUNTZA ETA EGOERA POLITIKOA:**

Aipatu bezala, Seiurteko Demokratikoa amaitu ostean, I.Errepublikak porrot egin eta, militar eta indar kontserbatzaileen lanaz 1874an Borboien monarkia ezarri zen berriro Espainian, Alfontso XII.a errege izendatuz. Honekin, **Cánovas Del Castillok** (liberal kontserbadorea) diseinatutako erregimen politikoa abiarazi zen.

Errestaurazio edo Berrezarkuntza garai honetan hiru agintaldi izan ziren:

- 1874-1885: Alfonso XII Erregea
- 1885-1902: María Cristina Erregeordea
- 1902-1923: Alfonso XIII Erregea
- 1923-1930: Primo de Riveraren diktadura (\*)

Cánovasek Alfontsoaren alde egindako lanak 3 urrats aipagarri izan zituen:

- 1) Isabel II.ak Alfontsoarengan abdikatu izana
- 2) Alderdi Alfontsoaren sorrera
- 3) Cánovas del Castillok 1874an egindako adierazpena (*Sandhursteko adierazpena*), Alfontso XII.ak sinatu zuena: bertan Espainian zegoen kaosa

baretzeko erregimen politiko gisa monarkia liberal tradizionala aldarrikatzen da.

Manifestu horretan Alfontso XII.ak azaldu egiten du bere monarkiaren nolakotasuna. Haren monarkia konstituzionala, integratzailea eta irekia izanen zen; tradizio katolikoa eta askatasuna bateratuko zituen. Hau da, subiranotasun konpartitua defendatuko du: agintea herritarrek izango dute, baina erregearekin konpartitu beharko dute.

### **Berrezarkuntzaren sostenguak:**

Berrezarkuntzaren erregimenak hiru sostengu nagusi izan zituen: 1) 1876ko konstituzioa, 2) alderdien txandakatze politikoa eta 3) Jauntxokeria.

#### **1) 1876ko konstituzioa**

Konstituzio honek 1876-1923 bitarteko iraupena izan zuen, eta aurretikako bi konstituzioak izan zituen oinarri (1845 eta 1869koak, alegia). Honen baitan azpimarratzeko hainbat ideia:

- Izaera anbigua izango du, zehaztapen handirik gabekoa (gerora txandakatze sistemak funtziona zezan beharrezkoa). Horrela, hainbat kontraesan ageriko dira bertan.
- Konstituzioak garrantzia ematen dio erlijioari. Hala hasten da: *Don Alfonso XII., por la gracia de Dios. Rey constitucional de España; ...*
  - o 11. Artikulua: Izaera konfesionaleko estatua. Kristautasuna ofiziala izango da, hots, Estatuaren diru laguntzak jasoko ditu elizak. Gainontzeko erlijioei dagokienez, erlijio-askatasuna ezarri zen, nahiz eremu pribatuan soilik izan eta ez erlijio guztiei aplikatu.
- 18. Artikulua: Erdibanatutako Subiranotasunari egiten dio erreferentzia; Erregeak eta Gobernuak partekatutakoari, alegia. Hots, Gorteek izango dute legeak egiteko eskumena, beti ere Erregearekin batera. Hortaz, Erregeak beti izango zuen iritzia eman eta erabakietan esku-hartzeko aukera.
- Estatuak izaera zentralista: udalak eta herrialdeetako diputazioak gobernu ordenaren mende.
- Sufragioa: 1890 arte errola sufragioa edo sufragio zentsitarioa ezarri zen (botoa emateko eskubideak lotura zuzena zuen norbanakoen botere ekonomikoarekin). Gerora, ordea, gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri zen.

- 13. Artikulua: Espainiarrei beren ideia eta iritziak libreki adierazteko eskubidea aitortzen zaie, beste hainbat eskubiderekina batera. Ordea, praktikan, honakoa ez zen bete.
- 21. Artikulua: Erregearen oinordekoek senatari izateko eskubidea izango dute, herriak nahi duena alboratuz.

## 2) ***Txandakatze politikoa***

Aipatu bezala, Berrezarkuntzan zehar baliatu zen sistema politikoa *2 alderdiko sistema* izan zen, Cánovas Del Castillok diseinatutakoa. Honek alderdi handien beharra azpimarratu zuen, nolabait indar politikoen adostasuna lortzea helburu izaki.

### 1. **Alderdi liberal kontserbadorea:** Cánovasen jarraitzaileak ziren


- Sufragio zentsitarioa, autoritarismoa, gizarte ordenaren premia, askatasunen kontrola, arazo sozialekiko kezka urria.
- Joera moderatuko aukera politikoak bildu zituen

### 2. **Alderdi liberal aurrerakoa :** Sagastaren jarraitzaileak ziren

- Sufragio unibertsala eta erregimen irekiagoa; ikuspegi politiko zabalagoa, arazo sozialekiko kezka
- Joera aurrerakoiekiko aukera politikoek bildu zituen: progresistak, demokratikak, errepublikazalaren bat


Berrezarkuntzan beharrezkoa zen txandakatzea baketsua izan zedin. Erregeak honakoa onartu egin zuen, altxamendu eta matxinaden arriskua murrizteko. Horrela, bada, gobernuaren hautaketa Erregeak burutzen zuen arbitrarioki; eta ondoren, hauteskundeak egiten ziren Gorteak osatzeko (*hauteskunde-iruzurra*).

Garai honetan honakoak ziren Espainiako alderdiak, kokapen ideologikoaren arabera:



### 3) *Jauntxokeria*

Jauntxokeriak hauteskunde iruzurrari egiten dio erreferentzia. Honakoa, ezinbesteko oinarria zen txandakatze sistemak funtziona zezan: izan ere, beharrezkoa zen Erregeak hautatutako alderdia Gorteetara heltzea. Finean, hauteskundeak manipulatu eta botoak erostean zetzan honek.



- Erregeak gobernatzea tokatzen zitzaion alderdi buruari (Cánovas edo Sagasta) bi agindu ematen zizkion: aurreko gorteak desagitea eta gobernua osatzea
- Alderdi buruak gobernua eratu eta parlamentua antolatzen zuen: zerrendak egin eta barrutiak antolatzen zituen hauteskundeetarako
- Gobernuek antolatutako zerrenden berri Gobernadore Zibilari heltzen zitzaion
- Gobernadore Zibilak, Kazikeen artean banatuko zuen
- Hauteskundeak burutzen ziren
  - o Hildakoen botoak
  - o Kazikearen putxerazoa
  - o Botoen erosketa

Txandakatze sistema honekin, Kontserbadore eta Liberalek txandakatuz gobernatu zuten 1917 arte. Urte horretatik aurrera, Koalizio Gobernuak osatu ziren.

Aipagarria da txandakatze sisteman parte hartzen zuten bi alderdiez gain, Espainiako egoera anitza zela; hots, alderdi ugari zegoen: Karlistak, Errepublikanoak, Erregionalista eta Nazionalistak, Anarkista eta Sozialistak ... Horrela, bada, talka egingo dute Espainiako egoera politikoak eta bertako egoera errealak.

## **ERRESTAURAZIOAREN GARAPEN POLITIKOA:**

Arestian aipatu bezalaxe, Errestaurazioan hiru agintaldi edo une politiko izan ziren

- 1874-1885: Alfonso XII Erregea
- 1885-1902: María Cristina Erregeordea
- 1902-1923: Alfonso XIII Erregea
- 1923-1930: Primo de Riveraren diktadura (\*)

Aipagarriak diren hainbat afera:

- Periferiako lurraldeetan kontzientzia nazionalistek garrantzia hartu zuten:
  - o Katalunia: XIX.mende erdialdetik aurrera lehen proposamen politikoa burutu eta alderdi politiko garrantzitsua sortu zen, LLIGA
  - o Euskal Herria: XX.mende hasieran, Sabino Aranaren eskutik, EAJ alderdia sortu zen
- Tentsio soziala areagotu zen: nekazariak (Andaluzia) eta hirietako langileak (Bartzelona) oso baldintza txarretan bizi ziren, eta langile mugimendua antolatzen hasi zen hala.
- Kolonien galera, 1898an: Espainiak Kuba, Puerto Rico eta Filipinetako koloniak galdu zituen.

### **Maria Cristinaren erregeordetza**

Alfontso XII.na hil eta gero, Sagasta eta Canovas txandakatze politikoarekin jarraituko zutela adostu eta erreginak 5 urterako Sagasta aukeratu zuen. Une honetan; trenbidea garatu zen, politika librekanbista (estatu barneko arantzelak kendu), sufragio unibertsala ...

### **1898ko krisia:**

Aipatu bezala, 1898an Espainiak Kuba, Puerto Rico eta Filipinetako koloniak galdu zituen.

Gainera, Kubaren harira, Espainiak bi gerra izan zituen: lehena Kubaren aurka eta bigarrena AEBren aurka. Garai hartan soldaduek bizi zuten egoera oso latza izan zen:



*“Estos defensores no empiezan ahora una campaña llena de entusiasmos y energía: vienen luchando hace tres años con el clima, privaciones y fatigas, y se presentan estas críticas circunstancias cuando ya no tienen aliento, fuerzas físicas ni medio para reponerlas. Les falta el ideal, porque defienden la propiedad urbana de los que, en su presencia, la abandonan, y de los que tienen enfrente, aliados a las fuerzas americanas” Linares general, 1898-07-12*

Honen ondorioz, Espainiak hainbat ondorio jasan zituen:

- Ekonomikoak: ondorio ekonomikoak ez ziren espero zitezkeen okerrenak izan, izan ere:
  - o Galdutako lurraldeekin harreman ekonomikoak mantendu ziren
  - o Kolonietan inbertitutako kapitala Espainiara itzuli zen eta hori garrantzitsua izan zen industrializaziorako
- Politikoak:
  - o Kanpo politika: Munduan, internazionaliki, inperialismo garaia zen. Espainiak, ordea, ez du inolako hegemoniarik izango; garai batean inperioa zenak lur garrantzitsuak galdu berri ditu.
  - o Barne politika: militarren iritziz kolonien galera politikarien porrota izan zen. Horrela, militarrek presioa eragin zuten botere zibilarengan. Hots, botere politikoan parte hartu nahi zuten, horretarako egin beharreko erreformak eginaz.
- Ideologiko edo sozialak:
  - o Izandako porrotak Espainiako gizartean pesimismoa eta gutxiagotasunaren sentimendua hedatu zituen.
  - o Korrante intelektualek erregimenari kritika gogorak egin zizkioten
  - o Nazionalismo katalana eta euskalduna indartu egin ziren
  - o Gainera, testuinguru honetan, korrante ideologiko garrantzitsu bat garatu zen: **Erregenerazionismoa**

### **Erregenerazionismoa:**

XIX.mende amaieratik XX.mendeko hasiera bitartean politikari eta intelektualek egindako kontzientzia azterketa eta balantze edo hausnarketa izan zen honakoa.

Erregenerazionismoa VS. Ustelkeria

Korrante honen jarraitzaileen helburuak honakoak ziren: 1) politikari duintasuna ematea, 2) gizartea modernizatzea eta 3) atzerapen kulturala gainditzea. Horrekin, berrezarkuntza irmoki kritikatu zuen, sistema liberala berritu nahi baitzuten.

Korrante honek eragina izan zuen hainbat politikari eta intelektualengan. Intelektualen kasuan, *Joaquín Costa* (politikari, idazle, historialari ...) dugu aipagarrien.

*“Escuela, dispensa y doble llave al sepulcro del Cid para que no vuelva a cabalgar”.*

Joaquín Costak zioen egoera gainditzeko beharrezkoa zela nazioaren erregenerazioa. Horretarako abiapuntu gisa erregenerazio politikoa kokatuko du. Helburua benetako sistema demokratikoa ezartzea izango da; jauntxokeria eta kazikeen eraginarekin amaituaz. Horrela, herritarrek botoa eman eta gobernatzeko onenak hautatuko lituzkete. Zentzu horretan, gobernu demokratikoa aukeratutakoan, horien zeregina litzateke egin beharreko aldaketa eta erreformak burutzea (ekonomian, kulturak, administrazioan ... ).

Korronte honi hertsiki lotuta sortu zen 98ko belaunaldia.

### **ALFONTSO XIII.AREN ERREGETZA: 1902-1923/31**

Esan bezala, 1875az geroztik, Errestaurazio sistemaren mende egon zen Espainia. Ordea, sistema horren krisia sortu zen 1902an, Alfontso XIII.aren erregealdia hasi zenean.

(Alfontso XIII.a 1886an jaio zen, eta bere ama izan zen erregeorde 1902ra arte; aita, Alfontso XII.a 1885an hil baitzen. Horrela, 16 urterekin izendatu zuten Alfontso XIII.a Espainiako Errege).

Alfontso XIII.aren izaera kontserbadorea eta jarrera militarrekoa (errege-soldadua) izan zela esan genezake, maiz Espainiako errealitatearekin bat egin ez zuena.

1876ko Konstituzioaren arabera, erregearen botereak murriztu egiten ziren; hots, erdibanatutako subiranotasuna zegoen, Gorteetan eta Erregearengan kokatuta. Ordea, Erregeak ez zien botere hauei uko egin nahi, ez baitzuen modernizazioaren bidea hartu nahi. Horrela, bada, **“Revoluciones desde arriba”** kontzeptua azaltzen zaigu bertan.

*La «revolución desde arriba» consistía en la reforma del régimen político de la Restauración desde las instituciones y por iniciativa del propio gobierno y su propósito esencial era conseguir el apoyo popular a la monarquía de Alfonso XIII poniendo fin al sistema caciquil.*

Honakoa adierazi zuen Alfontso XIII.ak 1902an Errege izendatu zutenean:

“En este año me encargaré de las riendas del estado, acto de suma trascendencia tal como están las cosas, porque de mí depende si ha de quedar en España la monarquía

borbónica o la república; porque yo me encuentro el país quebrantado por nuestras pasadas guerras, que anhela por un alguien que lo saque de esa situación. La reforma social a favor de las clases necesitadas, el ejército con una organización atrasada a los adelantos modernos, la marina sin barcos, la bandera ultrajada, los gobernadores y alcaldes que no cumplen las leyes, etc. En fin, todos los servicios desorganizados y mal atendidos. Yo puedo ser un rey que se llene de gloria regenerando a la patria, cuyo nombre pase a la Historia como recuerdo imperecedero de su reinado, pero también puedo ser un rey que no gobierne, que sea gobernado por sus ministros y por fin puesto en la frontera. (...) Yo espero reinar en España como Rey justo. Espero al mismo tiempo regenerar la patria y hacerla, si no poderosa, al menos buscada, o sea, que la busquen como aliada. Si Dios quiere para bien de España". – Diario de Alfonso XIII, 1 de Enero de 1902.

### **Hondamendira bidea (1902-1917)**

Alfontso XIII.ak erregetza hartu (1902) eta Greba Orokorra bitarte (1917) zenbait erreforma egin ziren arren, Espainiaren egoerak hobera egin beharrean okerrera egin zuen. Izan ere, Erregealdian zehar hainbat arazo izan ziren.

#### **1) Arazo politikoak:**

Printzipioz orain arte aipatutako alderdi-bitasunak jarraitu zuen arren, krisia izan zuen sistema honek: Cánovas anarkista batek akabatu zuen, eta Sagasta hil egin zen. Horrela, lidergo falta nabarmendu zen.

Zentzu honetan, alderdi tradizionalen krisia gailendu zen: Kontserbadore eta Liberalek ez zuten masa gizartera moldatzea lortu; hots, ez zuten industrializazioaren ondorengo gizartera moldatzerik lotu.

Gainera, batzuen esanetan, Alfontso XIII.aren izaeran politikan esku hartze handiegia izan zezan eragin zuen.

Krisialdi honi, nolabait amaiera eman zion lider berriak topatu zirenean: Antonio Maura (Kontserbadorea) eta Jose Canalejas (Liberala). Dena den, aipagarria da esatean alderdi horiez gain zeuden beste alderdiak pixkanaka indartzen hasi zirela urte hauetan.

## **2) Elizaren boterea eta mugimendu antiklerikala** (Bilboko Begoñan, 1903ko Urrian)

Langile mugimenduko kideen izaera antiklerikala zela eta, antiklerikalismoa botere handiko ideologia bilakatu zen. Anarkistek, sozialistek eta errepublikarrek sustatu zuten honakoa.

## **3) Marokoko Gerra:**

Esan bezala, 1898an Espainiak Kuba, Puerto Rico eta Filipinetako koloniak galdu zituen, eta Afrikakoak soilik geratu ziren bere esku. Porrot horren ostean, kolonien inguruko bi iritzi sortu ziren:

- Kolonialismoaren aurkako jarrerak: ezkertiarrek ordezkatu zituzten, eta Espainia kanpo arazoetan murgildu baino barne arazoetan murgil zedin eskatzen zuten.
- Kolonialismoaren aldeko jarrerak: eskuineko sektoreak, militarrek, interes ekonomiko jakin batzuk zituztenak eta Erregea bera. Inperialismo garaian kokatzen garen, Espainia potentzia izan zedin inperio izan behar zela uste zuten.

Frantzia eta Espainiak, Marokon hirugarren potentzia bat sar ez zedin (Alemania), bi zatitan banatu zuten lurraldea: Espainiari, iparraldeko eremua kokatu zitzaion, RIF; eta eremu horren kudeaketari ekin zion.

Hasiera batean arazorik izan ez zuten arren, 1909an Espainiaren aurka altxatu ziren RIFeko Tribuak (honekin lotuta ikus *Bartzelonako Aste Tragikoa, 1909*).

Une honetan Gerra bat izan bazen ere, egoera baketsua izan zen 1MG (1914-1919) amaitu zen arte.

1MG amaitu zenean, arazoak hasi ziren berriro. Izan ere, bertako tribuak bateratu egin ziren ABD-EL-KRIM buruaren mende (armada Bereberea).

Testuinguru honetan, bereziki aipagarria da **Annualetako porrota** (1921ko Uztailaren 22).

*“Bereziki larria izan zen Annualen 1921ean gertatutakoa; gidaritzaren militar penagarria eta Rifeko iztanleen borrokarako grina zirela eta, 8.000 espainiar soldadu hil ziren, eta arriskuan gelditu zen Melillako hiria. Marokoko gerraren kontra zeuden herritarrak, batez ere langile klaseak.”*

Gertaera honek eragin nabarmena izan zuen Espainiako gizartean nagusi zen iritzi publikoan; eta erantzukizunak topatze aldera ikerketak zabaldu ziren.

**4) Kataluniako Nazionalismoa**

**5) Errepublikanismoa**

**6) Langile mugimenduaren gorakada Espainia osoan**

**Bartzelonako Aste Tragikoa, 1909**

Arestian aipatu bezala, Marokoko liskarrak izan ziren Bartzelonako Aste Tragikoa sustatu zuten arazoak.

Garai honetan Antonio Maura zen Espainiako Gobernuburu. 1907rako antimilitarismoa indartuta zegoen dagoeneko Katalunian.

Ordea, Marokoko gerraren testuinguruan egoera larritu egin zen. Izan ere, lurralde estrategikoa zen Maroko Espainiaarentzat: meategi askoko eremua zen.

1909an aipatutako Marokoko Gerra hasi zenean (hots, bertako tribuek espainiarren aurka jo zutenean, Espainiako gobernuak soldaduak erreklutatu eta Bartzelonako **erreserbistei** dei egin zien.

Erreserbistak dira garai batean soldadutza egin zutenak eta une hartan armadatik kanpo zeudenak (familia zuten, lanean zebiltzan ... )

Testuinguru horretan, eta erreserbistak Bartzelonan ontziratu zirenean, gerraren aurkako giroa zabaldu zen.

*Solidaridad Obrera* sindikatuak mugimendua bideratu zuen, eta greba deialdia zabaldu zen Bartzelonan: errepublikano, anarkista eta sozialistak batu ziren protestetara.

Zentzu berean, Marokotik albiste txarrak heldu zirenean (108 hildako, 104 zibil eta 4 polizia) egoera laztu eta mugimendua erradikalizatu egin zen: Bartzelonako biztanleriak armak hartu eta gobernuaren (eta elizaren) aurka gerra egin zuen Bartzelonan.

Oro har instituzioen aurka egin zuten; eta eliza ere boterearekin identifikatzen zuten. 50 eliza eta konbentu baino gehiagori su eman zitzaizen protestetan zehar.

Errepresioa nagusitu zen: milaka izan ziren atxilotuak eta juizio militarrek burutu ziren (5 pertsona fusilatu zituzten inongo frogarik gabe, tartean Francisco Ferrer Guardia anarkista). Gainera, errepresio hau Bartzelonatik Espainia osora hedatu zen.

Liskar hauen ondorioz:

- Maura gobernutik bota zuten: Ferrerren fusilamenduak eragindako aurkakotasuna eta nazioarteko salaketen medio, Canalejas (liberala) izendatu zen gobernuburu (antimauristak).

Esan genezake Bartzelonako Greba ideologia antimilitaristak sustatu zuela; nolabait langile mugimenduak indarturik. Une honetan elkartu ziren, lehen aldiz, langile mugimenduko hiru alderdiak: Anarkistak, Sozialistak eta Errepublikanoak (gerora Liberalak ere batu zitzaizkien, Mauraren aurka jotzeko).

### **1917ko Iraultza:**

Garai honetan 1MGko testuingurua zen nagusi Europa osoan. Espainiak gerra honetan parte hartu ez bazuen ere, haren eraginak jasan zituen: besteak beste, prezioek gora egin zuten eta soldatak ez zuten igoerarik izan.

Horrela, bada, 1917ko abuztuan Greba Orokor Iraultzailea izan zen Espainian. Honakoa UGT (sozialistak) eta PSOE (Partido Socialista Obrero Español) konbokatu zuten, eta CNT (anarkosindikalistak) babestu egin zuen.

Hots, oro har, sozialistak, anarkistak eta errerepublikanoak batu ziren.

Greba honek ***krisi militarri, politikoari eta sozialari*** erantzun zien:

- KRISI MILITARRA

Antimilitarismoaren hedapenez gain, Armadaren baitan gorabeherak ere izan ziren. Armadak modernizatzeko beharra zuen (armadaren erreforma), eta ofizial kopurua murriztea eragin zuen horrek. Gainera, mailaz igotzeko merituan oinarritutako sistema ezarri zen. Honek zalantza sortu zuen soldaduengan, haien soldata areagotzeko bide bakarra meritua pilatzea baitzen (haien proposamena antzinatasuna aintzat hartzea izan zen).

Testuinguru honetan, Defentsa Batzarrak sortu ziren. Soldaduen soldata igoera, meritua baztertzea eta armadari errespetua areagotzea eskatzen zituzten hala.

- KRISI POLITIKOA:

Esan bezala, alderdi-bitasunaren amaiera hurbildu zen. Horrekin, berrezarkuntzaren gainbehera nagusitu zen eta krisia nabarmendu zen.

Testuinguru honetan aipagarria da Bartzelonan bateratu zen *Asamblea de Parlamentarios*. Francesc Cambó deitu zuen honakoa, Lliga Regionalista alderdi politikoko buruak.

- KRISI SOZIALA:

Langile mugimendua indartuz doa; esan bezala, soldatek ez dute gora egingo eta jendeak ez du janaririk ere izango.

*“Toda España sabe que los trabajadores conscientes llevan más de dos años reclamando medidas que atenuasen algo la irresistible situación creada por el encarecimiento de los artículos de primera necesidad y la crisis del trabajo. NO ha habido más que palabras”* - Francisco Largo Caballero (UGT)

## **ESPAINIAREN EGOERA EKONOMIKOA ETA LANGILE MUGIMENDUAREN HASTAPENAK**

Garrantzitsua da aipatutako guztia testuinguruan jarri eta Espainian ematen ari ziren aldaketa sozialekin erlazionatzea.

### **Ekonomikoki:**

Espainia industrializatzen hasia zegoen, baina inguru batzuetan bakarrik; zehazki, periferiako lurraldeetan (Katalunia, Bizkaia, Gipuzkoa eta Asturias ditugu adibide).

Gainontzeko lurraldeetan nekazaritza zen nagusi, eta ugariak izan ziren sektore honetatik eratorritako arazoak (bereziki, hegoaldeko langileen egoera txarrari lotuta).

Esan genezake Espainia ez zela erabat garatutako herrialdea; hori esportazio eta inportazioen balantzan islatzen baitzen:

- Inportazioak: ondasun manufakturatua, kapitala
- Esportazioak: lehengaiak

Zentzu honetan, bada, oreka defizitarioa zuen Espainiak (galera, alegia).

## **Sozialki:**

Garai honetan bereganatu zituen burgesiak bere botere berriak: soziala eta politikoa, hain zuzen ere. Txanponaren beste aldean, proletarizazio prozesua eman zen (Bizkaia kasua dugu adibide, *Langile Mugimendua Bizkaian* atalean landuko duguna).

Modernizazioarekin batera, mentalitateen aldaketa eragin zen: honekin, ideologia berriak sortu ziren. Zentzu horretan sortu ziren, lehen aldiz, lehen langile elkarte eta alderdiak: anarkistak, errepublikarrak eta sozialistak.

## **“Cuestión social” edo Klase Borroka**

II. Industrializazioaren ondorioz, Espainiar estatutik kanpo ekonomiak garapen handia izan zuen. Honek, eragin zuzena izan zuen Espainian bertan.

Izan ere, eta Estatu liberalaren ezarpenarekin batera, hainbat industria ezarri zen (Bilboko Ezkerraldean, esaterako). Horrek, aipatu bezala, pentsamendu aldaketa bat eragin zuen: hots, egoera ekonomikoaren aldaketak, egoera sozialaren aldaketa eragin zuela esan genezake.

Testuinguru honetan, bada, sakondu egingo da Burgesiaren (nagusien) eta Langileriaren arteko gatazka. Hots, burgesiak botere sozial eta politikoa eskuratuko ditu, langileria egoera latzenetan lan egitera kondenatzen duen heinean (proletarizazio prozesua).

Zentzu honetan, eta pairatzen zituzten baldintza bortitzen harira, langile mugimendua indartu egin zen: korrante anarkista batetik eta korrante sozialista bestetik.

### **1) Anarkismoa:**

Anarkismoa Italiatik heldurako korrante ideologikoa da. Giuseppe Fanelli italiarra Espainiara iritsi zen Mijaíl Bakunin anarkistaren ideiak hedatu eta alderdi anarkista

1874.urtean LNE sortu zen, baina, kantonalismoaren erruz, klandestinitatera pasa behar izan zuten. Sagastaren agintaldi pean, 1881an, lehen elkarte anarkista sortu zen. Ordea, estatuaren aldetik mugak jarri zizkieten anarkistei pixkanaka, eta Andaluzian antolatu zen *Mano Negra* antolakundearen eta bere ekintzen harira (erailketak barne), estatuko elkarte anarkista guztiak ilegalizatu egin ziren.

Anakistek sindikalismoa babesten dute ideologikoki. Dena den, batzuk iraultzan zentratzen diren heinean, bestetzuk langileen borrokari eutsiko diote. Zentzu horretan CNT sindikatu anarkista sortu zen 1910ean: hauen tresna nagusia greba izan zen, eta biolentzia erabiltzera ere heldu ziren.



Aipagarria da Hego Euskal Herrian anarkismoak ez zuela indar handirik izan. Hiriburuetan azaldu zen, baina Erriberan eta Errenterian soilik nagusitu zen.

## 2) **Sozialismoa eta Marxismoa:**

Hemen kokatu behar ditugu Karl Marxen ideiak. 1879an sortu zen Partidu Sozialista Espainiarra (PSOE) Pablo Iglesiasen eskutik; langileria, sozialismoa eta marxismoa oinarri. 1888an UGT sindikatua sortu zuten. Dena den, garrantzia handiagoa eman zieten hauteskunderi eta estatuko agintea lortzeko saiakeri. 1910ean erdietsi zuten, hala, lehen aldiz errepublikarrekin batera parlamentuan sartzea.

Hego Euskal Herriari dagokionez, aintzat hartu behar da industrializazioaren ondorioz etorkin uholde handia jaso zuela: exodo rurala. Denbora motzean “paisaia aldatu zen” izugarri: langile auzoak sortu ziren, barrakoiak (enpresariak langileentzat sortutako etxeak), kintinak (enpresariak langileentzat sortutako denda eta tabernak) eta abarrak.

### **LANGILEEN EGOERA ETA MUGIMENDUA BURGESIAREN IKUSPEGITIK:**

Azaldu berri dugun testuinguruan, ideologia marxistaren ikuspuntutik, langileriaren batasuna aldarrikatzen zen beren eskubideen aldeko borrokarako. Bizi zuten egoera langileek *klase borroka* bezala izendatu zuten (gogoratu proletarizazioa). Aitzitik, burgesiak *auzi soziala* zeritzon aferari: hots, burges eta liberalek esango dute karitatea badagoela, eta horrenbestez ezin dei ziezaiokeela klase borroka; eta auzi soziala baliatuko dute burgesek langileekin zituzten arazoak definitzeko kontzeptu gisa.

“Cuestión social es una expresión acuñada en Europa en el siglo XIX que intentó recoger las inquietudes de políticos, intelectuales y religiosos frente a múltiples problemas generados después de la revolución industrial, entre ellos la pobreza y mala calidad de vida de la clase trabajadora.”

Garai honetan liberalak ziren boterean zirenak, eta oposizioa errepublikanoen, karlistek, intelektualek eta abarrak zuten.

### **Comisión de Reformas Sociales / Erreforma Sozialen Batzarra:**

“La Comisión de Reformas Sociales fue un órgano gubernamental de finales del siglo XIX y principios del siglo XX en España, que sirvió para estudiar las condiciones de vida y trabajo de la clase obrera y proponer reformas de carácter legislativo para mejorarlas. Funcionó entre 1883 y 1903, año en que fue sustituida por el Instituto de Reformas Sociales. La Comisión de Reformas Sociales fue la primera iniciativa oficial para abordar la «cuestión social» en

España y fue obra del ministro de Gobernación Segismundo Moret del efímero gobierno liberal presidido por José Posada Herrera.”

XIX.mendean zehar agerian geratu zen sistema sozioekonomiko liberalak ezintasunak zituela langile klaseen bizi baldintzak hobetzeko. Horrela bada, Estatuaren eskuhartzearen aldeko ideiak garrantzia hartu zuen, liberalismo klasikoa eta indibiduo bere baldintza moral eta materialen arduradun bakartzat jotzeko joera zalantzan jarriaz. Horrekin batera, langile mugimenduaren kritikak, sozialismoa eta positibismoaren zein zientzia sozialen garapena azpimarratu behar ditugu faktore gisa.

“Se crearon comisiones en todas las provincias, excepto en Madrid, sede de la Comisión central, y en aquellas localidades donde la «cuestión social» era más acuciante. En principio las comisiones estaban formadas de forma paritaria por representantes de los obreros y de los patronos, pero después fueron predominando personas procedentes de los ámbitos jurídico, educativo y de la Administración. Una de las primeras iniciativas que tomó la Comisión fue elaborar un amplio informe sobre la situación de las clases trabajadoras en España, a partir de las respuestas formuladas a un detallado cuestionario.”

Estatuak, horrela, Erreforma Sozialen Komisia sortu zuen 1884an. Burgesia aurrerakoa izan zen honen sortzaile, eta langile klasearen “auzi soziala” aboradteaz zuen helburu. Informazioa lortze aldera, inkestak bidali zituzten etxeetara (langileen soldata, denbora librea eta abar galdetuaz); eta oso garrantzitsua izan zen honakoa langileen egoera ezagutu ahal izateko. Ildo horretan, klaseen arteko lankidetzaz sustatzea zen komisioren helburua.

Dena den, aipagarria da langile antolakundeetako kideak Komisiorekin aurkakotasuna azaldu zutela, “Burgesiaren tresna” gisa identifikatu baitzituzten.

Testua: ‘Real decreto por el que se crea la Comisión de Reformas Sociales’ eta ‘Comisión de reformas sociales (1884)’

“No era posible prolongar esta situación sin menoscabo de la paz pública. Numerosos síntomas revelan que las clases obreras sienten el vivo estímulo de las necesidades que importa remediar, o aliviar cuando menos, a la vez que siente el capital inquietudes justificadas por hondas y continuas perturbaciones. (...), habría motivos para temer que las corrientes, hasta ahora pacíficas, por donde va encauzándose este movimiento, torcieran su rumbo de suerte que los males conocidos se agravasen con todos aquellos otros a que da origen la violencia, e hicieran así precaria la paz y las relaciones entre los dos grandes factores de la producción: el capital y el trabajo”. - Testua: Castillo, Santiago: Reformas Sociales... Tomo II, p. 274 y 289

“La ignorancia casi absoluta es su patrimonio, y embotado el sentimiento y desarreglada su voluntad, ofrecen un conjunto de carácter semisalvaje y primitivo (...)su sistema nervioso dispuesto todo exceso o un sentimiento de semiidiotismo que las incapacite para todas las relaciones individuales y sociales (...) padres e hijos, (...) necesitan libertarse de la ignorancia, origen de su miseria”.

Burgesia ez zegoen oso eroso momentu honetan. Komisiokoak ikusten zuten beraiek asko zirela eta indarra zutela beraz hori baretzeko idatzi zuten artikulu bat irakurri dugu. (?)

### **Higienismoa:**

Higienismoa XIX.mendeko bigarren erdialdean sortu zen korrontea izan zen. Izatez medikuntza arloko mugimendua bazen ere, liberalismoarekin uztartu eta politikarekin bat egin zuen.

El higienismo es una corriente que nace en la primera mitad del siglo XIX con el liberalismo, cuando los gobernantes comienzan a reparar con más detenimiento en la salud de la ciudad y sus habitantes. Se consideraba la enfermedad como un fenómeno social que abarcaba todos los aspectos de la vida humana.<sup>1</sup> La necesidad de mantener determinadas condiciones de salubridad en el ambiente de la ciudad mediante la instalación de agua corriente, cloacas, iluminación en las calles, y de poder controlar las epidemias fueron dando forma a esta corriente, [...]

Korronte honek langileriaren bizi- eta gorpu-egoera kritikatzeko zuten, medikuntzaren objektibitateari abiatuta. Medikuntzaren objektibitate hori, hala, egokia zen liberalismoak bere helburu moralizatzaileak zabal zituzten.

Gogoratu industrializazio garaia zela eta horrek ingurua lar zikindu zuela; hots, oso ugariak ziren arnas-gaixotasunak.

Horrela, bada, medikuntzako higienismoak eta liberalismoak bat egin zuten: langileei sinestarazi nahi zieten inmoralak zirela, ezin eizuten beren etxe, taberna eta inguruak egoera horietan egon zitezkeen onartu. Hots, mediku liberalek langileei beraiei botako diete haiek gaixotzearen errua.

Esan bezala, langileen eremuek (bereziki industrializazioaren ondorioz) ez zituzten bizitzeko baldintzak betetzen. Halakoak ziren beren inguruetakoko hainbat esparruetako egoerak:

- Etxeak Madrilen: Langileen etxeak ez daude garbiak, bertan bizitzeko baldintzak ez dira betetzen. Bertan sartu eta bizitza eta osasunerako arriskutsuak diren elementu ezberdinak topatzen dira nonahi. Itxiak, usain txarrekoak, argitasun falta ...

*“Los barrios de Madrid donde preponderan los obreros carecen de limpieza, de higiene y de toda clase de condiciones para ser habitados, sin dejar de hallarse en continuo peligro la salud y la vida de sus moradores (...). La difícil renovación del aire mantiene en los reducidos cuartuchos un hedor que penosamente pueden sufrir los que no se han hecho insensibles a las impresiones del olfato por su larga permanencia en tan pobres cuchitriles; y la mala iluminación favorece los descuidos, permitiendo que reine en la generalidad una falta de aseo poco agradable”.- Castillo, Santiago: Reformas Sociales..., Tomo II, pp. 70-71*

- Etxeak Bizkaian: Norberaren garbiketa zaindugabea da, osasun baldintza onetan egotetik oso urrun dagoena. Langileak horrelako egoeratan hazi direnez ez dute garbiketaren kontzientziarik, hau da, osasuntsu egoteko garbitasunean eman behar diren pausoak ez dituzte askok ezagutzen.

*“la limpieza privada también está bastante descuidada, distando mucho de llenar la condiciones sanitarias necesarias para la buena salud; la poca instrucción de algunos de estos habitantes, hace que no den importancia ni se cuiden para nada del aseo y limpieza”. Vergara García, Eugenio. Datos para la Topografía Médica de San Salvador del Valle. Baracaldo: Imprenta de Bonifacio Guzmán, 1904, p. 153.*

- Taberna: Tabernak pozoinduta daude. Giroa petraldua dago, edaria eta atmosferak delinkuentziara bultzatzen zaitu eta hitz bakoitza iraina da. Taberna barrutan soilik borrokatzeko giroa dago barruko *“matoia”* ateratzen dizu eta barruan izan dezakezun alde positibo eta lasaia tabernako giroa usaintzerakoan desagertzen da.

*“En el local de la taberna hay algo que ofende y predispone al delito; la atmósfera cargada de toda clase de emanaciones forma una densa niebla que oscurece los sentidos y a medida que penetra en los pulmones embota todo sentimiento noble; las blasfemias, las injurias, las interjecciones brutales flotan azotando el rostro, la voluntad se enardece; la palabra proferida casi siempre con acento grosero es un latigazo. A medida que las libaciones se suceden, los instintos se exaltan: se bebe veneno y se respira veneno. En esos momentos el amortiguado agravio se aviva, el instinto matón del pueblo domina a todo sentimiento; cada mirada es un reto, la palabra un ataque, toda contestación toma forma de navaja. La permanencia en el local es un albur de vida o muerte”. Gimeno y Azcárate, Manuel. La criminalidad en Asturias. Estadística (1883-1897). Oviedo: Escuela Tipográfica del Hospicio, 1900, pp. 52-53.*

### ***Kolera izurritea Bizkaian, 1884:***

Kolera uraren bidez zabaltzen den infekzio intestinala da (hots, kutsatutako ura edo elikagaiak kontsumitzean sortzen dena). 1884an Espainia osora hedatu zen izurrite bat izan zen. Izan ere, bizi baldintzak aintzat hartuta nahikoa erraza zen hau kutsatzea. Gizartean izua nagusitu zen, eta hildako ugari izan zen.

Hasiera batean Bizkaian egoera hobea zela uste zuten arren, eta bertako mendietako ura ona zela eta giro aireztatua zenaren irudipena zegoen arren, bertara ere hedatu zen izurritea.

Hala esan zuen Gil y Fresno medikuak: *“Personas, las más robustas y de una salud completa [...] caían en las calles y en las plazas como herdas de un rayo, y morían a centenares en los portales y tiendas”*.

Horrek aipatutako izuan sakontzeaz gain, nazka ere hedatu zuen jendartean: izan ere, gaixotasuna harrigarrian zen (bere sintomengatik, bereziki, usain txarra eta oka baitira).

Testuinguru honetan langile eremuak isolatuta geratu ziren (cordón sanitario deiturikoa medio). Ordea, bertan gaixo zirenak eta ez zirenak bizi ziren, eta langileen bizitza araupetu zen hala. Izan ere, cordón sanitario deiturikoa mehatzeen inguruetako herrietan ezarri zen, eta langileek debekatuta izan zuten bertatik ateratzea.

Bilbo handiari dagokionez, itsasadarra (ria) baliatu zuten muga bezala. Ezkerraldekoak langileak ziren, eta eskuinaldekoak burges eta liberalak. Muga, osasun neurri batetik haratago, beste zerbaiten isla ere bazela esan genezake (interes politiko batzuen mesedetan).

Zentzu berean, ugariak izan ziren koleraren izurritearen aurka ezarritako neurriak:

- Sexu ezberdineko pertsonak ezingo dira gela berdinean egon: ezkongaiak eta 10 urtetik beherako haurren gurasoak salbu
- Ohe berean ezingo dira 2 pertsona baino gehiago egon
- Ezingo dira leku publikoetan arropa edo zapiak lehortzen jarri

Honekin erlazionatutako hainbat testu topa ditzakegu:

*“La línea de inspección acordada por todas las autoridades para evitar la propagación de la epidemia que reina en algunos pueblos del Oeste de Vizcaya ocupará un perímetro de 45 kilómetros desde el extremo del río Cadagua a Somorrostro, pasando por Santurce, Las Carreras, Pucheta, Las Cortes, Regato, Santa Agueda, Castrejana, Burceña y Luchana”*.

*“La inspección de los viajeros “durante siete días”, y la prohibición de “el paso de una a otra orilla de la ría” completan las medidas tomadas, cuyo cumplimiento se encargan de guardar los regimientos militares y otros guardias.”- ENB, 31-10-1885*

*“Viendo la junta de Sanidad del valle de Oquendo la aproximación del terrible huésped del Gánge en el pueblo de Sodupe, distante dos kilómetros, y el continuo tránsito por que allí se hacía de los emigrados de las minas de Somorrostro, (...) resolvió un día por unanimidad de votos acudir al señor diputado (...) pidiendo un par de miñones para guardar el primer pueblo colindante (...), sin pérdida de tiempo ha mandado dichos dos miñones” ENB, 6-11-1895.*

*“La explicación de que el cólera haya aparecido en nuestra zona minera: por una parte las condiciones higiénicas en que vivía la numerosa población de la zona minera eran detestables ... era público y notorio que cada día llegaban a aquella zona sin estas precauciones gentes que venían de la Rioja, de Aragón, de la provincia de Soria y de otras provincias donde el cólera causaba estragos... la epidemia se manifestó simultáneamente en la zona minera y en Baracaldo, que está al pie de ella, siendo víctima en la segunda localidad una mendiga que había estado en comunicación con la primera”. “Causa de un triste efecto” ENB, 27 -10-1885.*

*“por aquel camino pasan numerosas bandadas de trabajadores de las minas de Vizcaya, algunas de las cuales ha cometido atropellos en el tránsito. Uno de ellos ha sido, según noticias, el haber pedido de comer y beber a un honrado vecino de una casa aislada, y viendo que no accedía a su petición, coger un gran madero entre varios y en forma de ariete golpear la puerta de entrada de la casa para derribarla. En vista de tan expresivas insinuaciones, el pobre vecino se apresuró a echarles por la ventana lo que tan suavemente pedían, marchando los conquistadores tan campantes. Mucha vigilancia y aun alguna fuerza armada, se necesitará, según creemos, para poner coto a esos grandes grupos de obreros que hoy quedan sin trabajo, y por consiguiente en la miseria”. ENB, 3-11-1885.*

*Reglamento de Policía e Higiene que debe regir en la zona minera o sea en los municipios de Baracaldo, Sestao, Portugalete, Santurce, San Julián de Musques, Galdames, San Salvador del Valle y Abanto y Ciérvana. Imprenta provincial. Bilbao. 1886.*

- 7. *“las personas de sexo distinto no podrán ocupar el mismo cuarto excepto los matrimonios y los padres con hijos menores de 10 años”*
- 8. *“tampoco ocuparán el mismo dormitorio más de un matrimonio, debiendo establecerse siempre entre los cuartos de dormir, tabiques sólidos y a una altura conveniente”.*
- 9. *“no se permitirán más de dos personas en una misma cama”.*
- 50. *“igualmente se prohibirá poner a secar en las calles y caminos públicos, trapos y toda clase de ropas que moleste o ensucie a los transeúntes”.*

- 51. *“no se permitirá hacer públicamente aguas mayores o menores fuera de los sitios señalados. A este efecto se invitará a los Ayuntamientos Mineros e Industriales a que construyan dentro de su jurisdicción respectiva, urinarios y retretes en buenas condiciones, debiendo tenerlos en buen estado de limpieza”.*

## 2.GAIA

### EUSKAL HERRIKO MODERNIZAZIO PROZESUA

#### LANGILE MUGIMENDUA BIZKAIAN

Aipatu dugun bezalaxe, Errestaurazio edo Berrezarkuntza gertatzen den bitartean, **industrializazioa** ere gertatu zen Espainian (1875-1931, gutxi gorabehera).

Espainiako industrializazio prozesuak bi ezaugarri izan zituen: berandu eta poliki garatzeaz gain, desorekatua ere izan zen; bai ekoizpenari dagokionez (ehungintza eta siderurgia garatu ziren) eta baita lurraldeei dagokienez ere (periferiako lurraldeak soilik garatu ziren: Katalunia, Gipuzkoa, Bizkaia, Asturias + barnealdeko Madril).

#### BIZKAIKO INDUSTRIALIZAZIOA:

Bizkaian, lehen labe-garaian 1840.urtean sortu ziren, Bolueta auzoan (Santa Ana). Ordoren beste batzuk sortu ziren arren, Bizkaia ez zegoen oraindik industrializatuta. Izan ere, kapital falta nabarmena zen.

Zentzu horretan, meatzaritza izan zen kapital hori eskuratzeko bidea. 1869an onartu zen *Meatzeen Inguruko Legearen* harira, meatzaritza liberalizatu egin zen. Horrela, zenbait mea konpainia sortu ziren kanpoko kapitala eta bertako kapital bizkaitarra uztartuaz.

Meategietan lortuako hematitea Ingalaterrara esportatzen zen, trukean ikatza eta kapitala inportatzen zelarik.

Esan genezake, horrela, 1876an eman zitzaioela hasiera industrializazioari Triano eta Somorrostro (Bizkaia) inguruetan, zenbait meatze konpainia eratu baitziren bertan: *Luchana Mining Company, la Orconera Bilbao Iron Ore, Franco Belga ...*

1880an, Labe Garaiak sortzen hasi ziren. Gerora, 1902an, horietako batzuk fusionatzean, Bizkaiko Labe Garaiak sortuko da. Une honetatik aurrera gora egin zuen burdina eta altzairuaren ekoizpenak.

Siderurgian aberastu ziren familia horiek, gerora, beste jarduera batzuk sustatu zituzten (hemen garrantzitsua izan zen Ameriketatik heldutako kapitala): metalurgia ertaineko lantegiak, ontzizintza ...

Bigarren sektorea (industria) garatzeak, hirugarrenaren (zerbitzuak) garapena eragin zuen: garraioak (trena), erakunde finantzarioen garapena (bankuak, Bilboko burtsa, aseguru konpainiak) ...



Horrekin guztiarekin, XX.mende hasieran euskal kapitalismoa nagusitu zen Espainian; hots, kapital askoren jatorria Bizkaia zen.

### **Meategietako lan eta bizi baldintzak**

Testuinguru honetan, aipagarria dugu garai hartan bizi ziren bizi eta lan baldintzak zinez gogor eta desegokiak zirela.

Meategietan *Truck-system* izenekoa zegoen abian (hots, truke sistema). Honen arabera, enplegua izateko, langileak nagusiarekin akordio bat erdietsi behar zuten: akordio horretan adosten ziren lo egiteko eta jateko lekuak. Honen harira, nagusiak komisioa jasotzen zuen eta, gainera, gastuak langileen soldatetatik deskontatzen ziren zuzenean.

*“El llamado truck system, la obligación impuesta a los obreros de gastar el salario en productos de consumo suministrados por los propios patronos”.*

Barrakoietan bizi ziren langileak, eta bizi-baldintza eskas eta gogorak pairatzen zituzten bertan: euria zirrikitu guztietatik sartzen, eta abarrak. Gainera, janari ustela jan behar izaten zuten.

*“Cómo había de ser fácil la vida al obrero minero? En unas, a cambio de una parte de su jornal, se le proporcionaban los comestibles adulterados, los géneros pútridos que rechazaba la ciudad; en los otros, a cambio de un petate maloliente, empiojado y un hueco en uno de los barracones, por cuyas mal cerradas juntas se colaba de rondón el cierzo y la lluvia en invierno, se le desposeía de los últimos céntimos. Era una inicua explotación organizada por los capataces y consentida por los patronos que colocaba al obrero minero en condiciones de vida inferiores a las del último irracional”. (Julián Zugazagoitia: Triconomía obrera. El Liberal 20-08-1922).*

### **GIZARTE ALDAKETA; BIZKAIAN:**

Industriaren garapenak, gizarte aldaketa eragin zuen: baita Bizkaian ere.

Zentzu honetan azpimarratzekoa da 1886an PSOE alderdi sozialista sortu zela Bilbon, Facundo Perezaguaren (Felipe Carreteroren eta beste hainbaten) eskutik. Honakoa hedatu egin zen Bizkaia osoan zehar, eta indarra hartu zuen hala.

Beranduago, Indalecio Prieto izango da sozialista aipagarri Bizkaian: Bizkaiko diputatu probintzial bilakatu zen, errepublikano eta sozialistek egin zuten elkarketan.

Testuinguru honetan eta langileek bizi zituzten baldintzak aintzat hartuta, 1890 gertakariak ditugu aipagarri.

## 1890ko BORROKAK: Langile Eguna eta Greba

1890an bi une oso garrantzitsu izan ziren; bereziki garrantzitsuak direnak Bizkaiko Langile Mugimendua ulertzeko. 1) Maiatzaren Leheneko greba eta 2) Maiatzaren 16ko greba. Ikusi *La Gran Huelga Minera de 1890. En los Orígenes del Movimiento Obrero en el País Vasco*.

### 1) 1890ko maiatzaren 1a

*“Por primera vez en el mundo, y en España en particular, se convocó una manifestación obrera. El Partido Socialista Obrero Español planteó una jornada reivindicativa, cuyo objeto era exigir la reducción legal a ocho horas de trabajo diarias, y reclamar de los poderes públicos una legislación obrera protectora, en línea con lo aprobado en el Congreso Internacional Obrero de París del año anterior. A diferencia de los anarquistas, que convocaron una huelga «indefinida», los socialistas españoles dieron a la jornada un carácter absolutamente pacífico, retrasándola incluso al domingo 4 de mayo para evitar problemas derivados de la paralización laboral en un día normal, lo que no impidió que el simple anuncio de la jornada del 1º de mayo produjera «temores sin cuento» en los medios conservadores y de las clases acomodadas”.*

Greba egunak hainbat ezaugarri izan zituen:

- Liberalismoaren aurkako jarrera
- II Internazionalarekin (*Congreso Internacional Obrero de París de 1889*) adostutakoa: bertan mundu osoko langile alderdiak batu ziren, eta zer nolako jarduna burutuko zuten adostu zuten. Langile eguna egitea adostu zen bertan, baina Maiatzaren 1a borroka egun izango zen lehen aldia izan zenez igandea izatea (Maiatzak 4) hobetsi zen.
- Bilbon burutu ziren mobilizazioak Alderdi Sozialistak zuzendu zituen
- Lehen aldiz lanbide guztiek batera egin zuten borroka; izan ere, aurretiaz, gremioetan banatzen ziren.
- 4000 langile baino gehiagok hartu zuten parte (garaian ez zeuden ohituta hainbeste jende mobilizatzeraz)
- Manifestazioa baketsua izan zen, Alderdi Sozialistak hala hobetsi zuen gainontzean desprestigioa jasango baitzuten. Aurretiaz langileei azaldu zieten oldartzeak esplotatzaileei arrazoia emango ziela.

*“Los parasitos de la sociedad (la burguesía) tiemblan de espanto ante las pacificas manifestaciones de los trabajadores del mundo civilizado” – Es, 23-5-1890*

Honek esan nahi du burgesak beldurrez zeudela ikusi zutelako manifestazioan langileak ez zirela animaliak, era baketsuan eraman zutela. Burgesak parasitoak izango dira langileen kontura bizi direlako.

- “Nuestra obra es una obra del progreso, de civilización”

Langileak ezin zuten egoera horretan jarraitu: Horrekin, kapitalismo ekonomikoaren aurkako jarrera hartu zuten: irabaziak eragiten dizkio burgesiari, baina langileak asko sufritzen du. Langileak indarra sentitzen zuen guzti hori suntsitu eta aldaketa eragiteko.

- Egoera jasangaitza: elikagai txarrak, etxebizitza ezegokiak, askatasun eza.
- Kuartelak kentzea eskatu zuten

Testuinguru honetan aipagarria da emakumeek ez zutela langile mugimenduan subjektu politiko gisa parte hartzerik izan; gizonek soilik izan zuten zeresana: *queremos ser hombres y queremos ser libres*. Emakumeak esklabo gisa egiten zuten lan, eta hezkuntzarik ez zuten ez ignorante ere baziren.

Borroka eguneko arratsaldean mitina egin zuten, La Arboledan. Bertan Perezaguak hitz egin zuen langilearen antolakuntza aldarrikatuz. Era berean “iraultza soziala” eta “greba unibertsalaren” berri eman zuten.

## **2) 1980 Maiatzeko greba:**

*“Escasamente diez días después de aquella pacífica y festiva jornada de reivindicación obrera iba a producirse en Vizcaya, si no la «huelga universal» que anunciara Perezagua, sí el primer ensayo de «huelga general» victoriosa de la clase obrera vizcaína. Para todos los implicados de una u otra forma en la misma constituyó una sorpresa tanto su estallido como las derivaciones que tomó. Pero lo cierto es que a partir del momento en que acabó ya nada sería igual en la provincia, ni tampoco en el movimiento obrero de la región”.*

Greba meatzarien greba orokorra izan zen, nahiz gero fabriketara eta Bilbo osora ere hedatu zen.

Grebaren arrazoiak aurretiaz aipatutako faktoreen batuketa izan zen. Gainera, La Arboledako Komite Sozialistako bost kide kaleratu zituzten, maiatzaren 4ko ekintzen prestaketan izan zuten parte hartzearen harira. (Garai hartan oso erraza zen langileak kaleratzea, ez baitzuten kasik eskubiderik. ).

- *‘Decíase (sic) aunque los que indicaron la huelga fueron algunos trabajadores que habían sido despedidos de las canteras por haber formado parte en la manifestación obrera del día 4 del corriente’*

- *‘Cuando los demás trabajadores se enteraron de la injusticia (los despedidos) cometida por el Sr. Maclena (sic), se presentaron a él y le dijeron que no volvían los compañeros despedidos o ellos abandonaban la mina. El propietario contesto negándose (...). Entonces estallo la huelga’*

Ugazabek uko egin zioten langileekin hitz egiteari, milaka baitira grebara doazen langileak. Horrela, greba gero eta gehiago zabaldu zen, eta langile guztiak batu ziren grebari ekiteko.

- *“Los huelguistas acuerdan dirigir una exposición a los patronos y al alcalde con sus reivindicaciones, pero los patronos se niegan a recibirlos”. ENB, 14-5-1890.*

### **Loma ituna adostasuna:**

*“En la precaria situación en que se encontraban los obreros, la intervención del general Loma, actuando de mediador en el conflicto laboral, fue providencial para inclinar el resultado de la huelga a favor de los obreros mineros y, por extensión, de la dirección dada a la misma por los socialistas. Según se sabe, en una reunión celebrada el 16 de mayo, los representantes de las compañías mineras expresaron su decisión de no hacer ninguna concesión en tanto los obreros no reanudasen el trabajo; Loma, aparentemente, les hizo saber que retiraría sus tropas si las peticiones de los mineros no se atendían. Ante la amenaza de Loma y sabiendo que la opinión pública estaba a favor de los mineros, por lo menos en los temas de barracones y cantinas, los patronos tuvieron que ceder. Restaurando el orden público, tan necesario al mantenimiento equilibrado del régimen político, Loma había conseguido una victoria para los obreros que ya se les escapaba. El día 17 de mayo la normalidad era general. Aquella mañana los representantes de las empresas mineras firmaban un acuerdo, conocido como el «pacto Loma», por el que quedaba prohibido a contratistas y capataces explotar barracones y cantinas, recobrando el obrero su entera libertad para vivir y comprar sus alimentos donde quisiera, y se establecía una jornada laboral diferente según los meses del año, pero cuyo término medio venía a ser de 10 horas diarias de trabajo”.*

Loma generala general liberala izan zen, karlistadetan parte hartu zuena. Bilbora etorri eta langileen egoera ikusi zuenean hala jarraitu ezin zela esan zuen: langileek ezin zuten barrakoietak bizitzen jarraitu. Horrela, meatzarien eskakizunei arrazoia eman zien.

Zentzu horretan, Lomak hitzarmen bat egin zuen, Patronalari langileei beren eskubideak eman ezean bera ere ejertzitoarekin joango zela esanez. Horrela, patronalak eskubideak eman zizkien langileei:

- Kontratista eta kapatazein barrakoi eta kantinak esplotatzea debekatuz
- Langileak bizitzeko eta elikagaian nonahi erosteko eskubide eta askatasuna berreskuratuz
- Hilabetearen arabera lanaldi ezberdina ezarriz, egunean 10 orduko media izaki

## **LANGILE MUGIMENDUAREN ELEMENTUAK:**

Langileek zioten beren egoera esklabutza zela. Horrekin, pertsona arrazional bezala tratatuak izan nahi dutela aldarrikatu zuten. Izan ere langileak miseria gorrian bizi ziren, ugazabak eta burgesia aberasten ziren heinean (langileak ziren produktiboak, burgesia parasito zen heinean).

*“La burguesía está sentenciada a muerte, y muy pronto tiene que ser ejecutada. El hombre no ha nacido para estar esclavo como nosotros, sino para vivir trabajando honradamente y ser tratado como un ser racional, no como una bestia. Mientras nuestros hijos no pueden cubrir sus carnes, los burgueses están destrozando sedas y derrochando dinero. Es preciso que desaparezcan esas enormes diferencias, es necesario tronar contra esos burgueses que solamente viven a costa de nuestro sudor y chupándonos hasta las entrañas. La sangre del obrero es más honrada que la del burgués. Mientras nosotros no atacemos las instituciones vigentes estamos dentro de la ley. Debe haber unión y compañerismo entre nosotros. Iremos pacíficamente”.*

## **Elkarkidetasuna, langileak bateratzeko modu bat**

Langile mugimenduarentzat (hots, mugimendu politiko batentzat) beharrezkoa da *elkartasuna*; hots, elkarren artean laguntzea ezinbesteko bilakatzen da. Greba baten egoeran beharrezkoa da honakoa (sortzen den tentsioa jasan ahal izateko).

Gainera, aipagarria da elkartasunak irudi ona ematen duela, eta mugimendua handitzea ahalbidetu ere egiten duela. Elkartasuna oinarri den heinean, honakoaren arabera jokatu ezean “eskiroltzat” joko zaituzte.

Elkartasunak langile esplotatuen artekoa izan behar zuen, *“sin distinción de nacionalidad ni de raza”*. Y *“su único enemigo es quien los explota”*, hots, burgesia. Honek erreferentzia egiten dio langileen arteko antolaketa beharrari, beren arteko gatazkak (nazionalitate eta arrazagatik sortzen ahal zirenak, adibidez) alboratuz eta etsaitasuna zuzenean burgesiarekin soilik lotuaz.

*“En primero lugar, ha afirmado gallardamente la solidaridad entre todos los explotados del mundo. Nadie que se tenga por serio podrá negar hoy que la inmensa masa obrera, sin distinción de nacionalidad ni de raza, tiene un programa común y se mueve impulsada por los mismos sentimientos. No los que han batallado incansablemente por los fueros del trabajo y la redención del esclavo moderno, sino los miles y miles de asalariados que no hacían más que quejarse de sus dolores y mostrarse desesperados ante las privaciones que les impone el régimen explotador, han declarado elocuentemente que los acuerdos del Congreso internacional de París son su bandera, que la unión de los desheredados es precisa, que todos los proletarios son hermanos, que no reconocen fronteras, y que su enemigo, su único enemigo (...) es quien los explota”.*

Zentzu honetan aipagarria da meatzariekin fabriketako langileek izandako elkartasun adierazpena:

*‘Nosotros estamos muy satisfechos (con los salarios). Trabajamos menos tiempo que los demás obreros, tenemos libres las tardes de sábados y nuestros jornales son crecidos, pero tenemos espíritu de compañerismo y defendernos los derechos de nuestros hermanos de las minas’*

Meatzariak fabriketakoei: *“Es de traidores abandonarnos”, tras lo cual “los obreros todos se marcharon abandonando los talleres”*. LL, 17-5-1890.

### **GREBAKO ALDARRIKAPENAK: ALDARRIKAPEN OFIZIALAK**

Langile mugimenduak mugimendu politiko izan beharra du. Horren bidean, alderdi bat osatu (talde bat) eta langileen bozeramaileak izendatuko dira. Honakoak izango dira, bada, bozeramaile horiek egindako eskaera edo aldarrikapenak:

- Lan orduak murriztea
- Lanak murriztea (maiz lan bat egotzi eta hori amaitu arte langileak lanean jarraitu behar zuten). Berdin dio lanak 3 edo 6 ordu iraun, berdina izango baitu soldata.
- Kaleratutakoak lanpostuetara itzultzea

Hona hemen:

*“Los individuos que abajo suscriben, representantes de los trabajadores mineros declarados en huelga, (...) expresan:*

- *Que la jornada de trabajo diario no exceda las diez horas*
- *Que se supriman por completo las tareas (estas tareas se refieren a la obligatoriedad de cargar cierto número de vagonetas que imponen algunos contratistas a los trabajadores)*
- *Supresión absoluta de los cuarteles o barracones, dejando por lo tanto en completa libertad a los trabajadores para que se suministren de combustibles, etc., donde lo crean conveniente*
- *Admisión de los individuos que han sido despedidos de su trabajo”*

Zentzu berean, meatzariak bizi zituzten bizi baldintzak aldatzea zuten xede:

*“(El minero) se queja de dos cosas principalmente, (...) de esos nauseabundos cuarteles, de esos tristes fansterios, en que, como condición para admitirlos al trabajo, muchos contratistas les obligan a hospedarse (...), y de esa obligación, también irritante, que se les impone de ir a comprar los artículos más necesarios a un establecimiento determinado, dándoles género malo y cobrando carísimo”.*

### **UGAZABEN IKUSPUNTUA:**

Burgesek beldur zieten langile grebei, zuten indar handia zela eta. Honakoak *“poco tranquilizadora”* gisa definitu zituzten arren, langileen aldetik oraindik ez zen inolako biolentziarik ageri.

Manifestazioa kontrolatzen aldera, ugazabek ejertzitoari hots egin zioten:

*‘El movimiento huelguista, que en pocas horas a tomado probocaciones un tanto alarmantes, a causa de los muchos manifestantes y de su actitud poco tranquilizadora’. LL, 1890-5-15*

Garai honetan langile mugimendua ez zen guztiz legala, eta hrorek arazoak eragin zizkieten langile mugimenduko kideei (lehen aipatutako kaleratzeak, kasu). Dena den, greba amaitzeko *“erabakia”* hartu zutenak ez ziren langileak izan, ugazaben patronala baizik. Izan ere, lan egunak murriztu eta langilerik kaleratuko ez zutela adierazi zuten.

*‘nos consta que algunos mineros, entre los que se cuenta nuestro amigo el seños Martínez de las Rivas, se hallan conformes con todas las peticiones excepto la última, que verdaderamente resulta inadmisibile, pues no puede exigirse a un dueño de mina que vuelva a recibir a los obreros que haya expulsado’*

## EUSKAL HERRIKO MODERNIZAZIO PROZESUA

### EUSKAL NAZIONALISMOA

XIX.Mendearen amaieran (1895ean) sortu zuen Sabino Arana Goirik Euskal Nazionalismoa (moderno). Euskal Nazionalismoaren alderdi nagusia EAJ (Eusko Alderdi Jeltzalea) izan zen, Jaungoikoa Eta Legizarra zelarik beraien leloa: hots, ideologia kontserbadorea, klerikala, tradizionalista eta nazionalista zuten.

#### TESTUINGURU OROKORRA:

Nazionalismoa, izatez, burgesiak sortu eta bultzatutako ideologia izan zen. XIX.mendean sortu zen, liberalismoaren ildotik.

Espainiar nazionalismoa ez zen gai izan proiektu nazional sendo eta bateratu bat eratzeko. Horrela, zenbait eremutan berezitasunak mantendu ziren eta periferiako lurraldeetan (Galizia, Euskal Herria eta Katalunia, kasu) nazionalismoak sortu ziren.

#### EUSKAL NAZIONALISMOA:

Esan genezake Euskal Nazionalismoaren abiapuntua 1876.urtean kokatzen dela. Izan ere, urte horretan, foruak abolitu egin ziren. Horrela, abolizioaren erreakzio gisa, Euskal Nazionalismoa sortzen hasi zen.

#### EUSKAL NAZIONALISMOAREN AURREKARIAK:

Aita Larramendik (1690-1766) Espainiako monarkiaren zentralismoaren aurka kokatu zen eta Gipuzkoaren foruak babestu zituen. Ondoren, EH osoari jatorri mitikoa egiten dio.

Adituetara joz, Agosti Xaho (1811-1858) aipatu beharra dugu. Bera nahiz eta frantses jakobinoa izan, Euskal Herriko 7 lurraldeen loturaz eta kultura amankomunaz jardun zen. Gainera, planteamendu politiko bat proposatu zuen.

Planteamendu honen ondoren hainbat gertaera eman ziren euskal nazionalismoa plazaratzeko:

1. Erromantizismoa: European bezala, Euskal Herrian ere kultura euskalduna berpiztu zen.
2. Foruen abolizioa: 2.Karlistada ondoren abolituak geratu zirenean bando horretan joera foruzale zorrotzak azaldu ziren. Hauen artean, talde batek garrantzi handia izan zuen Ramon de la Sotak zuzendurikoa. 1898an, EAJ



alderdian integratu zen, hortik aurrera taldea bi bandotan bananduko da, independentista eta autonomisten artean.

3. Industrializaioa: Langile asko etorri ziren Euskal industria gunetara lanera landa eremuetatik, beraz, beste hizkuntza, beste kultura....bat dakartelarik. Honen aurrean Sabino aranak gogor egingo du kontra eta kapitalismoa zein sozialismoa kritikatu du.

Aurrekari batzuk aipatzearen *Asociación Euskara de Navarra* elkarte (1877) eta *Euskal-Erria* aldizkaria nabarmen genitzake.

Bi hauen kezka nagusia euskal kulturaren defentsa izan zen. Euskal hizkuntza eta ohiturak babestu nahi zituzten proiektu politiko baten bidez; baita euskal foruak defendatzeko estrategia politikoa hedatu ere.

#### **SORRERA:**

Euskal Nazionalismoa nekazal inguruetan sortu zen, eta liberalismoaren aurkako jarrera zuen. Izan ere, liberalismoaren aurka egoteko arrazoi politiko (foruen abolizioa) eta ekonomikoak (industrializazioaren ondorioz EHK jasandako imigrazioa) hedatu ziren Euskal Herrian. Zehazi, antzinako egiturak aldatzearen aurkakoak ziren sorrerako nazionalistak.

Egoera honetan, Sabino Arana Goirik euskal nazionalismoa sortu zuen. Gizarte tradizional eta landatarraren gainebehera zetorrela ikusita, mugimendu erradikal bat abiarazi zuen. Helburua antzinako balioei eustea litzateke:

Jaungoikoa eta Legizarra

#### **SABINO ARANA GOIRI**

Sabino Arana Goiri (1865 Abando – 1903 Bilbo) izan zen, bada, Euskal Nazionalismoaren sortzailea.

Bere familia karlista zen. Urduñako jesuiten eskolan egin zuen batxilergoa, eta bere hezkuntza oso erlijiosoan izan zen. 18 urterekin Bartzelonara joan zen unibertsitateko ikasketak egitera, baina ez zituen unibertsitateko ikasketak sekula amaitu.



1882an bere anaia Luisek bere aberria Bizkaia zela ikusarazi zion. Beraz, urte honetan euskara ikasten hasia erabaki zuen. Hamar urtetan zehar Bizkaiko historian arakatu zen, eta 1892an '*Vizcaya por su independencia. Cuatro glorias patrias*' izeneko euskal nazionalismoaren sortze agiria idatzi zuen, zeinetan, Bizkaian gertatu denaren azalpena egiten den. Liburuan historia eta elezaharrak bateratzen dira; Erdi Aroan Bizkaiak Leonen eta Gaztelaren aurka izandako lau gerra (hiru apokrifikoak eta bat erreala) kontatzen dira. Liburuaz gain, bi antzerki obra ere idatzi zituen; 'De fuera vendrá...' (1898) eta 'Libe' (1903)

Euskadi aldizkariaren zuzendari izan zen, eta baita ikurrinaren sortzaile ere. Aipatu beharra dago 1895ean EAJ alderdia sortu zuela.

### **Sabino Aranaren pentsamendua:**

Hiru ardatz izan zituen pentsamenduak

- 1) Integritate erlijiosoa
- 2) Tradizionalismoa
- 3) Modernitatearen aurkakotasuna

### **EUSKO ALDERDI JELTZALEA, EAJ**

Esan bezala, 1895ean Sabino Arana Goirik sortu zuen alderdia da EAJ. Jaungoikoa eta Legizarra leloari jarraiki, Espainiatik bereizitako Euzkadi izeneko herrialdea izendatu zuen Aranak. Herrialde honek bere hizkuntza, historia eta arraza zituela azpimarratuz.

Sabino Arana hil aurreko EAJ alderdiak izandako bilakaera hainbat fasetan bereiz dezakegu:

- Sorrera garaia
- Lehen epea (1895-1898)
- Bigarren epea (1898-1902)
- Aranaren azken epea (1902-1903)

## Sorrera garaia:

EAJren sorrera azaltzeko, beren sorreran garrantzia izan zuten hainbat ideia edo aferara dira aipagarri:

- 1) Espainiar prozesu naionalistaren ahultasuna
- 2) Literatura foruzale erromantikoa
- 3) Gerra karlistak: azken karlistadan Aranak parte hartu zuen, eta inpaktu handia eragin zuen bere baitan
- 4) XIX.mendearen azken lardeneko industrializazioa Bizkaian
- 5) Modernizazioa eta pentsamolde aldaketaren aurkakotasuna; hots, EAJ modernizazioaren aurka zegoen, kezkatu egiten baizituzten modernitateak eragingo zituen aldaketek
- 6) Inmigrazioa: Sabinorentzat buruko min handiena

EAJ sortu aurretik, Aranak hainbat hitzaldi edo milin egin zituen. Aipagarria dugu *Larrazabalgo hitzaldia* (1893). Bertan adierazi zituen Aranak, lehen aldiz, bere ideiak publikoki.

*“Jaunok: Zuon irriki abertzalea, entzuten ari zareten bizkaitarrok, zorionez nire “Bizkaia independentziaren alde” liburu apalean jaurtiki nuen txinpartaren kontaktuaz piztu da, bere kearekin zuon ikuspegia zainduz, niregan neroni naizena ikustea eragotzi dizuelarik, Bizkaiko seme soil bat, eta zinezko estimuzko eskeintza neurrigabe hau egitera bultzarazi zizuen, utziezaidazue hortaz, nire eskeron sakonena adierazi ondoren eta zuon eskeintzari zuoi ni naizen eta dudanarekin zerbitzatzeko asmoaz erantzunez, Jainkoaren eta nire Aberriaren aurka ez doan heinean...”*

### 15. Larrazabalgo hitzaldia (1893)

Hamazazpi urte bete arte karlista izan nintzen ni, gure aita karlista izan zelako, Erljioa eta Foruak lemaren alde bakarrik lan egin zuen karlista izan bazen ere, eta, azkenean, gure askatasunen hondamendiagatik minak hilobira eraman zuena... Baina laurogeita bigarren urterako nire anaia izatez bazen bizkaitar nazionalista; nik, berriz, nire karlismoa *per accidens* defendatzen nuen... Bizkaia Espainia ez zela konbentzitzeko hainbeste froga historiko eta politiko aurkeztu zizkidan, non nire gogoa aldi batean zalantzan ibili zen eta azkenean hitzeman nion, burua eta bihotza lasai, Bizkaiaaren historia ikasiko nuela eta egiari tinko eutsiko niola...

Lehen egunetik hiru eginbehar agertu zitzaizkidan begien aurrean: nire aberriaren hizkuntza, zoritxarrez niretzat guztiz ezezaguna, honen historia eta honen legeak ikastea; eta bigarren, Gramatika bat argitaratzearen bidez, Euskaraz ez zekiten aberkideei ikasteko bidea helaraztea, eta, liburu batzuen eta egunkari baten bidez, aberriaren historia eta politika irakastea; eta lan guzti hauen sintesi moduan, arrozakuntza erazte eta abertzaletasuna ezartzea...

Liburuxka batzuk eta *“Bizkaia bere Independentziaren alde”* obratxoa dira orain arte lumarekin idatziz argitara eman dudan guztia... Elkarte nazionalista oraindik ez dago eratuta... Barkatu beharko didazue hizkuntza arrotzaz berba egin dizuedana.

Sabino Aranak bere ideologiaren formulazio batzuk idatzi zituen Labeja aldizkariko hainbat artikuluetan. 1892an argitaratu zen “Bizkaia por su independencia” artikulua. Bertan planteatzen duenak 3 zutabe ditu:

- 1) Euskal arraza
- 2) Foruak: foruak indarrean jartzearen aldarria
- 3) Erlijioa

Ikus daitekeen bezala, hastapenetan Aranak Bizkaia soilik hartzen du hizpide. Dena den, gerora, pixkanaka gainerako lurraldeetara zabalduko den proiektua izango da honakoa. Honetarako Euskal lurraldeak federazio gisa antolatzea hobetsi zuen Aranak: bakoitzak bere foru instituzioak eta izaera mantenduko luke, eta interes komunak zaintzeko gainontzekoekin elkartzeko aukera lukete.

Sabinoren iritziz, euskal lurraldeak federazio bezela antolatzea zen egokiena, horrela bakoitzak bere foruak instituzioak eta izaera mantenduko luke. Aldi berean, interes komunak zaintzeko behara ikusten du, eta horregatik konfederazioa ere onartuko luke.

1894an, Bilbon lehenengo Batzokia (Euskaldunen Batzokija, aisi zentroa) eta Bizkaitarra izeneko egunkari bat sortu ziren

Finean, 1895ean sortu zen **Eusko Alderdi Jeltzalea**; baita haren zuzendaritza ere.

### ***Lehen epea (1895-1898)***

Garai honetan egin zituen hainbat adierazpenetan oso erradikal azaldu zen Espainiaren aurka. Zentzu horretan, autiespainartasuna defendatzen zuen: Espainiari egozten zion Euzkadi jasaten ari zen gaitz guziten errua.

Bere nazionalismoa autonomiaren aurka eta independentziaren alde agertu zen.

Erljioari dagokionez, integrismoa zen nagusi: zeharo nahasten ziren politika eta erlijioa: “*Bizkaia, Espainiaren mende, ezin da katolikoa izan praktikan*”.

Tradizioa zen nagusi, hein handi batean Sabino Aranak modernizazioari eta hirigintza prozesuari uko egiten zuelako.

Horrela, bada, hona hemen babesten zuten **ideologiaren ezaugarriak**:

- Bizkaian hedatu ondoren Euskal Herrira zabalduko du nazio kontzeptua; nazioa izateko beharrezko elementuak baiditu: arraza, hizkuntza, legeak, izaera + ohiturak, nortasun historikoa.

- Eta nazio guztiek independentzia lor dezakete estatu zapaltzailearen aurrean
- Foruak, lege zaharrak, lege nazionalak dira eta nazionalismoa berrindartzea lor dezaten aukera bakarra
- Kapitalismoa kritikatuko dute, ustelkeria eta ustiapenagatikan. Baina era berean sozialismoa kritikatuko dute euskal tradizioaren aurka egiten duelako, euskaldunentzat doktrina hori arrotza baitzen, atzerritarrek ekarritakoa. Liberalismoa ere kritikatuko dute, hau ateoia baita eta euskaldunen kontra dagoen sistema bat da.
- Eliza eta estatua banatzearen alde daude. Elizak estatuak baina botere gehiago hartzen duelarik.

### ***Bigarren epea (1898-1902)***

Bigarren epe hau zeharo baldintzatuta egongo da Espainiak jasandako hondamendiarekin (1898). Izan ere, afera honek nazionalismo periferikoak indartu zituen.

1898an “*Sociedad Euskalerra*” EAJn sartuko da. Ramón de la Sotak zuzentzen zuen honakoa (euskalerricos), ontzizabea eta negozio gizona zena (Euskalduna ontziolaren fundatzaile izan zen). Hots, Burgesia EAJn sartu zen.

Afera honek eragin nabarmena izan zuen EAJrengan:

*“La pugna y la unión entre los aranistas y los "euskalerrikos" marcaría un hito en la vida del Partido Nacionalista Vasco, porque la evolución al nacionalismo de los segundos y su mayor acercamiento al PNV posibilitaría que, según algunos autores, se produjera a partir de 1898, una moderación de los postulados nacionalistas, un incremento económico del PNV y el acceso a cargos públicos y a la burguesía vasca, pues apoyaron la candidatura nacionalista en 1898 por la que Sabino Arana fue elegido Diputado Provincial en Vizcaya por el distrito de Bilbao”*

Burgesia EAJn sartzen denean, dirua emango duela jakinarazten du; baina, bere ideiak moderatu egin beharko dituela esanez. Une hartatik aurrera EAJ bi sektoretan banatuta geratu zen: Aranaren aldeko erradikalak eta Euskalerrico moderatuagoak.

1898an Arana probintzia diputatu hautatua izan zen Bilboko barrutian, eta honek alderdian pragmatismoa sar zedin eragin zuen.

Afera horiek guztiak (berezi, Ramon de la Sotaren sarrera eta Arana kargu politikoak betetzen hastea) diskurtsoa moderatzea eragin zuten: independentzia aldarrikatuzetik autonomiaren alde egitera igaroko dira, alderdiaren norabidea aldatzen delarik.

### ***Hirugarren epea (1902-1903)***

Bigarren fasean aipatutako norabide aldaketa horren ildoti, Aranak eboluzio espainolista izan zuen. Horrela, uko egin zion Euzkadiren independentziari, eta Espainiako Estatuaren batasunaren barruan autonomiari ahalik eta erradikalena jarri zuen helburu politiko gisa.

Garai honetan EAJ desagertu eta "Euskal Espainolisten Liga" (Liga de Vascos Españolistas) sortzea proposatu zuen Aranak. La Patria aldizkarian argitaratu zuen alderdi berriaren programa.

Dena den, Arana 1903an hil zen. Ostera, haren irudia mitifikatu egin du euskal nazionalismoak, eta alderdi berria sortzekotan zer gertatuko zen jakin ezinean geratu gara hala.

### ***Arana hil osteko bilakaera:***

Arana hil ostean EAJ eskubiko alderdi katolikoa zen oraindik. Ostera, bi joera bereizten ziren haren baitan:

- 1) Independentista
- 2) Autonomista

Joera hauen artean ezberdintasunak baziren ere, adostasun maila minimoetara heltzea erdietsi zuten 1919 arte.

Tartean, 1906ean manifestu bat idatzi zuten eta 1907an emaitzak lortzen hasi ziren: Gregorio Ibarretxe izendatu zuten Bilboko alkate. Gerora, zabaldu egingo dira hauen ideiak.

1911ean ELA sortu zen: Euskal Langileen Alkartasuna. Sozialismo eta anarkismotik at langile euskaldunak soilik biltzen zituen sindikatua sortu zen.

1917an autonomiaren aldeko joera areagotu zen, eta autonomiaren aldeko proposamen bat sinatu zuten hiru euskal probintziek (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa). Gainera, autonomiaren aldekoek hartu zuten alderdiaren gidaritza, eta izena aldatu zioten EAJri: Eusko Komunio Nazionalista.

Horrekin, banatu egin ziren independentziaren aldekoak:

- 1) Aberri: nazionalistak
- 2) EKN: autonomistak

Banaketa honek 1919 eta 1930 bitarte iraun zuen. Primo de Riveraren diktadura kaltegarria izan zen nazionalismoarentzat: ezinezkoa zen publikoki ekimen politikoak burutzea.

Diktaduran zehar alderdiak ilegalizatu zirenez, hainbat talde nazionalista sortuko dira: "Emakume abertzaleen batzarra" esaterako. Une honetan, Aliantza Hirukoitza deituriko itun bat sinatu zuten Galizia eta Kataluniako beste hainbat talderekin batera espainiar estatuaren aurka borrokatzea zutena helburu.

1930an, bada, bi joerak berriro elkartu eta EAJ birsortu zuten. Aipagarria da birsortze horretan sektorerik liberalena banandu eta "Eusko Abertzale Ekintza" ANV osatu zutela.

#### **TESTUA:**

Testuari erreparatuta Bizkaitar gorputz bat eta Espainiar gorputz bat bereiz eta defini ditzakegu:

- Bizkaitar gorputza: azkarra, zintzoa, dotorea, kementsua, abila, langilea...
- Espainiar gorputza: espresiorik gabea, ahula, traketsa, alperra...

Beraz, aipa dezakegu testu honetan Sabino Aranak bereizketa bat egiten duela. Batetik, espainiarrei ezaugarri batzuk ezartzen dizkie, eta bestetik, bizkaitarrei beste batzuk. Hau oso garrantzitsua da gorputzak politizatuta daudelako.

Banaketa honek zerikusia du Espainian garai hartan zegoen egoera politikoarekin, non, ezegonkortasuna zen nagusi.

Egun, egoera berak ematen dira, baina espainiar eta bizkaitarrekin eman beharrean orain emigranteekin egiten da bereizketa hori.

#### **Aurrekoez gain, honakoak aipatzen zituen Aranak bere testuetan:**

Herrialde asko aritu izan dira euren jakituria gainontzekoei zabaldu nahian; beraz, aipatu beharra dugu ezin diogula atzerritarrak eman egon direnari ukorik egin.

Langile mugimenduak ez zuen karitatea onartzen; baina Sabino Aranarentzat karitatea ona zen. Bere ustez atzerritarrak eskaleak ziren, hau da, Aranak egiten zuen interpretazioa honakoa zen; Bizkaitarrak zirenak langileak ziren, eta espainiarrak, aldiz, alferrak.

Aranarentzat ez zen egokia emakume eta gizonek elkarrekin dantza egitea.

Aranarentzat zoritxar guztietan okerrena arraza nahastea zen, hau da, berdin zaio euskara, instituzioak... galtzea baina arraza ezin da galdu. Berak zioen hobe zela ezberdintasun hori mantentzea, eta berpizkunde garaian berreskuratuko zutela pentsatzen zuen.

Liberalismoa, Espainian XIX. mendean eman zena, erokeria zen. Aranarentzat arimaren garbiketa oso garrantzitsua zen.

Hasiera batean Bizkaia zen bere aberria, baina denborak aurrera egin ahala ohartu zen Euskadi ez zela soilik Bizkaia, eta azkenean bere ideiak zabaldu zituen.



### 3.GAIA

#### PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA

(1923-1930)

##### **SARRERA:**

Primo de Riveraren diktadura Espainian izan zen erregimen politikoa izan zen; Kataluniako kapitan generala zen Primo de Riverak estatu golpea eman zuenetik (1923ko irailaren 13a) haren dimisiora arte (1930ko urtarrilaren 28a) iraun zuena.

Berrezarkuntzaren atalean ikusi dugun bezalaxe, 98ko hondamendiak militarrek politikan parte hartze handiagoa izan zezaten eragin zuen.

Testuinguru horretan, 1923ko irailaren 13an, orduan Kataluniako Kapital General zen Miguel Primo de Rivera gobernuaren aurka altxatu zen, eta estatu golpea jo.

Une horretan Madrilgo gobernuak erregearengana jo zuen diktadorea geldiaraz zezan eskatzeko; ordea, erregeak ez zuen halakorik egin. Egun batzuk pasata, Alfontso XIIIak Primo de Rivera izendatu zuen Gobernuburu, gobernuak dimititu egin zuen eta Primo de Riverak haren gobernua osatu zuen.

Hasiera batean, Primo de Riverak bere agintea aldi baterako izango zela adierazi zuen. Hots, Espainiako arazoak gainditu bitartekoa:

- Gizarte gatazkak (langile mugimenduaren indartzea)
- Nazionalismoak, bereziki Katalunian
- Marokoko Gerra
- Jauntxokeria edo kazikismoa

Izan ere, militarra zen aldetik, politikariek lurra kaosera eramango zituztela uste zuen; hots, militarren beharrezkotasuna azpimarratu zuen. Militarra izaki, gizartea salbatuko duela azpimarratzen zuen.

Diktadurarekiko, gizartean jarrera ezberdinak hedatu ziren:

- Aldekoak: jabe zirenak, eliza, burgesia fintzantzariora ...
- Deus egin ez zutenak: errepublikanoak eta sozialistak
- Aurkakoak: anarkistak eta komunistak (errepresioa)

Primo de Riveraren diktadura **bi garai edo fasetan banatuta** dago:

Direktorio militarra (1923-1925)	Direktorio zibila (1925-1930)
-------------------------------------	----------------------------------

### **DIREKTORIO MILITARRA, 1923-1925:**

Garai honetan Primo de Riverak zuen botere guztia, eta ez zegoen ministroen kontseilurik; hots, diktadorea bera zen guztiaren jabe. Zentzu berean, erakunde guztiak militarren esku utzi zituen, eta gobernu zibil zirenak gobernu militar bilakatu ziren hala.

Eliza, armada, patronala eta kontserbadoreen gehiengoa haren alde kokatu ziren. Aipagarria da sozialista eta errepublikarrek jarrera sumiso eta kolaboratzailea erakutsi zutela. Anarkista, Komunista eta Nazionalistek, aldiz, aurka egin zioten erregimenari eta gogor jazartu zituzten.

Oposizioa hutsala izatearen arrazoia aurretiaz zegoen erregimenaren desprestigioa eta harekiko deskontentua izan ziren.

Mussoliniren modelo faxistaren itxura bazuen ere, ez zen hain totalitarioa izan eta, batez ere, kontserbadorea izan zen.

Esan bezala, 1923 eta 1925 bitartean anarkista eta komunistak jazartzeari garrantzia eman zion, CNT legez kanpo utziaz eta sozialistengandik banandutako erradikal haiek erreprimitzuz. Kataluniako Mankomunitatea ere ezdeusean utzi zuen eta katalanismoa jarri zuen, gaztelera ez zen edozein hizkuntza jendaurrean erabiltzea debekatuz. Alderdi politikoak ezabatu zituen eta, alderdi bakarreko ereduari jarraituz, Unión Patriótica eraiki zuen. Protekzionismoa indartu zuen eta obra publiko galantak hasi zituen.

Agintera iritsi zenean, aurreko asmo abandonistak joan zitzaizkion erabat eta Marokon finkatzeari ekin zion, Gerra bidez. Alhucemasko lehorreratzean arrakasta izugarria izan zuen eta Annualetako hondamendia ahazten hasi zen jendea. Frantsesekin bat eginda, Abd el-Krim suntsitzea lortu zuen eta horrek izugarrizko arrakasta eta ospe ona eman zion Primo de Riverari.

Arestian aipatutako errepresioaz gain, garai honetan zentsura izugarria eta askatasunaren murrizketak ezarri zituen:

- Segurtasunaren edo ordena publikoaren aurkako jardun edo delituak epai militarren bidez epaitzen ziren. Epai hauek guztiz subjektiboak ziren. Horrela, milaka pertsona joan zen kartzelara.
- Prentsan zentsura nagusitu zen, bereziki, sektore politiko batzuen aurkakoa: adibidez, Kataluniako grebak zentsuratu zituzten.
- Komunistak eta anarkistak ilegalak
- Alderdi nazionalistak ilegalak

Testuinguru honetan eta Primo de Riverak ezarritako ordenarekin, modernitatea heldu zen Espainiara. Honekin, *20.hamarkada zoriontsua* abiarazi zen.

### **DIREKTORIO ZIBILA, 1925-1930:**

Garai honetan legitimitate eta estabilitate edo egonkortasun bila zebilen Primo de Rivera; ordea, gobernu militararekin zailtasunak zituen horretarako. Horrela, izaera zibileko pertsonak sartu ziren gobernura (José Calvo Sotelo, adibidez). Zentzu berean, konstituzioaren antzeko dokumentu bat idaztea izan zuen xede.

Diktadura garaia zen arren, lehen aipatu bezala, modernitate garaia zen; 20.hamarkada zoriontsuarena, hain zuzen ere.

Testuinguru honetan oparotasun ekonomikoa hedatu zen nazioartean (1929arte), nahiz, geroago, zor publikoa areagotu.

Sozialki gizarte gatazkak urritu egin ziren:

- Egoera laboralaren estabilizazioa heldu zen, soldata eta enpleguen gorakadarekin.
- Sindikatuen ordez, korporazioak sortu ziren. Honakoek jabeak baino, langileak kontrolatzeko helburua zuten, gatazka saihesteko.
- Hainbat neurri sozial hartu zen: langileentzako etxe merkeak eraiki ziren, osasun eta hezkuntza zerbitzuak garaitu ziren eta pentsioak ezarri zituzten. (Nolabaiteko paternalismo soziala).
- 1926an *Código del Trabajo* onartu zen, eta langileen lan baldintzak hobetu ziren hala.

### **DIKTADURAREN AMAIERA:**

Azken urteetan oposizioa areagotu egin zen. Izan ere gobernuak zailtasun ekonomiko ugariak zituen, eta diktadurak hasiera batean zuen aldi baterako asmoa luzatzen ari zela ikusi zen jendartean. Oposizio hori:

- Intelektualak eta kazetariak, baita unibertsitateko irakasleak ere
- Errepublikarrak: hasiera batean antolaketa urria zuten arren, 1926ean Alejandro Lerrouxek Alianza Republicana sortu eta indartu egin zen.
- Langileak: Komunistak (PCE), Anarkistak (CNT), eta beranduago Sozialistak
- Nazionalistak: Kataluniako ERC eta Galiziako ORGA dira aipagarrien, baita EAJ, Lliga ...
- Militarrek: armadaren baitan ideia errepublikarrak hedatu ziren.

Horrekin guztiarekin, Erregeak galdu egin zuen Primo de Rivera diktadorearekiko zuen konfiantza: haren ospe ona gutxitu ahala Erregearena ere gutxituko zenaren ustez.

Zentzu horretan, Primo de Riverak dimisioa aurkeztu zuen 1930eko urtarrilean. Gerora, Damaso Berenguerrek hartu zuen bere kargua; ordea, ez zuen zeregina: ordurako biztanleriaren gehiengoa errepublikaren aldekoa zen, eta horrek bide eman zion ***II. Errepublikari***.

## 4.GAIA

### II. ERREPUBLIKA

(1931-1936)

#### II. ERREPUBLIKA ESPAINIAN

Aipatu bezala, Primo de Riverak dimisioa aurkeztu zuen 1930ko urtarrilean. Horren ostean, Alfontso XIII.a Erregeak politiko eta militar ezberdinengana jo zuen, gobernuburu berri bat hautatze aldera.

Testuinguru horretan, Berenguer militarra hautatu zuen, eta diktadura aurreko unera itzultzeko helburua izango da une honetan.

Ordea, gizarteko hainbat sektorek ez dute erabaki eta helburu horrekin bat egingo. Zentzu honetan, 1930eko abuztuan donostian bildu ziren sektore hauek, eta *Donostiako Ituna* sinatu zuten: errepublikaren aldeko ituna zen.

Hauen planteamendua altxamendu baten bidez II.Errepublikara heltzea zen. Altxamendu hori kudeatzeko Batzar Iraultzailea sortu zuten (alderdi ezberdinetako kideak biltzen ziren bertan). Errepublika lortutakoan behin-behineko gobernu ezartzea aurreikusi zuten.

Altxamendua Abenduaren 15erako finkatu zen arren, militar batzuk (Jakakoak) aurreratu egin ziren. Honakoak gogor erreprimitu zituen Gobernuak (beraien buru ziren Galán eta García Hernández fusilatuz).

Afera horiek Berenguerren aurkako oposizioa areagotu zuten, eta honek dimititu egin zuen Aznarrengan. Aznarrek, 1931ko Apirilaren 12an ***Udal Hauteskundeak*** deitu zituen.

Hiri hauteskundeetan errepublikaren aldeko emaitzak atera ziren. Horrela, handik bi egunetara, ***II.Errepublika*** aldarrikatu zen, 1931ko Apirilaren 14an, hain zuzen ere.


Alfontso XIII.a erbesteratu egin zen eta honekin amaitu egin zen errestituzio garaia. Monarkiatik errepublikarako trantsizio lasaia abiarazi zen, hala.

#### **1931ko UDAL HAUTESKUNDEAK:**

1931ko Apirilaren 12an Udal Hauteskundeak deitu zituen Aznarrek. Boto kopuru handiena monarkikoek eskuratu bazuten ere, herrietara mugatu ziren haien bozkak. Izan ere, hirietan errepublikanoen alde azaldu zen gehiengoa.

Coalición o tendencia	Concejales	Alcaldes de capitales de provincia
Monárquicos (a)	40.324	10
Republicanos y socialistas (b)	36.282	37
Esquerra Republicana	3.219	3
Lliga Regionalista de Catalunya	1.014	
Nacionalistas Vascos	267	
Comunistas	67	
independientes	1.207	

Alderdi Errepublikanoa eta Alderdi Sozialista batu egin ziren, eta *Conjunción Republicano – Socialista* izeneko koalizioa sortu zuten, indarrak batze aldera. Honek 1930ko erregimen monarkikoaren aurkakoa zen Donostiako Ituna sinatu zuten alderdien indarra berretsi zuen.



Honekin, bada, 1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika aldarrikatu zen Espainian.

*“Las ciudades de Sahagún (León), Éibar (Guipúzcoa) y Jaca (Huesca) fueron las tres únicas ciudades que proclamaron la república un día antes de la fecha oficial, el 13 de abril de 1931. El Gobierno de la II República española les concedería posteriormente el título de Ilustrísimas Ciudades. La primera ciudad en la que se izó la bandera tricolor fue Éibar, a las 6:30 de la mañana del 14 de abril, a la tarde de ese mismo día le siguieron las principales capitales españolas, incluyendo Valencia, Barcelona y Madrid, en las que las candidaturas republicanas obtuvieron mayorías muy holgadas.”*

Hauteskundeen emaitzen berri izan zenean, 1931ko apirilaren 14ean, Eibar eta beste leku gutxi batzuetan aldarrikatu zen Errepublika lehenik (herri oso sozialistak), gerora, aldarria Espainia osora hedatu zelarik.

- Bartzelonan Compayns izan zen errepublika udaletxetik aldarrikatu zuena.
- Madrilen, ministroek jauregia utzi eta errepublika ospatu zuten. Alcalá Zamora izan zen Puerta del Solen errepublika aldarrikatzeaz arduratu zena.

## BEHIN-BEHINEKO GOBERNUA

Behin behineko gobernuak 1931/04/14 eta 1931/10 bitarte iraun zuen. Donostiako Itunean adostu zen bezalaxe, behin behineko gobernu osatzea izan zen lehen urratsa.

Horrela, II. Errepublikan aldarrikatu zen egun berean behin-behineko gobernu osatu zen: nagusiki koalizio errepublikar-sozialistako kideak izan ziren ordezkari, baina nazionalista Kataluniar eta Galiziarrek ere izan zuten lekua (Euskal nazionalistak eta anarkistak bertatik kanpo geratu ziren). Honakoak dira izen aipagarri batzuk:

- Niceto Alcalá Zamora, Errepublikako presidentea (errepublikanoa)
- Manuel Azaña, Gobernuko presidentea (errepublikanoa)
- Julián Besteiro, Gorteetako presidentea (sozialista)

### Behin-behineko gobernuaren erronkak:

Hauen helburua 1931ean **konstituzio** berri bat idaztea zen. Zentzu berean, hauteskundeak deitu behar zituzten Parlamentua osatzeko.

- Parlamentu hau ezkertiarra zen
- Lehen aldiz onartu ziren 3 emakume ordezkari gisa: Clara Campoamor eta Victoria Kent errepublikarrak, eta Margarita Neiken Sozialista.

Dena den, errepublika aldarrikatu bezain pronto erreformak egiten hasi ziren.

### Lehen neurri erreformistak:

Konstituzioa onartu aurreko hilabeteetan, behin-behineko gobernuak erregimen berria bermatzeko oinarritzotzat jotzen zituen neurriak abiarazi zituen:

#### 1) **Nekazal erreforma:**

Espania herrialde nagusiki nekazaria zen 1931n. Eta iraultzarako potentzial bikaina eskaintzen zuen nekazaritzak. Beraz, nekazaritzaren erreforma sustatzeko zenbait dekretu eman zituzten. Ondorioz, *Nahitaezko Laborantza Dekretua* ezarri zen. Honen bidez, lur jabeak beren lurak ereitera eta lur saila zegoen herriko jornalariak kontratatzerara behartzen ziren; eta jornalariari gutxieneko soldata eta zortzi orduko lanaldiak ezarri zizkieten.

Erreforma honek eztabaida handia sortu zuen, eta 1932ra arte ez zen nekazal erreformaren legea amaitu.

#### 2) **Erreforma militarra:**

Armadak zuen nagusitasunak ezegonkortasuna ekar dezakeen beldur ziren errepublikarrak; eta beldur horrek bultzatuta, Azañak, ofizialen kopurua murriztu zuen (kargu asko kendu zituzten, alegia).

Era berean, leialtasuna kokatu zuten helburu bezala. Izan ere, beldurra zioten soldaduak errepublikaren aurka altxatzeari. Leialtasun horren bidean *Erasoko Guardia (Guardia de Asalto)* gorputz poliziala sortu zen, Guardia Zibilaren talde paralelo gisa sortu zena. Gerora, Gerra Zibilaren ostean, errepresio handia jasan zuten.

Aipagarria da armadako hainbat eta hainbat kide ez direla neurriekin ados egongo: Sanjuro, Goded, Milan Astray, Franco ...

### 3) **Hezkuntza erreforma:**

Hezkuntza laikoaren alde egin zen; hots, erlijioa hautazko izatera igaro zen, elizaren eragina murrizteko helburuz.

Era berean, analfabetismoarekin amaitzeko hainbat neurri hartu ziren, tartean, pedagogia patronala (?) : eskolak hurbildu egin ziren nekazal guneeetara.

### **Beste afera batzuk:**

Denbora tarte honetan badira aipagarriak diren beste hainbat auzi.

#### 1) **Erljioaren auzia:**

Aipatu bezala elizak zuen eragina murriztea zuen helburu II. Errepublikak. Horrela, hainbat lege iraultzaile onartu ziren: ezkontza zibila eta dibortzioa onartu ziren, hezkuntza laikoa defendatu zen ...

#### 2) **Autonomien auzia:**

*Kataluniako autonomiaren auzia:*

Katalunian, ERCK irabazi zituen 1931ko apirileko hauteskundeak, eta Francesc Maciak Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen Espainiako Errepublikaren baitan. Horren ondorio gobernu autonomoa aitortu zitzaion Kataluniari, eta Nuriako Estatutua proposatu zen (Kataluniako autonomiaren Estatutua, alegia).

*Euskal autonomiaren auzia:*

Euskal Estatutua eratzeko ekimenaren aitzindariak, Jose Antonio Agirrek, gizarte erreformen aldeko agiri bat idatzi zuen. Lizarrako Estatutua 1931ko Irailean aurkeztu zen, baina ez zen onartu (?).



Esan bezala, behin behineko gobernuaren betebeharra zen Parlamentua osatzeko hauteskundeak deitzea. Gizonezkoen bozka unibertsalez eratu zen gobernuak. 1931ko Abenduaren 9an, onartua izan zen behin-behineko gobernuan zehar idatzitako konstituzioa (eta abiarazitako erreformak sakondu egin ziren).

### **AZAÑAREN LEHEN GOBERNU PROGRESISTA**

Azañaren lehen gobernu progresistak 1931-1933 bitarte iraun zuen, eta **biurteko erreformista** bezala ere ezaguna da. Garai hau ezkerreko garaia izan zela ere esan liteke:

- Manuel Azaña (ezkertiarra) zen Gobernuburua, ezkerreko indar errepublikarrak, sozialistak eta nazionalistak biltzen zituen gobernuan.
- Alcalá Zamora zen (eskuidarra) zen Errepublikaren presidentea.

### **Biurteko erreformistako erreformak:**

Gobernuaren eginkizuna erreformak egitea izan zen bi urte hauetan zehar, eta horrexegatik deritzo **biurteko erreformista** garaiari. Honakoak izan ziren erreforma nagusiak.

#### **1) Nekazal erreforma:**

Aipatu bezala, zailtasun handiak izan ziren erreforma egiteko (ideia desberdinak baitzeuden). Ordea, 1932an onartu egin zen *Nekazaritza Erreformatarako Oinarrien Legea*. Lege honen helburuak bi ziren:

- Nekazaritzan berrikuntzak sortzea
- Latifundismoa bertan behera uztea

Horiek lortzeko, beharrezkoa zen jabeen lurak kendu eta nekazariari lur horiek lantzeko eskubidea ematea. Horretarako, *Nekazaritza Erreformatarako Institutua* sortu zen.

Dena den, erreforma hau oso mantso garatu zen, eta horrek gobernuarekiko oposizioa indartu zuen: nekazariak, bereziki, anarkismora hurbildu ziren.

#### **2) Erreforma militarra:**

Orain arte aipatu dugun bezalaxe, armadak eragin, baliabide eta botere handia zuen. Horrek, beldurtu egin zuen gobernu errepublikanoa. Horrela, neurriak hartu zituzten armada gobernuaren mende jarri eta ofizialen kopurua murrizteko. Gainera, *Erasorako Guardia* izeneko polizia sortu zen herrien zaintzarako.

Horrek aurkakotasuna ergin zuen armadako kide batzuen artean. Horrela, 1932an, Sanjurjo buru izaki, estatu golpea jotzen saiatu ziren. Gobernuak, ordea, gelditu egin zuen eraso. (Sanjurjada, gerora Portugalera erbesteratu zuten).

### 3) **Hezkuntza erreforma:**

Hezkuntza laikoa eta aurrerakoia garatu eta analfabetismoaren tasak jaistearen helburu. Horrez gain, 1931ko konstituzioaren arabera, nahitaezkoa zen Lehen Hezkuntza doako eta mistoa. Era berean, Bigarren Hezkuntzan hobekuntzak egin zituzten, eta Unibertsitatean ikerketa arloa sustatu zen. Era berean, andereño eta irakasleen bizi baldintzak ere hobetu ziren. Eskola asko eraiki ziren II. Errepublikan zehar, 11000 baino gehiago. Hots, *Misiones Pedagógicas* deiturikoan antolatu ziren Espainia osoan.

### **Beste afera batzuk:**

#### 1) **Erljioaren auzia**

Erljioaren auziaren ondorioz, katolikoak eta buruzagi errepublikarrak urrunketa bat izan zuten beren artean.

#### 2) **Autonomien auzia**

##### *Kataluniako autonomiaren auzia:*

Lehen aipatu bezala, 1931ko udan hauteskundeetan ERC izan zen kataluniako herrietan garaile; eta horiek izan ziren, gerora, autonomiaren sustatzaile nagusiak. Zentzu horretan, Espainiako II. Errepublika aldarrikatzearekin batera, Maciák Kataluniaren independentzia aldarrikapena ere burutu zuen.

Hasieran liskarrak izan ziren arren, akordio batera heldu ziren: ERCK bere independentziarako grina baztertuko zuen, eta Madrilgo gobernuak Kataluniako autonomiari lehentasuna emango dio.

Horrela, bada, akordioa egin eta gutxira (apirilaren 17an), autonomia estatutua idatziko zuen erakundea sortu zen, **Generalitat**. Macià (ERC) izan zen bertako lehendakari, eta gerora Lluís Companys-ek ordezkatu zuen.

Generalitat-ak idatzi zuen, bada **Nuriako Estatutua** (*Estatut de Catalunya*). Honakoa idatzi ostean, onartzera bidean erreferenduma egin zen Kataluniako probintzietan. Guztietan, onespren handia jaso zuen.

Gerora, testua Gorteetan aurkeztu eta aldaketa batzuk egin



ostean, 1932an, Kataluniari Autonomia aitortu zitzaion.

#### *Euskadiko autonomiaren auzia:*

Errepasoa: 1918tik aurrera (berrezarkuntza garaia) autonomiaren gaia indarra hartuz joan zen. Urte horretan, *Eusko Ikaskuntza* sortu zen: garapen kulturala sustatu eta autonomiaren gaian ere eragina izan zuen taldea, alegia.

Primo de Riveraren diktaduran autonomia alde batera utzi zen, II. Errepublika arte. 1931ko hauteskundeetan, Euskadiko emaitzak Espainiakoak baino konplexuagoak izan ziren. Espainian emaitzak eskuin eta ezkerrearen artean geratu ziren heinean, Euskadin nazionalistak ere izan ziren (EAJ).

Autonomiak, horrela, hainbat oztopo izan zituen. Alde batetik, EAJk ez zuen parte hartu Donostiako Itunean, eta horrela, Euskal Autonomia ez zuen inork defendatu bertan. Gainera, EAJk ez zuen asmatu autonomiaren politketan.

Testuinguru horretan, Jose Antonio Agirrek Eusko Ikaskuntzari autonomiaren proiektua idazteko eskatu zion. Ordea, honakoa 1931ko Konstituzioaren aurretik idatzia izan zenez, puntu batzuetan ez zuen harekin bat egiten.

Gerora, proiektu horretan oinarrituta bi proiektu berri sortu ziren:

- Eskuinekoa: EAJ eta Karlistena → **Lizarrako Estatutua**
- Ezkerrekoa → **Batzar Kudeatzaileak**

Aipagarria da aurrera egin zuen proiektua Batzar Kudeatzaileek sortutako proiektua izan zela. Izan ere, honek konstituzioarekin bat egin zuen. Horrela, probintzietan erreferenduma egin zen (Gipuzkoa eta Bizkaian onarpen handia, Araban txikiagoa) eta Madrilgo Gorteetan aurkeztu zen 1933an. Ordea, 1933rako Espainiako Gobernuan aldaketa izan zen (eskuinekoak nagusi), eta autonomiak itxaron beharra izan zuen.

#### *Galiziako autonomiaren auzia:*

Hau ere berandu heldu zen, eta Gerra Zibilaren hasierak eragotzi egin zuen honakoa.

## **AZAÑAREN GOBERNUAREN KRISIA:**

Hainbat arazo zirela eta, Azañaren gobernuaren krisian sartu eta ezkerreko gobernu baten partez eskuinekoa abiarazi zen hurrengo bi urteetan, 1933 eta 1935 artean, alegia.

### **Gatazka sozialak:**

1932 eta 1933an gertatu ziren gizarte gatazkek larritu egin zuten gobernu erreformistaren krisia eta hura deuseztatzea eragin zuten. Horrez gainera, 1933ko urtarrilean, anarkisten matxinadak sortu ziren Katalunian eta Andaluzian; Casas Viejaseko matxinadaren kontrako Erasoko Guardia bideratutako zapalkuntza gogorrek kalte politiko konponezina egin zion Azañari.

- Cadizko 'Casas Viejas' matxinada:

Hau garaiko gatazkarik larriena izan zen, zeinetan, 1933ko urtarrilaren 10 eta 12a bitarte anarkista eta nekazari batzuk Guardia Zibilaren kuartela hartu zuten, eta bi hil zituzten (beste bi bahitu). Guardia de Asalto lagundu nahian joan zen, eta 22 hildako izan ziren horien artean ume txiki bat.

*“Los sucesos de Casas Viejas, también denominados masacre de Casas Viejas, es el nombre con el que han pasado a la historia los episodios que tuvieron lugar entre el 10 y el 12 de enero de 1933 en la pequeña localidad de Casas Viejas, en la provincia de Cádiz, y que constituyen uno de los hechos más trágicos de la Segunda República Española. Abrió una enorme crisis política en el primer bienio de la República y fue el inicio de la pérdida de apoyos políticos y sociales que conduciría meses después a la caída del gobierno republicano-socialista de Manuel Azaña.”*

Azañak honakoa aipatu eta bere buruari errua kendu nahi izan zion:

*‘En Casas Viejas no ha ocurrido, que sepamos, sino lo que tenía que ocurrir. Se levantan una docena de hombres enarbolando esan bandera del comunismo libertario y se hacen fuertes, y agreden a la Guardia Civil, y causan víctimas a la Guardia Civil. ¿Qué iba a hacer el gobierno?’*

Gertaera horrek eragin nabarmena izan zuen gobernuarengan. Gobernuaren baitan zatiketa sortu zen (sektore bat ez baitzegoen ados hartutako jarrerarekin) eta, gainera, iritzi publikoa Azañaren aurka jarri zen, gobernuak sinesgarritasuna gal zezan eraginez.

Ezkerreko gobernuaren zailtasunak, hala, eskuinak aprobetxatu zituen: antolatzen hasi ziren monarkikoan, armada, talde katolikoak, eta 1933an Primo de Riverak sortutako falangea (Alemaniako nazismotik eta katolizismotik edan zuena).

Honen guztiaren harira, hots, oposizioa zela eta, 1933ko Azaroan Azañak hauteskundeak deitu zituen.

Hauteskunde hauetan, lehen aldiz, **emakumeek botoa** emateko eskubidea izan zuten.

Diskurtso ezberdinak zeuden honen inguruan: batzuek emakumezkoek bozka eskubidea irabazi behar zutela zioten; bestetuek baietz, baina oraindik prest ez zeudela (elizaren eraginez); eta bestetuek ez zieten bozkatzen utzi nahi.

Honakoak izan ziren hauteskundeen emaitzak:

- Alderdi garailea CEDA: Confederación Española de Derechas Autónomas. Bereziki elizaren eraginez eta emakumezkoen botoen eraginez irten ziren garaile.
- Bigarrena, alderdi errepublikano erradikala (eskuinekoa)
- Ezkerrekoek boto gutxi izan zuten, abstentzioaren ondorioz.

Testuinguru honetan, eta aldaketa hain bortitza izan ez zedin, Gobernuko Presidenteak errepublikano erradikalei eskatu zien gobernu osatzeko. Horrekin, Lerrox bilakatu zen gobernuburu berria, baina CEDAren politika egin zuen halere.

Honakoa Europan ere eskuin muturrak izandako gorakadarekin erlazioa genezake.

## **GOBERNU ERRADIKAL-CEDISTA**

(1933ko azarotik 1936ko otsailera) – Biurteko Eskuindarra.

1933ko azaroaren 19an errepublikano erradikalak eta CEDA garaile izan ziren, eta 36ra arte egon ziren agintean.

### ***Erreformismoaren kontrako politikak:***

- *Militarren auzia:*

Sanjurjo jeneralaren huts egindako estatu kolpea zela eta, espetxeratutako militarrei eta monarkikoei amnistia eman zien legea onartu zen: Sanjurjo, hala, aske geratu zen.

- *Nekazaritza arloko kontra-erreforma:*

Nekazaritza arloko erreformaren aurkako politika abian jarri ziren, eta 1932tik aurrera egindako aurrerapauso guztiak deuseztatu zituzten. Lehenengo jabeei lur batzuk itzuli zizkieten, ondorioz nekazariak lurretan finkatzea erabaki zuten.

- *Autonomien auzia:*

Euskal estatutua eta Nuriako estatutua bertan behera utzi ziren.

- *Erljioaren auzia:*

Ikastetxe erlijiosoak lanean hasi ziren berriro, eta eliz elkartean kontrolatzeko abian zen legea bertan behera eratu zen.

### ***Indar politikoaren berrantolaketa:***

1934tik aurrera indar politikoak berrantolatu ziren: izan ere, eskuinaren gorakadaren aurrean, ezkerreko alderdiek iraultza deia zabaldu zuten nazio mailan (Katalunia, Euskal Herria eta Asturiaren izan zen honen eragina).

- Katalunian, Companys Generalitateko presidentek aldarrikapen independentista egin zuen. Langileek horrekin bat egin ez zuten arren, greba egin zuten.
- Euskal Herrian EAJ gobernu eskuindarraren aurka kokatu zen arren, ez zien ezkerreko alderdiei laguntzarik eman. Ordea, langileek (eta nazionalista langileek) greba egin zuten astebetez.
- Asturiasen gizarte iraultza gertatu zen. Langile ordezkariak elkartu eta meatze ingurunean bereganatu zituzten. Gerora, Avilés, Gijón eta Oviedora heldu ziren. Egoera bereganatu zuten eta ordena iraultzailea ezarri.

Langileek egindako ekintza oro Espainiar Gobernuak gogor erreprimitu zuen. Aipagarria da Asturiaren 1000 hildako eta milaka atxilotu izan zirela.

1934ko arazoak amaitu zirenean ere, gobernuak errepresio politikarekin jarraitu zuen. Horrek, iritzi publikoa berriro ezker aldera itzuli zuen. Ezker eta eskuinaren arteko tentsioak Espainiaren banaketa politiko eta soziala eragin zuen (honakoa nazioarteko faxismo eta komunismoaren arteko tentsioarekin aldera daiteke).

Gobernua ezegonkortu egin zen, eta Lerroux presidentek 1936ko Otsailerako hauteskundeak deitu zituen. Aipagarria da, bitarte horretan (1934-1936) hiru presidente izan zirela: Alejandro Lerroux, Ricardo Semper eta Joaquín Chapaprieta.

### **FRONTE POPULARRAREN GOBERNUA**


Frente Popularra ezker alderdien baturaren ondorio izan zen, aipatutako testuinguruan eta III. Internazionalaren eraginez batzeko hautua hartu baitzuten honakoek. Horrela, bertan batu ziren sozialista, komunista eta ezkerreko alderdiak (anarkistak ez). Honakoa 1936ko urtarrilean sortu zen.

## Honakoa izan zen beraien programa:

- Beraien erabakiak hartzerako garaian askatasuna dute, nahiz eta denak ideia beren alde egon. Hots, hauteskundeak egiterako garaian ados azalduko dira.
- Lehen gobernuan, Azaña eta sozialisten artekoan, nekazaritza erreforma eman zen, eta hau ez betetzearen ondorioz 'Casas Viejas' gertatu zen. Beraz, aurreko egoera ikusita ez zuten berriro gertatzerik nahi eta jabetza pribatua beren esku zegoen.
- Nekazaritza erreformaren aurrean erradikalek eta moderatuek negozio bat egin zuten
- Ez zuten bankuen nazionalizazioa onartzen; Espainia ez zen Estatu komunista bat, baina ez zuten hau onartzen jabetza pribatua bermatzen zutelako. Beraz, estatu sozial eta liberala babesten zuten.
- Europan argia izan den tentsioa klase borrokarena izan da, eta baita sozialismoaren gainean zuten ikuspegia ere. Gainera, estatu burges errepublikarra ere garrantzitsua izan zen.
- Askatasun demokratikoa eta klase borroka ez dira gauza bera. Hauek langile guztien interesak babesten dituzte, eta hiritar guztiok positiboki egin behar dugu aurrera.
- Aurretik emandako autonomia estatutuak berriro ere aurrera eramango dira.

## 1936ko Otsaileko hauteskundeak:

1936ko hauteskudeetan populazioaren %72 inguruk bozkatu zuen. Parte hartzea oso altua izan zen: anarkistak ere bozkatzera joan ziren. Honakoak izan ziren emaitzak:



*“Las elecciones dieron una mayoría parlamentaria a la coalición de izquierdas denominada Frente Popular (Frente de Izquierdas en Cataluña), que, con más del 60 % de los diputados electos, agrupaba a Partido Socialista Obrero Español(PSOE), Izquierda*

*Republicana (IR), Unión Republicana (UR), Esquerra Republicana de Catalunya (ERC), Partido Comunista de España (PCE), Partido Obrero de Unificación Marxista (POUM), Partido Sindicalista y otros. Sin embargo, no obtuvieron el 50 % en cuanto a voto se refiere”*

Hauteskundeak, bada, Fronte Popularrak irabazi zituen, eta Manuel Azaña izendatu zuten berriro gobernuburu. Honakoa adierazi zuen:

*‘Pido unión bajo la bandera en la que caben los rebublicanos, y todo el que siente amor a la patria, la disciplina y el respeto a la autoridad constituida’.*

Gobernuaren **politika** horrela labur genezake:

- Amnistia ezarri zuen, bereziki 1934ko liskarrei begira (delitu sozial eta politikoak)
- Politika erreformista berrartu zuen:
  - *Nekazal erreforma* eta langileei begira egindako lege edo erabakiak berriro aplikatu ziren
  - *Erljioaren auzian* berriro jarri ziren indarrean aurretiazko neurriak
  - *Autonomien auzia*

*Katalunian*

Companys kartzelatik atera eta autonomia berriro indarrean jarri zen.

*Euskadin:*

Autonomiaruntz urratsak eman baziren ere, berriro ere esperoan. Autonomia gerra garaian heldu zen, hala.

Dena den, ezkerreko errepublikanoek **zailtasun handiak** izan zituzten gobernatzeko.

- Errepublikako presidente zen Alcalá Zamora kargutik kendu zuten Gorteek. Ezin uler zitekeen ezker sektore batzuekin Zamora agintean egotea (eskuindarra baitzen). Horrela Azañak bete zuen presidente kargua, eta haren hutsunea betetzeko Casares Quiroga izendatu zuten gobernuburu.
- Alderdi politikoek ez zioten errepublikari lagundu: ezkerrekoen artean jarrera eta irizpide ezberdinak nabarmentzen baitziren. Batzuk gobernuarekin ados eta erreformen alde zeuden bitartean, bestetuek iraultza zuten helburu.



- Eskuinekoen artean muturreko jarrerak nabarmendu ziren: falangea ekintza ugari egiten hasi zen (honakoa ilegalizatu egin zen) eta monarkikoak konspirazioaren alde agertu ziren. Nafarroa eta Araban aipagarriak dira errekteak, “txapel gorri” deiturikoak.
- Hots, muturrego tentsioa: ezkerrekoak komunisteri batuko zaizkie, eta CEDA Falangearekin elkartuko da.
- Ordena soziala mantentzea ezinezko bilakatu zitzaion gobernuari: egoera ekonomikoa txarra zen, elizarekin arazoak izan ziren eta alderdi politikoetako militanteak aurrez aurre lehiatzen ziren kaleetan.
- Bi gertaera aipagarri izan ziren: ultraeskuindarren Castillo teniente ezkertiarra erail zuten; eta ezkerrekoek, mendeku gosez, Calvo Sotelo eskuineko politikari garrantzitsua.

Egoera honek **konspirazio militarri** oinarriak jarri zizkion:

Armadaren sektore handi bat Errepublikaren aurka zegoen eta, horregatik, 1931n, *Espainiako Batasun Militarra* talde eskuindarra sortu zuten. Talde hau, testuinguru honetan, konspirazioa prestatzen hasi zen.

Gobernuak, horren aurrean, zenbait militar kargutik kendu eta territorialki sakabanatu zituen:

- Mola Nafarroara
- Franco Kanarietara
- Goded Balear uharteetara


Dena den, militarrek konspirazioari eutsi zioten. Horrela, Madrilen bildu eta ordena berrerrartzeko altxamendua egin behar zela erabaki zuten. Estatu golpea prestatu zen horrela.

1936ko uztailaren 17an, Sanjurjok zuzendutako altxamendua hasi zen Melillan. Gerora, **Gerra Zibila** hasi zen.

Ikusi:

- Bideoa: tema 6, la Segunda República (Memorias de España)
- Bideoa: El voto femenino en 1931
- Testua: La huella de la violencia anticlerical (?)

## ORAIN ARTEKO DENBORA LERROA:



## II. ERREPUBLIKA

(1931-1936)

### II. ERREPUBLIKA EUSKADIN

Euskal pluralismo politiko, sozial eta kulturalaren ziklo historikoa hasita zegoen II. Errepublika heldu zenerako. Esan genezake ziklo hau Alderdi Sozialistaren (PSOE, 1886 Bilbon) sorrerarekin sortu zela, hauek izan baitziren Euskadin modernizazioa bultzatu zutenak.

Testuinguru honetan, bi politikari nabarmendu ziren:

1) Indalecio Prieto, PSOE

Bera izan zen herritarrak Errepublikaren alde kokatu zituenak.

*Prieto se convierte en figura destacada del socialismo en las Provincias Vascas.*

2) Jose Antolio Agirre, EAJ

Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria.

*Eusko Jaurlaritzak 1936an sortu zen, Espainiako Gerra Zibilaren garaian, eta aurreneko lehendakaria Jose Antonio Agirre izan zen.*

Horrez gain, hainbat aipamen:

- Eusko Jaurlaritzako alderdiak honakoak izan ziren: EAJ, ANV, eta Fronte Popularra (PSOE, Ezker Errepublikarra, Batasun Errepublikarra eta PCE).
- Dolores Ibarurri, La Pasionaria (PCE), izan zen Gallartan jaio eta garrantzia handia izan zuen politikarietako bat.

### 1931KO APIRILEKO UDAL HAUTESKUNDEAK:

Esan bezala, Euskal Herrian emaitzak bereizgarriak izan ziren: EAJ nagusitu zen udal gehienetan, baina PSOEk irabazi zuen udal jendetsuenetan. Honek, bi alderdien arteko tentsio politikoa areagotu zuen.

- Eskuin monarkiko eta tradizionalisten (karlistak) zatiketa eman zen, eta EAJ batu egin zen. Bertan, hainbat liskar izan ziren Sabino Arana hil zenetik II. Errepublikari hasiera eman zitzaion arte. Alderdia zatituta zegoen, eta honek botoen eta boterearen galera ekarri zuen.
- Ezkerrean Indalecio Prieto buru zuen bloke errepublikano sozialista batuta ageri zen.
- Iruñea eta Gasteizen Karlistak nagusitu ziren (CT)

Homogenitate eza garai hartan, bada, II. Errepublikaren hasieran blokeak horrela geratu ziren:

- Errepublikanoak: errepublikano-sozialistak, komunistak (PCE)
- Neutralak: EAJ
- Monarkikoak: eskuin monarkikoa

Honek, balantza politikoan hainbat ondorio izango ditu; azken finean, neutraltasuna ez delako posible.

### **Pluralismo polarizatua**

Aipatutakoaren, Euskadin, boterea hiru alderdiren artean zegoen: EAJ, PSOE (Fronte Popularra) eta CT. Espainian EAJ eta CTk ez zuten errepresentaziorik; izan ere, oreka politiko osoa eskuin eta ezkerraren artean kokatu zen.

Horrela, bada, Errepublika garaian Errepublikaren aurkako hainbat alderdi zegoen Euskadin, eta arazoak eragin zituen horrek.

- Karlistak ziren errerepublikaren etsai nagusia: monarkiko absolutistak ziren, eta hainbat lekutan nagusitasuna eskuratu zuten (Arabian eta Nafarroan kasu), bertakoan, erlijioaren alde baitzeuden.
- EAJk neutraltasunaren alde egin zuen: ez zuten errerepublikaren ideia laikoetan sinesten, baina foruen alde zeuden (eta Erregearekin ezin halakorik lortu). Autonomiarentzat Errepublika onuragarria izan zitekeelakoan zeuden.

*Según el sociólogo Juan José Linz, «la polarización en un sistema de partidos es el resultado de la distancia ideológica entre los partidos extremos relevantes. Distancia ideológica en la concepción de la sociedad y del sistema político y, en el caso de los partidos nacionalistas, de la identidad nacional». Es fácil probar la polarización del sistema vasco de partidos, cuyos extremos están representados por la Comución Tradicionalista (CT) y Renovación Española, en la derecha, y por los partidos obreros (PSOE y PCE), en la izquierda. La distancia que separa sus concepciones sociales, religiosas y políticas es inmensa, como se constata en su prensa y su propaganda electoral. Pero en Vasconia la polarización afecta no solo a esa dimensión derecha/izquierda, sino también a la dimensión españolismo/abertzalismo, dada la existencia de la cuestión nacional y la presencia de partidos nacionalistas. En este terreno, la distancia ideológica mayor se da entre los nacionalistas vascos, que abogan por la autonomía e incluso la independencia de Euskadi, y las derechas españolistas, que sacralizan la unidad de España y rechazan la vía autonómica de la Constitución de 1931, oponiéndose al Estatuto vasco. La gran separación existente entre los extremos en esta doble dimensión del sistema vasco de partidos muestra su carácter polarizado, que se confirma aplicando los rasgos del pluralismo extremo señalados por el politólogo Giovanni Sartori en su obra clásica Partidos y sistemas de partidos (1980).*

31ean II. Errepublikak aldarrikatu zenean, EAJ haren aurka kokatu zen, karlisten alde kokatuz (biak ziren kontserbadore eta erlijiosoak). Hortaz, EAJk ez zuen konstituzioaren alde egin. Ordea, honek autonomiaren alde egiten zuenez, gerora Errepublikarrekin batera egin zuen borroka Gerra Zibilean. Dena den, aipagarria da bide horretan EAJ erdibidean geratuko dela, berriro ere honako eskema errepikatuz:

- Ezkerra, errepublikanoak: PSOE, PCE, Errepublikarrak, CNT
- Neutroa: EAJ
- Eskuina, tradizionalistak: CT eta monarkikoak

*Ambas se hallaban mucho más cerca del PNV que entre sí, siendo imposible que pactasen los mayores enemigos de la República (los carlistas y los monárquicos) con los principales valedores de ella (los republicanos y los socialistas), aunque aquéllos y éstos rechazasen al nacionalismo vasco. En cambio, sí fue factible que el PNV se aliase primero con las derechas en defensa de la religión católica (la coalición pro Estatuto de Estella en 1931) y después con las izquierdas para conseguir la autonomía vasca (su pacto con el Frente Popular en 1936).*

#### **SISTEMAREN IDEOLOGIZAZIOA:**

Garai hartan ideologizazio handia izan zen, oso muturrekoa. Hiru hauteskunde izan ziren denbora urrian (1931, 1933, 1936) eta denborak aurrera egin ahala polarizazioa gero eta nabarmenagoa zen.

Esan genezake erlijioak pisu handia izan zuela hauteskundeetan. Adibide gisa aipa ditzakegu 1936an baliatu ziren leloak: *Kristo ala Lenin, Erroma ala Mosku ..*

Aipagarria da, 1936an, Euskadiko zentroa ez zela hondoratu (Espainiarra bai, ordea). Hots, EAJk emaitza onak lortu zituen, eta Euskadiko indar politiko garrantzitsuenen zena hala. Horrela, bada, 1936ko Otsaileko hauteskundeetan “hiruki politiko” bat sortu zen, EAJ (Jose Antonio Agirre, Bizkaia eta Gipuzkoan nagusi), Fronte Popularra (Indalecio Prieto, Bilbo) eta Komunio Tradizionalista (CT, Jose Luis Oriol, Araba).

#### **AUTONOMIA ESTATUTUAK:**

Orain arte aipatu bezala, Euskadik (bereziki, EAJk) Autonomiaren aldeko grina zuen. Horrela, bada, urte luzez aritu ziren autonomia eskuratzearren lanean.

Bi autonomia estatutu dira aipagarriak. Horietako bakarrak egin zuen aurrera:

##### **1) Lizarrako Estatututa**

El Gibraltar del Vaticano. Honakoa ez zen onartu antikonstituzionala zelako eta erlijioari sekulako pisua ematen ziolako (Vaticanoarekin lotura).

Errepublika aldarrikatu eta handik egun gutxira, EAJk Bizkaiko alkate eta zinegotziak deitu zituen Gernikan. Izan ere, Euskadin ez zegoen autonomia abiarazteko organismorik, eta Agirre lehendakariak Eusko Ikaskuntzako kideei agindu zien proiektua idaztea.

Honek lau probintziak hartzen zituen bere baitan (EAE eta Nafarroa) eta Konstituzioarekin bat egiten ez zuten hainbat puntu zeuden bertan: Vatikanoarekin konkordatu sinatzea eta etorkinen aurkako jarrera.

Gerora, 1931ko ekainaren 14ean alkate nazionalista eta karlistak batzar batera deitu zituzten Lizarran. Bertan, Eusko Ikaskuntzaren proiektuan oinarritutako Estatutua onartu behar zuten. Horrela, bada, Lizarrako estatutua EAJ eta CTk babestu zuten.

Euskadin bertan bazen Estatutuaren aurka zegoenik. Indalecio Prieto dugu aipagarrien. Zentzu berean, EAJren esku zeuden udaletxeek estatutuari baietz esan bazioten ere, hiri handienak haren aurka azaldu ziren.

Estatutua, gerora, Madrilera eraman zuten. Bertan, ordea, lehen aipatutako puntu gatatzatsuak zirela eta, atzera bota zuten guztiz (konstituzioaren aurkako baitzen, finean)..

## 2) ***Batzar Kudeatzaileen estatutua eta 1933ko erreferenduma***

Errepublika aldarrikatu eta Konstituzioa onartu ostean, 1931ko Abenduan, Batzar Kudeatzaileei (Comisiones Gestoras) eskatu zitzaileen beste Estatutu proiektu bat sor zezake. Hemen, Lizarrako Estatutuarekin gertatu zenaren berbera errepika ez zedin, lau irizpide nagusi zehaztu ziren:

1. Foru Aldundiek proiektu bat egitea, EAJk ez zuelako Foru Aldundietan inolako indarririk; aitzitik, ezkerria zen indarra zuena.
2. Euskal Herriko Udalen Batzarrak onartzea.
3. Herriak erreferendum bidez gauzak onartzea.
4. Gorteak onartzea.

Lau irizpide hauetan botere guztiak eta alderdi guztiak ageri ziren. Bakoitzak leku batean garrantzia zuelako.

Finean, konstituzioarekin bat egiten zuen bide honek.

Hasiera batean zaila izan bazen ere, azkenean, EAJk onartu egin zuen bide hau: horrela, CT eskuin tradizionalarengandik urrunketa eman zen.

Gorabeherak gorabehera, 1933ko Azaroaren 5ean erreferenduma egin zen Estatutua onartzera bidean, Bizkaian eta Gipuzkoan onarpen handia izan zuen, Araban

abstentzioa nabarmen eta emaitza okerragoak izan ziren heinean. Estatutua Madrilgo gorteetan aurkeztu zen hala.

Ordea, estatutua aurkeztu zenerako egoera aldatuta zegoen gorteetan: lurraldeei autonomia emateko aukera urriagoak ziren, eskuinera itzuli baitzen gobernuak. Zentzu horretan, Euskal Estatutua berriro eten egin zen, bigarren biurteko errepublikarrak ez baitziren irtenbiderik eman.

Etenaldi horren ostera, ostera, 1936ko hauteskundeak Fronte Popularrak irabazi zituen eta berrartu egin zen autonomien agera. Horrela, bada, autonomia aitortu zen. Ordea, gerora berehala heldu zen 36ko gerra.

Testuinguru honetan aipagarria da Gerra Zibilean zehar Euskadin izan zen *Oasis Vasco* deiturikoa.

### Autonomia proiektuak, laburbilduta:

	Zein urtetan	1931ko konstituzioarekin bat?	Ekonomia	Lurraldeak	Espainiarekiko lotura	Hizkuntza	Eskubide politikoa (bozka eskubidea lortzeko beharrezko denbora)
<b>Eusko Ikaskuntza</b>	1930 - 1931	Ez (egin gabea)	Kontzertu ekonomikoa	A,B,G,N	Federala	Elebi	2 urte
<b>Lizarrako Proiektua</b>	1931	Ez	“	A,B,G,N	Konfederala	Elebi	10 urte
<b>Batzar Kudeatzaileen proiektua</b>	1932	Bai	“	A,B,G	Autonomikoa	Elebi mugatua (eusk. mugatua)	mugatu gabea
<b>1936ko estatutua</b>	1936	Bai	“	A,B,G	Autonomikoa	Elebi	Mugatu gabea

### EUSKAL KULTURA:

II. Errepublikan, Espainian bezalaxe, Euskal Herrian ere kultur-etzanda bat izan zen. Aitzol, Lauaxeta, Orixe eta Lizardi izan ziren euskal kulturaren lau erreferente nagusiak.

Julian Zugazagoitia izan zen literatura eta errealismo sozialaren erreferenteetako bat.

## 5.GAIA

### GERRA ZIBILA

(1936-1939)

#### GERRA ZIBILA ESPAINIAN

##### AURREKARIAK ETA ARRAZOIAK

Gerra Zibila XIX. eta XX.mende hasieran izandako desoreken ondorio izan zen.

- Nekazaritzan: lantze sistema eta egitura zaharkituta geratu zen. Horrek eragin zituen nekazarien baldintza txarrek arazo sozialak sorrarazi zituzten.
- Ordena publikorik eza: antiklerikalismoa, langile grebak ...
- Industrietan: langileen helburua beraien baldintzak hobetzea zen, eta ekintzak egin zituzten horretarako. Ondorioz, gizarten egonezina nabarmendu zen.
- Espainiako lurraldeek ez zuten garapen berbera izan. Zenbait eremuk autonomia eskuratu izanak eskubikoen aurkakotasuna eragin zuen.
- Eliza ere errepublikaren aurka zegoen.
- Armadak politikan parte hartzeko joera izan zuen: honakoa zatituta zegoen errepublikarren eta honen aurkakoen artean

##### GOLPE MILITARRA

Arestian aipatu bezala, 1936ko otsaileko hauteskundeak Frote Popularrak irabazi zituen. Garai hartan, Espainiako gizartean izango den tentsioa izugarria zen.


Testuinguru horretan kokatzen da golpe militarra.

1936ko Uztailaren 17an hasi zen altxamendua, Melillan, Sanjurjoren eskutik. Zenbait herritarren erresistentzia gaindituta, altxamenduak Maroko gainditu zuen. Uztailaren 18an, matxinoek, Francori telegrama bat helarazi zioten eta honakoa Kanarrietatik Marokora garraiatu zuten.

Franco, horrela, Marokoko armadaren buru jarri zen: Legioaren Tertzioak eta Erregularrak.

Uztailaren 18 eta 20 bitartean altxamendua Espainiako leku orotara hedatu zen.

- Ingurune batzuk altxamenduaren esku geratu ziren
- Beste batzuk, aldiz, Errepublikaren esku





## BI EREMUREN SORRERA:

Mapan ikus daitekeen bezalaxe, hasiera hasieratik Espainia bi eremutan banatu zen

### Errepublikarren mendeko eremua:

Gorriek demokraziaren alde egin zuten, faxismoaren aurka.

- **Geografikoki:** lurralde industrialak, Madril (hiriburua) eta nekazal lurraldeak (Andaluzia, Levante)
- **Baliabideei dagokienez:**
  - Langile alderdiak, errepublikanoak, nazionalistak (\*)
  - Indar militarrik:
    - Armada bitan zatitu zen: errepublikak bere armada egituratu behar izan zuen, eta ofizial gisa esperientzia urriko pertsonak jarri behar izan zituzten: Durruti
    - Miliziak sortu ziren: anarkistek osatutakoak
    - Kanpoko babesari dagokionez, soldadu gutxiago izan ziren errepublikaren alde egitera heldu zirenak
- **Antolamendua:**
  - Errepublikako gobernua
  - Generalitat
  - Lehen Eusko Jaurlaritza (ikus Gerra Zibila Euskal Herrian atala)

Casares Quiroga → Martinez Barrio → Giral → Largo Caballero → Negrin

Altxamenduaren unean Casares Quiroga zen gobernuburu. Bere helburua altxamendua etetea zen, eta lortu ez zuenez dimititu egin zuen. Honen ostean Martinez Barrio izendatu zuten gobernuburu. Hark, Molarekin elkartu eta gerraren amaiera adostu nahi zuen. Honek ere helburua lortu ez zuenez dimititu eta Giral-i pasa zion kargua. Hark armak banatu zizkien langileei. Ordea, horrek ere egoera lastu zuen, eta Azañak Giral kendu eta Largo Caballero izendatu zuen gobernuburu.

Kontzentraziozko gobernua eratzea izan zuen helburu, alderdien arteko batasuna bermatzeko. Horrela, baliabideak zentralizatu eta gerrari begira politika bakarra burutzea zen xedea.

Halere, alderdien arteko zatiketak jarraitu egin zuen, eta Largo Caballeroren ordeztu Negrin jarri zen gobernuburu. Helburu jakin batzuk zehaztu zituen arren, bere garaian errepublikarrek galtzen jarraitu zuten: haien artean batzuk bakezaleak ziren eta bestetarik erresistentzia nahi zuten.

Finean, Negrinen gobernuaren aurkako estatu golpea jo zuten 1939an, eta Gerra Zibila errepublikarrek galdu egin zuten.

- ***Kanpoko lurraldeen partehartzea:***

Errepublikaren alde kokatu ziren Sobietar Batasuna, Mexiko, Frantzia eta Nazioarteko Brigadak.

**Altxamenduaren mendeko eremua:**

Altxamenduaren aldekoak, matxinoak, nazionalak, frankistak. Hauek ordena publikoa berrezartzearen alde eta estatuaren arerioak suntsitzeko helburuz borrokatu zuten.

- ***Geografikoki:*** Nekazal lurraldeak (Gaztela Leon, Galizia)

- ***Baliabideei dagokienez:***

- Monarkikoak, Eskubikoak (CEDA), ultraeskubia (falangea, JONS)
- Indar militarrik:
  - Armada bitan zatitu zen: altxamenduaren alde kokatu ziren goimailako ofizial gehienak, baita Marokoko armada ere
  - Miliziak sortu ziren: Falangistek eta Karlistek (erreketeak) osatutakoak
  - Kanpoko babesari dagokionez, soldadu gehiago izan ziren altxamenduaren alde egitera heldu zirenak

- ***Antolamendua:***

Batasuna izan zuten abiapuntu. Altxamenduko alderdiek programa bateraturik ez zuten, armada izan zen egoeraren euskarri. Altxamendua Sanjurjok zuzendu behar zuen, baina hegazkin istripu batean hil zenez, *Defentsa Nazionaleko Junta* sortu zen (militarrez osatutako gobernu). Era berean, beharrezko ikusi zuten zuzendaritza politiko eta militar bakarra, eta Franco izendatu zuten jeneral goren (gerora, kaudillo).

Alderdi bakarra sortzea izan zuten helburu. Horrela, Falangistak, Karlista eta Tradizionalistak eta JONS elkartu egin ziren eta FET eta JONS alderdiak sortu zituzten. Mugimendu Nazionalaren baitan kokatzen ziren honakoak.

- **Kanpoko lurraldeen partehartzea:**

Oro har herrialde faxistak izan ziren laguntzaileak. Hitlerren Alemania, Mussoliniren Italia eta Salazarren Portugal.

**GERRA ZIBILAREN GARAPENA:**

**1936**


Altxamenduaren helburua Madril hartzea zen. Horrela, Iparraldeko tropak (Molak zuzenduta) Madril hartzen saiatu ziren, baina porrot egin zuten: Errepublikarrek Guadarraman erresistentzia antolatu eta erasoari eutsi zioten.

Hori hala izanik, Madril hartzearen ardura Francori ezarri zioten. Alemania eta Italiaren laguntzarekin, Marokoko tropak penintsulara igaro ziren. Horrela, Erregularren eta Legionarioen zutabeak (Marokoko armada) iparraldera abiatu ziren, eta bidean lurraldeak bereganatu zituzten.

- Andaluziaren mendebaldea
  - Extremadura: Badajozeko borrokak
- } Mendebaldea Altxamenduaren esku geratu zen

Gerora, Madrilera abiatu ziren. Ordea, zuzenean beharrean, desbideratu eta Toledora bideratu ziren lehenik.

Toledon, Alkazarren setiatuta zeuden altxamenduko tropak askatu eta lurraldea bereganatzea lortu zuten.



1936ko urrian Madril ziren Altxamenduko tropak. Horrela, Errepublikako Gobernuak Valentziara alde egin zuen eta "Defentsarako Junta" sortu zen haren partez.

Madriren, Altxamendukoek berehala hartuko zutela uste bazuten ere, erresistentzia gogorarekin egin zuten topo. Borroka latzak gertatu ziren (Campo Universitario, Puente de los Franceses), baina Errepublikarrek garaitu zuten.



Gertaera hauek gerra luzatzea eragin zuten.

Testuinguru honetan, Francok industria inguruneak hartzea deliberatu zuen, eta Iparraldera abiatu zen.

### 1937

Iparraldeko erasoak ekialdetik mendebaldera burutu zuten Altxamendukoek. Horrela, Euskal Herrira heldu ziren. Ikus, gerora, Gerra Zibila Euskal Herrian atala.

Finean, esan genezake 1937ko Ekainean frankistak Bilbon sartu zirela, eta horrela, lurraldea Altxamenduaren aldekoen mende geratu zela.

Euskal lurrak garaituta, hurrengo helburuak Santander eta Asturias ziren. Errepublikarrek erresistitzeko saiakerak egin bazituzten ere, Santander eta Asturias altxamenduaren mende geratu ziren.

Horrela, bada, 1937ko urrirako Iparralde osoa Altxamenduaren mende geratu zen.

Era berean, hegoaldean ere altxamendukoek aurrera egin zuten: Malaga hartu zuten, hala.



## 1937 amaiera eta 1938

Errepublikako gobernua mugitu egin zen Valentziatik Bartzelonara.

Franco, berriro ere, Madril hartzera abiatu zen. Negrinek, hiriburua salbatze aldera, Teruelen eraso jotzea erabaki zuen, eta Errepublikarren mende geratu zen hala. Ordea, Francok ez zuen galera hori onartu, eta kontraeraso jo zuen Terueleko Borrokak sorraraziz (urtarrila eta otsaila bitarte).

Teruel berreskuratuta, Aragoien erabateko eraso jo zuten frankistek. Horrekin, errepublikarren ekialdeko frontea bitan banatu eta Katalunia isolatu nahi zuten. Altxamendukoek hori erdietsi ostean, Negrinek, ekialdeko frontea berriz batzeko asmoz, Ebron eraso jo zuen. Ebroko borroka Gerra Zibileko borrokarik krudelena izan zen, eta finean, altxamendukoak izan ziren garaile.



## 1939

Gerra amaitzera zegoen.

Lehen hilabeteetan Katalunia erori zen. Horrekin, Errepublikako presidentek eta gobernua erbesteratu egin ziren. Gerora, Negrin itzuli eta bakea lortu ezean erresistentzia izan zituen helburutzat (Munduan Bigarren Mundu Gerra sortu arte).

Ordea, 1939ko otsailean potentzia demokratikoen (Frantzia, Ingalaterra) onartu egin zuten Francoren gobernua. Errepublikanoen arteko zatiketa areagotu zen honen ondorioz.

Testuinguru horretan, Casadok estatu golpea jo zuen Madril. Gobernua osatu zuen, eta Francorekin bakea negoziatzen ahalegindu zen.

Francok ez zuen inolako bakerik nahi, garaipena baizki. Casadorekin errepublikanoen erresistentzia amaitu egin zen; eta 1939ko apirilaren 1ean Franco Madril sartu zen.

Honekin, bada, Gerra Zibila amaitu eta **Frankoren Diktadura** garaia hasi zen.



## GERRA ZIBILA

(1936-1939)

### GERRA ZIBILA EUSKAL HERRIAN

1936ko hauteskundeen ostean Espainian tentsio politikoa nabarmendu zen bezalaxe, Euskal Herrian ere (lau probintzietan) argi geratu zen hainbat eta hainbat indar eta estrategia politiko ezberdin zeudela.

Gipuzkoa eta Bizkaian errepublikaren alde zegoen gehiengoa, eta hori EAJk eta Fronte Popularrak ordezkatzeko zuen. Araba, Nafarroa eta Gipuzkoa zein Bizkaiaiko landa eremu batzuetan, aldiz, Elkarte Tradizionalista (CT, Karlistak) ziren nagusi.

#### GERRAREN GARAPENA EUSKAL HERRIAN:

##### Errepublikarren mendeko garaia

1937ra arte Errepublikarren mende egon zen lurraldea. Egoera hori onuragarria izan zen Euskal Autonomiarentzat. Horrekin, EAJk eta Fronte Popularrak 1936ko urriaren 1ean Euskal Estatutua onartu zuten: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Euzko Jaurlaritza sortu zen hala.

Ez zen hauteskunderik egin, eta Jose Antonio Agirre izendatu zen Lehendakari eta Defentsa kontseilari. Gainontzekoak, ezker alderdietakoak izango dira (CNT salbu, betoa baitzuen). Garai hartan autonomia eta administrazio zabala garatu zuen Jaurlaritzak.

*Ante la imposibilidad de celebrar elecciones al parlamento vasco a causa de la guerra, en una disposición transitoria del Estatuto de Autonomía se estableció que el primer presidente del gobierno vasco sería nombrado por los concejales de los ayuntamientos no ocupados por los franquistas. Así fue como el 7 de octubre de 1936 resultó elegido lehendakari en la Casa de Juntas de Guernica José Antonio Aguirre, el líder del PNV, por unanimidad. Aguirre formó inmediatamente un gobierno en el que los nacionalistas vascos ocuparon las principales consejerías —Defensa (de la que se hizo cargo el propio Aguirre), Justicia y Cultura, Gobernación y Hacienda— y el resto los partidos del Frente Popular —PSOE, Izquierda Republicana, Unión Republicana, Acción Nacionalista Vasca y Partido Comunista de Euskadi—. Quedó fuera la CNT por el veto del PNV. En realidad fue un gobierno presidencialista ya que Aguirre concentró muchos poderes al ser al mismo tiempo lehendakari y consejero de Defensa, en un momento en que la prioridad era la guerra.*

Altxamendukoak Iparraldera heldu bitartean, “oasis vasco” izenez ezaguna den aldia izan zen Hego Euskal Herrian. Izan ere, errepublikanoen mende zegoen lurraldea: oro har, PNV eta Fronte Popularra zeuden agintean. Garai honetan, 1936ko urriaren 1ean onartutako Euskal Estatutuaren harira, lehen Euskal Gobernu autonomoa sortu zen. Gobernu honek, bere hilabete urriko iraupenean, jardun oparoa izan zuen. Honen ezaugarri azpimarragarrienak katolizismoaren mantenua, iraultza sozialik eta jazarpen erlijiosorik eza eta berme juridikoak

babestu eta erailketa indiskriminatuak saiheste aldera egindako lana izan ziren; hainbat lanen arabera, “kezka humanitario” batek barnebildu zuena.

Dena den, aipagarria da une honetan Eusko Jaurlaritzaren eta Errepublikaren artean tentsioak ere bazirela. Honakoak, jendartean topatzeaz gain, adierazgarri izan ziren antolaketa militarrean: testuinguru honetan sortu zen, Aguirre lehendakariaren eta Sasetaren agindupean, “Euzko Gudarostea”; oro har, PNVn kokatzen ziren gudariak osatutako ejertzitza.

### **Altzamen duaren mendeko garaia, 1937tik aurrera:**

Aipatu bezala, 1937an heldu ziren Frankistak Iparraldera. Erasoak, ekialdetik mendebaldera burutu zuten.

#### **- *Gipuzkoako Frontea:***

Aldi honek Gerra piztu zenetik (36ko uztaila) Lehen Eusko Jaurlaritza sortu bitarte iraun zuen (36ko urria).

Matxinatuen tropek, bereziki Araba eta Nafarroatik heldutako erreketeek, Gipuzkoa erasotu zuten. Donostia bonbardeatu zuten, hala.

Lehenik Bidasoara jo zuten, leku estrategikoa baitzen (Frantziarekin muga). Horrela, bada, matxinatuen tropek (Beorlegi Koronela buru) Irun hartu eta muga itxi zuten. Hortik abiatuta Gipuzkoa osoa Molaren mende geratu zen.

Testuinguru honetan, errepublikaren aldekoek gerra antolatu eta lurraldeak kontrolatzeko helburuz *Defentsa Batzarrak* sortu zituzten: EAJ, Fronte Popularra eta CNT bildu ziren bertan. Ordea, anarkista eta nazionalisten eztabaidak zirela eta, errepublikanoek gaitasun falta handia izan zuten, eta Gipuzkoako Frotea desegin egin zen hala.

Honen ondorioz, Gerra Bizkaiara igaro zen.

#### **- *Legutioko erasoak:***

Gipuzkoa galdu ostean, 36ko Urrian, Gorteen autonomia onartu zuten. Horrela, gerra antolatzeko ardurak Eusko Jaurlaritzarena izatera igaro zen: politika egiteaz gain gerra kudeatu behar zuten.

Zentzu horretan, estrategia bat abiarazi zuen “Euzko Gudarosteak”. Euskadi hegoaldean, Legution, erasoak joko zuten, eremu faxista murrizte aldera. Gerora, frankisten hegoaldeko defentsak hautsita, Gasteiz hartzea zuten helburu.

Ordea, euskal armadak zuen prestakuntza eskasagatik, ez ziren helburuak lortu. Arabako operazioak porrot egin zuen.

Zentzu horretan, Bizkaia babestea bilakatu zen Eusko Jaurlaritzaren eginbehar nagusia.

- **Bizkaia:**

Eusko Jaurlaritzak *Burdinezko Gerrikoa* sortu zuten Bilbo inguruan, hiriburua babesteko helburuz.

Altxamendukoen aldekoek (armada frankista, Condor Legioa eta Unitate Italiarrak) eraso jo zuten Bizkaian: Otxandio, Durango eta Gernika erori ziren hala. Gerora, Burdinezko Gerrikoa erasotzea izan zuten helburu.

Diseinatzailearen laguntzarekin (Alejandro Goikoetxea), 1937ko Ekainean frankistak bilbon sartzea lortu zuten: ahulgunean zein ziren adierazi baitzien.

Honekin, bada, Euskal lurralde oro frankisten mende erori zen.

**Ondorioak:**

Euskal armadak (EAJ) amore eman zuen Santoñan, italiarren aurrean. Gainontzeko errepublikarrek borrokan jarraitu zuten.

Euzko Gudarosteko gudariak Kantabriara joan ziren, eta bertan egin zuten erretiroa, **Santoñako itunaren** bidez (1937ko abuztuaren 24an sinatua).

*Se conoce como Pacto de Santoña a un acuerdo firmado el 24 de agosto de 1937 durante la caída del Frente Norte en la Guerra Civil Española entre dirigentes políticos vinculados al Partido Nacionalista Vasco y los mandos de las fuerzas italianas que combatían en apoyo del bando franquista en el municipio de Santoña.*

*[...] En estas circunstancias se llegó a un acuerdo a espaldas del gobierno de la República, en Valencia en esos momentos, por el que el Ejército Vasco se rendiría, entregando sus armas a los italianos, a cambio de que respetasen la vida de sus soldados y fueran considerados prisioneros de guerra bajo la soberanía italiana, permitiendo evacuar a los dirigentes políticos, funcionarios vascos y a los oficiales que lo desearan por mar. En aquel momento los vascos aceptaron la rendición sin ulteriores condiciones, aunque trataron inútilmente de conseguir unas mayores garantías del coronel Farina, jefe del estado mayor de las fuerzas italianas. Así las cosas los italianos entraron en Santoña y se hicieron cargo de la administración civil.*



Ikusi:

- Testua: La Guerra Civil en el País Vasco, Un conflicto diferente?, Santiago de Pablo

## 6.GAIA

### FRANKOREN DIKTADURA

(1939-1975)

#### FRANKOREN DIKTADURA

1939an Espainiako Gerra Zibila amaitu ostean, diktadura militarreko ia berrogei urteko garai luzea heldu zen. Erregimenak luze iraun zuen hainbat ezaugarri tarteko: frankismoaren barne aldaketa eta berrikusteak, egokitzapen gaitasun handia, erabateko kontrola eta zapalkuntza zein errepresio orokortua.

Frankismoaren bilakaeran hainbat epe bereiz daitezke:

- 1939-1957
- 1957-1975

#### AURREKARIAK:

Esan bezala Gerra Zibila jasan zuen Espainiak 1936 eta 1939 urteen artean, eta Altxamenduaren aldekoek garaitu zuten, Diktadurari bide ematen.

Garai hartan Espainiar gizartea erabat lur jota zegoen, eta herritarren bizi baldintzak oso txarrak ziren: gose ziren, soldata baxuak zituzten eta lan baldintzak ere desegokiak ziren. Horrez gain, gizarteak politikoki eta sozialki banatuta jarraitzen zuen (ideologiak medio), eta barne-liskarrak ugariak ziren hala, alderdi ezberdineko kideen arteko erlazioa txarra baitzen.

Altxamenduaren aldekoek gerra irabazi zutenean, buru bakarren esku utzi zuten botere guztia, Francisco Franco diktadorearen esku, alegia.

Gerra amaitutakoan, gizartea erabat lur-jota zegoen eta herritarren bizi baldintzak oso txarrak

#### DIKTADOREA, FRANCISCO FRANCO:

Errepublikaren aurka zegoen indar oro batu, kontrolatu eta horien babesaz gobernatu zuen. Horrela, ia 40 urteko iraupena izan zuen diktadura totalitario eta faxista zuzendu zuen (Europako diktadurarik luzeena).

Diktadura pertsonala izan zen Francorena: hura izan zen botere absolutua izan zuena: jeneralisimoa, armadako, gobernuko eta alderdi bakarreko burua; baita botere legegilearen jabe ere. Botere hori zela eta, gainontzeko diktadura faxisten antzera, gurtu egin zen Franco: estatuko erakunde, eliza eta prentsak laudatu eta goretsi egin

zuten. Haren gain ez zegoen inolako kontrolik; hots, *Jainkoa eta Historiaren* aurrean zen erantzule.

Horrela, bada, diktadura pertsonalaren forma hartu zuen politika eta gizarte sistema ezarri ziren Espainian: Frankismoa, alegia.

## **OINARRI POLITIKO ETA SOZIALAK:**

Francok aldaketa sakonak egin zituen politikan, kulturen eta ekonomian.

### **- Oinarri politikoak:**

Francoren diktadura gabezia juridiko handiekin sortu zen; horrela, bada, horiek estaltzearen "*Oinarrizko Legeak*" ezarri zituen. Ezartze horrekin erregimena instituzionalizatu egin zen.

*Las Leyes Fundamentales del Reino fueron el conjunto de ocho leyes españolas que organizaban los poderes del Estado durante la dictadura franquista. Siete de ellas fueron promulgadas entre 1936 y 1967, completando el conjunto una octava, aprobada durante la Transición, en 1977, que con el mismo rango modificó el marco legislativo y permitió llevar a cabo la reforma política. Conjuntamente, sintetizaban los aspectos básicos del sistema político español de la época, análogamente a como lo suele hacer una constitución.*

Lege hauen arabera, besteak beste:

- Indar politiko guztiak alderdi bakarrean batu ziren (JONS-FET)

*La Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista (FET y de las JONS) fue el partido único del régimen franquista y, a efectos legales, el único partido permitido en España tras la guerra civil. A pesar de su nombre oficial, durante la dictadura fue comúnmente conocido como el «Movimiento Nacional», un concepto que en realidad hacía referencia a todo el mecanismo político del cual se dotó la dictadura franquista durante su existencia.*

- 1947tik aurrera Espainia erregerik gabeko erresuma izendatu zen, eta Francok hartu zuen estatuburu kargua
- Autonomia guztiak desagertu ziren
- Estatu konfesionala ezarri zen
- Estatu zentralista ezarri zen
- Gobernu Frankista osatu zuten sektoreak: Falangistak, Militarrak, Monarkikoak eta Katolikoak

- **Oinarri ideologikoak:**

Frankismoak ez zuen oinarri ideologiko egonkor eta egituraturik izan; izan ere, beste iturri ideologiko batzuetatik zetozen ideiak bildu eta laburtu zituen: Falangearenak, Elizarenak, Karlismoarenak eta beste hainbat kanpo erreferentziarenak (faxismoa).

Oinarri ideologikoak, finean, hiru funts zituen: Armada, Eliza eta Falangea.

- **Oinarri sozialak:**

Frankismoa ezartzea ahalbidetu zuen estatu golpeak hainbat eta hainbat gizarte talderen babesa jaso zuen.

- Burgesia: beren ondasunen eta prestigioen berreskuratzea helburu.
- Erdi mailakoak eta sekotze katolikoak: mentalitate tradizionalista zen hauen ezaugarri.
- Esker oneko sabelak (Estomagos agradecidos): 1960ko hamarkadan egon zen garapen ekonomikoak erakarritako sektorea izan zen
- Monarkikoak: Karlistak. Dena den, arazoak sortu zituzten monarkia berrezarri nahi zutelako.
- Militarrak
- Eliz jendea: apaizak

**ERREGIMEN FRANKISTAREN GARAPENA:**

**1939-1957: Isolamendutik Irekitasunera**

*(Hemen batera daude 40. eta 50. hamarkadak)*

Frankismoaren hasaierako urteetan hainbat faktore pilatu ziren: birrinduta zegoen herrialdea eraberritu beharra zegoen, sistema politiko berria egonkortu eta nazioareko gertaeren arabera kanpo politika bat zehaztu.

## - **Politika**

### *Kanpo politika:*

40.- Gerra Zibila amaitu eta gutxira Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) hasi zen nazioartean. Gertaera honek asko baldintzatu zuen Espainiaren kanpo politika.

Franko ideologikoki erregimen faxisten aldekoa bazen ere, gerraren aurrean ez zuen jarrera argirik izan. Hots, bilakaeraren araberrako jarrera izan zuen.

- Hasieran, egoera ekonomikoa zela eta, neutraltasuna adierazi zuen espainiak. Hitler eta Mussolinirekin bildu bazen ere, ez ziren adostasunetara heldu.
- Gerra hasieran, (1939-1942) faxistak irabazten hasi ziren. Horrela, neutraltasuna alde batera utzi eta lurralde ez beligerante aldarrikatu zuen Espainia; hots, Gerran parte hartu gabe bi blokeetako baten alde kokatzen zela jakinaraziz. 1941ean Dibisio Urdina osatu zen, adibidez. Honekin Espainiak Alemaniari laguntzarren soldadu talde bat bidali zuen Sobietar Batasunera, komunismoaren aurka borroka egin zezaten.
- 1942tik aurrera, ordea, aliatuak hasi ziren irabazten (faxistak galtzen, beraz). Horrela, Ardatzeko potentziei laguntzeari utzi eta 1943an neutraltasun hitzarmena sinatu zuen.

II.MG amaitu zenean, Espainia Erregimen Diktatoriala zenez eta gerran azaldutako jarrera politikoak eragindako zalantzak zirela medio, *nazioarteko bakantzea* edo *isolamendua* ezarri zitzaion. Horrek hainbat debeku ezartzen zizkion Espainiari, eta ekonomiarentzat, besteak beste, kaltegarria zen.

50.- Ordea, nazioarteko testuingurua aldatu egin zen gerora. 1947an Gerra Hotza hasi zen, eta mundua bi bloketan banatu zen: Bloke Kapitalista eta Bloke Komunista. Blokeen banaketa Francorentzat onuragarria izan zen; izan ere, AEBk Franco aliatu antikomunista gisa ikustera igaro ziren. Horrekin, *irekitasunaren garaia* heldu zen berriro 50.hamarkadan.

Honen adibide dira, adibidez, 1948an berriro ere muga frantziarra zabaldu izana edota Europako hainbat potentziekin merkataritza hitzarmenak sinatu izana.

Dena den, irekitasun horrentzat biziki garrantzitsuak izan ziren bi akordio sinatu ziren 1953an:

- Vaticanoarekin Konkordatuak:

Honen bidez, Francok behar zuen zilegitasun morala eskuratu zuen, Vaticanoaren onespenearekin batera nazioartekoa eskuratuz. Trukean, eliza katolikoak berretsi eta areagotu egin zuen erregimenean zuen eragina, eta ordezkariak handiagoa izan zuen erakundeetan. Era berean zuzenbidean eta irakaskuntzan elizaren eskumenak areagotu ziren. Gainera, Eliza zituen zergetatik salbuetsi zuten.

- AEBekin sinatutako akordioa:

Zantzu militarreko akordioa izan zen. Espainiak kokapen estrategikoa zuen antikomunismoa babesteko, eta AEBk bere base militarrek Espainiako lurraldeetan ezartzea negoziatu zuen hitzarmenetan: Rota, Torrejon, Zaragoza eta Moronen. Horrela, estatubatuarrek erregimena onartzea gain, merkataritza harreman txiki batzuk sortzea ere lortu zuen Francok. Hitzarmen hauei esker, Espainiak NBE eta UNESCOn sartzeko erraztasunak izan zituen, eta lurraldeak behin betiko nazioarteko erkidegoan sartzeko bermeak eskuratu zituen. (Marshall Planaren baitan).

#### *Barne politika:*

40.-Gobernuak errepresio politikari heldu zion. Biktimen artean soldadu errepublikanoak nabarmendu ziren, baina irakasle eta maisuengan ere garbiketa politiko nabarmena burutu zuen.

1942tik aurrera, aldaketak izan ziren Francoren gobernuan: Falangista faxistenak baztertu eta moderatuagoak sartu ziren gobernuan, baita katolikoak ere (Carrero Blanco hemen kokatzen da). Une horretan, gobernuak hainbat lege eta erabaki hartu zituen, Espainia faxista ez zela adierazi eta nolabait nazioarteko erregimen demokratikoen onspena jasotzeko.

50.-50.hamarkadan nazioartean eman zen irekitasunak, barnean ere irekitasuna eragin zuen. Nolabait, adiskidetze egoera bat eman zen. Horrela, gobernuan oreka mantendu zen, falangisten, militarren, katolikoaren eta monarkikoaren arteko istiluak saihestuz.

Hezkuntza arloan irekitze eta liberalizazio zantzu batzuk ageri ziren. 1951ean Hezkuntza saileko buru izan zen Joaquín Ruiz Giménezek unibertsitatea apur bat

modernizatu zuen: erbesteratuta zeuden intelektualei itzultzeko eskatu zien, eta ikasleen ordezkariak sindikatu falangistatik at hautatzen hasi ziren.

Testuinguru horretan irekitzearen aldeko ikasle mugimendu bat sortu zen, eztabaida gune bat eta elkarte bat sortzeko proposamena egin zuena. Sektore kontserbadoreak, hots, falangeak, horren kontrako iritzia zuen ordea. Horrela, 1956an istiluan izan ziren Madrilen ikasleen artean.

#### - **Ekonomia:**

40.- Gerra Zibilaren ondorengo egoera ekonomikoa oso kaxkarra zen. Horrela, gobernuak, *ekonomia autarkikoa* ezarri zuen, ekonomia onbideratu eta berreraikitzeke helburuz.

Honek bi ezaugarri nagusi izan zituen. Batetik, estatuak ekonomiako sektore eta prozesu orotan eskuhartzen zuen; bestetik, autarkia mantendu zen.

*Sistema económico en el que un estado se abastece con sus propios recursos, evitando en lo posible las importaciones.*

50.- Estatuaren aldetik, irekitasunarekin batear, liberalizazio bat eman zen. Horretarako hainbat urrats izan ziren:

- Merkatua liberalizatu egin zen: atzerriko lehen inbertsio eta inportazioak egin ziren. Alde honetatik, funtsezkoa izan zen AEBtako laguntza ekonomikoa.
- Produktuen prezioan ere askatasuna ezarri zen: honekin prezioek gora egin zuten, eta lehen grebak hasi ziren hala.
- Kanpo merkataritzaren liberalizazioak ekonomia berritzea eta hedatzea eragin zuen, baina horrek merkataritza balantza defizitarioa izan zuen ondorio.

Neurri hauekin ekonomia apur bat aurreratu zen, eta garapena hasi zen pixkanaka. Industria sektorea izan zen hobekuntza handienak jasan zituena, eta lehen aldiz nekazaritza sektorea gaitzetea lortu zenn. Soroak mekanizatu egin ziren, inportatutako ongari eta pentsuak baliatzen hasi ziren eta landutako zein ureztatutako lurralde kopurua hazi egin zen.

#### - **Gizartea:**

Aipatutako neurriek gizartean eragina izan zuten; hots, 1940ko hamarkadan pobrezia muturreko mailetara heldu zen. Gosea (arrazionamendua), demografia galera, ...

1950tik aurrera, ordea, baldintza orokorrak hobetu egin ziren. Modernizazioarekin batera langileak sektore batetik (nekazaritza) besteetara mugitu ziren (industria eta zerbitzuak).

- **Oposizioa:**

Lehen garai honetan (1940) Frankismoak izan zuen oposizioan *kanpo oposizioa* nabarmendu zen. Aitzitik, barne oposizioa ahulduta zegoen: makiak (anarkista eta komunistez osatutako gerrillak) eta langileak soilik osatzen zuten honakoa.

Gerora (1950), ordea, kanpo oposizioa ahuldu eta barnekoa garrantzitsu bilakatu zen. Langileek beren ekintzak areagotu zituzten, unibertsitateetan joera liberalagoak nabarmendu ziren eta alderdi politiko batzuk berriro antolatzen hasi ziren (Alderdi Komunista, Santiago Carrilloekin eta Abertzailetasunaren nabarmentzea).

**1957-1975: Garapena eta krisia**

*(Hemen 60. hamarkada dago)*

60.hamarkadan ekonomiaren garapena eta hazkundea izan ziren Frankismoaren ezaugarri.

- **Politika**

*Kanpo politika*

Aurreko garaien jarraipena. Espainiak nazioarteko herrialdeekin harremanak izan zituen, AEBrekin kasu. Era berean, deskolonizazio prozesuak jarraitu zuen (Afrikako kolonia guztiak galtzeraino).

*Barne politika:*

Aipagarria da garai honetan Opus Deikoak gobernuan sartu zirela (teknokratak, ekonomiak liberalak baina politikan kontserbadoreak).

Erabakian beharraren arabera hartu ziren. Lege batzuek diktaduraren printzipioak zorrotz jarraitu zituzten heinean, beste batzuk nolabait liberalagoak ziren.



Aipagarriak:

- 1969an Ondorengotza Legea osatu zen; eta Francok Juan Karlos izendatu zuen ondorengo.

Dena den, garai hartan hartutako erabakiek tentsioa eragin zuten gobernuan; izan ere, sektore jakin batzuek ez zuten inolako aldaketarik nahi. Adibidez, Matesa kasua.

1973an, hala, erregimenak zailtasun ugariak izan zituen: diktadorearen osasuna kaxkartzen hasia zen, eta gainera Erregimenaren barnean zatiketa nabaria zen irekitasunaren aldekoen eta inobilismoaren aldekoen artean.

Testuinguru horretan, 1973ko urtarrilean, Francok Carrero Blanco izendatu zuen gobernuburu (ETAk hil zuen). Horrela, 1974an Arias Navarro izendatu zen Carreroren ordean, eta hasieran irekitasunaren alde egin bazuen ere, egoeratik inobilismorantz jo zuen: erregimena gogortu egin zen.

Hainbat gertaera zirela medio (elizarekin harreman kaxkarrak, ETAk madrilen atentatua, Puig Antich garrotez hiltzea) erregimenaren egoera zaildu egin zen.

Horren guztiaren ondorioz diktaduraren barneko zatiketa areagotu egin zen. Gainera, gobernuak bere kontrako hainbat ekintza ezin zituen kontrolatu, eta talde armatuen aruakko lege berri bat sortu zuen (ETA, FRAP, geroago GRAPO); honen arabera Txiki, Otaegi eta FRAPEko 3 kide fusilatu zituzten.

1975eko azaroaren 20an, Franco hil egin zen.

#### - ***Ekonomia:***

Garai honetan ziren arazoek agerian utzi zituen sistema autarkikoaren eraginkortasun eta liberalizazio handiagoaren beharra; izan ere, aurretiaz aipatutako irekitze zantzuak ez ziren nahikoa izan.

Horrela, bada, egonkortasunerako eta garapenerako planak aplikatu ziren. Hauen sustatzaileak Opus Deirekin lotutako Teknokratak izan ziren; hots, ekonomian liberalak ziren, baina politikan kontserbadoreak.

Horrela, bada, esan bezala eta Munduko Bankuaren aholkuei jarraiki, 1959an *Egonkortasunerako Planak* (1959-1962) aplikatu ziren Espainian. Hasiera batean, hartutako neurriek eragin sozial txarra izan zuten: jendearen soldatak jaitsi egin ziren, haien bizi baldintzak okertuz.

Hauen ostean, 1962an, *Garapen Planak* aplikatzen hasi ziren (1962-1975). Hauekin, Espainian hazkunde ekonomiko handia eta jarraia eman zen.

Hazkunde hori 3 faktoreren eraginez eman zen:

- Munduko koiuntura ekonomiko faboragarria
- Emirazioa: Espainiaren baitan jendea industria inguruneetara mugitu zen (exodoa); eta atzerrira ere joan zen espainiar asko.
- Turismoa: Manuel Fraga turismo ministro izendatu zuten, eta honek turismoaren hasiera eragin zuen. Guzti honek eragin nabarmena izan zuen mentalitatean.

- **Gizartea:**

1964an aurpegi garbiketa: "25 años de Paz"

Garapenarekin batera, aldatu egin ziren ohitura eta pentsaera. Laburbilduz:

- Exodoa eman zen landatar eremutik hiritar eremura.
- Gizarte egitura indusrializatu egin zen.
- Gizartea modernoagoa zen, irekiagoa.
  - Horrekin hezkuntza lege orokorrak (1970) ditugu aipagarrien. Handitu egin zen eskolaratze kopurua.
  - Frankismoaren mugetatik haratago zihoan pentsamolde berri bat nagusitu zen.
  - Morala ez zegoen erlijioaren mende.
  - Emakumezkoen rola aldatu zen, etxetik kanpo irten eta ikastera zein lanera joan ziren. Honekin, familia eredu ere aldatu zen.
  - Gizarte kontsumista sortu zen.

Dena den, Frankismoaren azken urteetan Petroleoaren Krisia izan zen, bizi baldintzak okertuz eta langabezia areagotuz. Horrela, ezegonkortasun soziala sortu zen.

- **Oposizioa:**

Kanpo oposizioari dagokionez, erregimenaren oposizioa *Europako Mugimenduaren IV.Biltzarrera* gonbidatu zuten. Batzar hau Munichen egin zen 1962an, eta oposizioaren izenean espainiarrak joan ziren bertatik eta erbestetik. Hauek, demokraziaren aldeko eta diktaduraren aurkako adierazpena egin zuten.

Barne oposizioari dagokionez, sektore guztietatik egin zen diktaduraren aurka. Honakoak erregimenak gogor erreprimitu zituen, eta salbuespen egoerak ere aldarrikatu ziren batzuetan. TOP sortu zen garai honetan; hots, prozesu politikoak epaitzeko militarrek baztertu arren, ordena publikoa zaintzeko epaitegia.

Oposizioa hiru multzotan:

- 1) Gizarte disidentzia: Langileek (CCOO nabarmendu, 1962an sortu zena), unibertsitateek (Frantziako 68ko maiatzeko influentzia, 1969an Ruano ikaslearen erailketa), elizak (Vaticano IIaren eraginez elizaren jarrera independizatu baitzen, eta apaiz batzuk erregimenaren aurka mobilizatu ziren) eta armadak (sektore batek *Batasun Militar Demokratikoa* sortu eta diktaduraren aurka egin zuen) osatu zuten.
- 2) Alderdi politikoak: barnealde eta kanpoaldean antolatzen hasi ziren. Alderdi komunista eta alderdi sozialista (Felipe Gonzalezekin) dira aipagarrien.
- 3) Oposizio armatua: ETA, FRAP, GRAPO / Ultraeskuindarrak

### **FRANKISMOAREN AMAIERA:**

Esan bezala, 1975eko azaroaren 20an Franko hil egin zen.

*Finalmente, y tras una larga enfermedad, el 20 de noviembre de 1975 fallecía Francisco Franco. Después de 36 años de dictadura, se abría un nuevo horizonte para los españoles. Según lo previsto por el régimen, una vez muerto Franco, el príncipe Juan Carlos se convertía en su sucesor en la jefatura de Estado; en teoría, la idea era continuar el franquismo sin Franco. Como decían desde el interior del régimen, "todo estaba bien atado". Sin embargo, los acontecimientos que se sucedieron en los años siguientes demostrarían todo lo contrario.*

Une honetan espainiar gehiengoak ez zuen erregimen autoritarioa izaten segi nahi. Horrela, Demokrazia bide baketsua hartu zen eta **Trantsizioari** (1975-1982) bide eman zitzaion.

## FRANKOREN DIKTADURA

(1939-1975)

### FRANKOREN DIKTADURA EUSKAL HERRIAN

1937an heldu zen Altxamendua Euskal Herrira; urte hartan erori ziren Gipuzkoa eta Bizkaia. Esan bezala, 1939an gerra irabazita eratu zen erregimena autoritarioa, antidemokrata, konfesionala eta zentralista zen, Nazional Katolizismoa oinarri zuena. Botere guztia Francismo Francoren esku geratu zen, eta alderdi politiko bakarra FET-JONS izan zen.

Aipatu beharra dago Frankismoak Euskal Herrian izandago eraginari buruz asko idatzi den arren, ez dela asko ikertu. Gernikako bonbardaketaren kasuan, adibidez, hildakoen kopuruaren inguruko hainbat interpretazio eta zifra ezberdin topa dezakegu. Horrela, Santiago de Pablok dio garrantzitsua eta aberasgarria litzatekeela honakoa ere ikertzea.

### FRANCOREN DIKTADURA EZARTZEA:

Frankismoak, Euskadira heldu zenean, *homogeneizazio laukoitza* eragin zuen:

- 1) Arlo politikoari dagokionez erregimena inposatu eta bermatzea izan ziren lehentasun
- 2) Arlo ekonomikoari dagokionez autarkia izan zen lehentasun
- 3) Arlo sozialari dagokionez etsai politikoak suntsitu eta disidentzia kontrolatzea zen lehentasun → errepresioa (\*)
- 4) Arlo kulturalari dagokionez homogeneitate ideologiko eta erlijiosoa ziren lehentasun

Euskadin Frankismoak izan zuen bilakaera azaltzeko ere, bi fasetan bereiziko dugu honakoa:

- 1939-1957: Isolamendutik Irekitasunera
- 1957-1975: Garapena eta krisia

## **1939-1957: FRANKISMOA 40 ETA 50. HAMARKADETAN**

Francoren erregimenaren ezarpenaren indarra sekulakoa izan zen. Datu zehatzik ez badago ere, errepresioa gogorra eta sistematikoa izan zen: hiltzerainoko zigorrak, erbesteratzeak, kartzelaratzak, isunak eta edonolako zailtasunak ezarri zizkieten erregimenaren aurka egiten zuen orori (ezkertiar eta nazionalistak, oro har).

### **Politika:**

Francok lehen garai honetan Euskadiren gain hartutako erabaki politikoaren baitan Kontzertu Ekonomikoaren deuseztapena da azpimarragarrien; honekin, zerga erregimen orokorra ezarri zen Euskadin.

Era berean, erakundeetako langileen garbiketa bat egin zuen, eta langile sare berria ezarri zuen.

Elizari dagokionez, apaiz abertzaleak jazartu egin zituen. Horrekin, eliza lurraldea kristautzeko prestatzea zuen helburu.

### **Ekonomia:**

40.- Euskadiko industria eraikinak ez ziren oso kaltetuak izan Gerra Zibilean zehar. Horrela, berehala jarri ziren martxan. Izan ere, industria behar-beharrezkoa izango da altxamenduen aldekoek gerra egin dezaten batetik, eta gerora ekonomia berreraikitze bestetik.

- Siderometalurgia, meatzaritza eta industria kimikoa izan ziren Gipuzkoa eta Bizkaian garatuen.

Dena den, hazkunde ekonomikoa ez zen handiegia izan. Izan ere, Espainiako gainontzeko lurretan bezalaxe, Euskadin ere autarkia ezarri zuen erregimenak.

50.- liberalizazioarekin batera, hazkunde ekonomikoa areagotu egin zen.

### **Gizartea:**

40.- Urte hauetan pobrezia muturrera heldu zen hemen ere: gosea handia zen, eta egoera horrek demografia galera eragin zuen.

50.- baldintzak apur bat hobetu ziren.

### **Errepresioa:**

Dena den, gizarteari dagokionez, errepresio soziala da afera azpimarragarriena. Izan ere, errepresio sozialak pisua izan zuen Frankoren garaian, eta honakoak izan ziren nabarmendutako puntuak:

- Deuseztapena (aniquilamiento): Frankistek ez zuten beren ideia berdinak ez zituen inor ikusi nahi (horregatik zen Diktadura bat). Beraz, ikusiezintasun edota ikusi nahi ez hori zela eta izua zabaltzea zuten helburu.
- Kontrol soziala: jendea kontrolatuta zeukaten beren helburua izua zabaltzea zelako, eta baita lortu ere. Jendeak ez zuen garaiaren inguruan hitzik egiten gertatuko zitzaienaren beldur zirelako.
- Enkoadraketa; ni herri batean sartuko naiz eta %10 fusilatuko ditut. Beraz, jendeak beldurra duenez eta kontrolatuta daudenez badaezpada ere geldirik geratuko dira.

Zentzu berean, errepresioa hezkuntza, kultura eta komunikabideetara ere heldu zen.

*Euskal kulturari eta hezkuntzari dagokionez, diktaduran ezarri ziren hainbat neurrik kaltetu egin zuten; nahiz eta, maiz, ez zen horretara bideratutako lege ofizialik ezartzen. Euskara erabiltzea, adibidez, ez zegoen debekatuta; baina erabiltzen zutenek kalteak jasaten zituzten. Horrez gain debekatuta zegoen euskararen aldeko manifestazio oro. Ez hezkuntzan, ez prentan, ez inon ez zegoen euskararen presentziarik; eta 40.hamarkadan euskaraz idatzi ziren 20 liburuak kleroak gai erlijiosoaren inguruan idatzitakoak izan ziren.*

*Komunikabideei dagokienez, itxi egin zuten jarrera antifrankista zuen komunikabide oro, eta prentsa frankistaren esku geratu ziren beren ondasunak. Irrati emisora guztiak, adibidez, Radio Nacional de España emititzera derrigortu zituzten.*

## **1957-1975: FRANKISMOA 60.HAMARKADAN**

1959an Euskadi etapa berri batean sartu zen ekonomia, gizarte eta kultura gaietan. Honakoa *Egonkortasuneko Planen* ondorio izan zen.

### **Ekonomia:**

Plan horren harira, Bizkaia eta Gipuzkoan hazkunde ekonomiko handia eman zen, eta Araba eta Nafarroa industrializatzen hasi ziren. Garai honetan kokatzen da kooperatiben sorrera, ULGOR (1956 Arrasaten), FAGOR, KUTXA LABORALA ... Gerora, batu eta Mondragon kooperatiben elkartzea sortu zen. Honakoaren bultzatzailea Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarieta apaiza izan zen.

### **Gizartea:**

Ekonomiaren hazkuntzak demografiaren hazkuntza eragin zuen. Bereziki exodoak eragin zuen honakoa; hots, etorkin mordoa etorri zen Euskadira lanera.

## **FRANKISMOA AGINTEAN, DATUAK:**

Frankismo garaian agintean izan zirenean datu zehatzik ez dagoen arren, aipatu badaudela garrantzitsu izan daitezkeen hainbat datu. Euskal diputazio eta udaletan karlisten kopurua Espainiako gainerako herriena baina altuagoa zen, eta falangistena, aldiz, askoz baxuagoa.

Adibidez,

- Bizkaian 1949an;
  - Alkateen %42 Revolución Españolako kide ziren
  - %26 karlismoari lotuta zeuden
  - %4 Falangeari
  
- Gipuzkoan 1936 eta 1949 bitartean;
  - Zinegotzien %48 tradizionalistak ziren
  - %28 afiliatorik gabeak
  - %7 eskuinekoak ziren
  - %2,6 falangistak

40. hamarkadako lehen erdialdean karlistek Gipuzkoakoan zuten agintea galdu zuten; Diputazioaren kontrolaren eta Donostiako udalarenaren zati handi bat kasu.
  
- Araba
  - Hasiera batean karlisten menpe zegoen, baina katoliko independente baten esku egotera pasa zen.

1943tik aurrera karlismo disdentea alde batera uzteari ekin zioten, karlisten memoria tradizionalismo frankista zela aldarrikatuz.

Garai honetan, politika egiteko aukera oso urria zen. Beraz, agintari zibilaren irudia beharrezkoa da sistemaren funtzionamendua ulertu ahala izateko; bere funtzioa bere probintziaren administrazioa, kultura eta gizartearen funtzionamendua kontrolatzea baita. 1948ra bitarte Agintaria (Gobernador) mugimenduaren agintari probintziala zen, eta bera zen kargu lokal guztiak hautatze zituena.

## **EUSKAL KULTURA FRANKISMOAN:**

Frankismo garaian, bereziki 1960.hamarkadatik aurrear, euskara eta Euskaltzaindiaren suspertzea hasi zen.

Lehen ikastolak sortu ziren eta artearen arlo ezberdinetan artista euskaldunak ugariak ziren: poesia (Gabriel Aresti, Gabrien Celaya, Blas de Otero), eskulturgintza (Txillida, Oteiza, Nestor Basterretxea), Musika (Laboa, Lertxundi, Ez Dok Amairu, Lete, Iriondo)

...

Euskarazko lehen firma argitaratu zen (Ama Lur) eta Argitaletxeak ere sortu ziren (Añamendi, Txertoa).

## FRANCOREN AURKAKO OPOSIZIOA

### Eusko Jaurlaritza:

EAEk Eusko Jaurlaritza mantentzea lortu zuen, Katalunian erbesteratuta lehenik eta Frantzian gerora. Horrek, oposizio antifrankista ahalbidetuzuen. Eusko Jaurlaritza mantetzea ahalbidetu zuten hainbat faktore izan ziren: EAJren sendotasun organikoa, eta Agirre lehendakariaren karisma eta pertsonalitatea kasu.

Garai hartan honakoa zen gainontzeko alderdien egoera:

- PSOE (Partido Socialista Obrero Español): oso berezita zegoen Espainian eta baita Euskal Herri osoan ere, hiru organo zituen momentu berean lanean ari zirenak. Gainera, gatazkarik handiena Mexikon (1943an) izan zen, non, Indalecio Prietoren jarraitzaileek Gobernuarekin zuten lotura eragozteko proposatu zuten bitartean; Santiago Aznarrek Aguirrerekin kolaboratzea egoki ikusi zuen.
  - PCE (Partido Comunista): oso indar gutxi zuen Euskal Herrian eta Nafarroan eta errepresio gogorra jaso zuen. Diktadura osoan zehar mantentzea lortu zuten, baina makiek (opcion guerrillera comunista de la posguerra) ez zioten Euskadiri eragin.
  - ANV (Acción Nacionalista Vasca) } Eusko Jaurlaritzan zuten
  - Izquierda Republicana } errepresentazioa mantendu
  - Unión Republicana } zuten, eta Hego Ameriketan
- erakunde bat zuten; afiliazio ia guztiak galdu zituzten. Lurraldean ez zuten inolako indarrik.

1945eko martxoan, IIMG amaitzera zihoala, euskal alderdi eta sindikatu guztiak Baionako Hitzarmena sinatu zuten; non, Errepublikaren, Estatutuaren eta Gobernu autonomoaren alde azaldu ziren; bertan demokrazia berrezartzearen alde kokatu ziren. Honek, errepublika legezkoa izan zedin lagundu nahi zuen. Irujo (Garai honetako Eusko Jaurlaritzako sailburuak) erbesteko Gobernu errepublikarren parte izatera pasa zen. 1946an, Aguirrek bere Gobernu eraberritu zuen, zeina 1936ko alderdi berdinek osatzen zuten, hau da, EAJ, PSOE, ANV, PCE, Izquierda Republicana eta Union Republicanak.

Egoerak onera egitearekin batera euskal oposizio antifrankistak, 1945etik aurrera, bere ekintza garrantzitsuenak burutu zituen. 1947eko erreferendun frankistaren abstentzioaz gain, hainbat propaganda ekintza burutu ziren; 1947eko langileen maiatzeko greba orokorrak eta 1951ko apirila eta maiatzeko greba orokorrak.

1947 eta 1951ko greba orokorrak arrakastatsuak izan zirenez erregimena grebalarien eta hainbat enpresabururen aurka egitera behartuta zegoen. 1951ko grebak garaipen pirrikoa izan zuen, ez baitzuten erregimena arriskuan jarriko zukeen adinako mugimendurik lortu. Diktadurak hamabost urte zeramatzan oposizio antifrankistako kideak nekatzen hasi ziren bai



arrazoi politikoengatik baita beste hainbat arrazoiengatik ere; arrazoi familiar, profesional eta ekonomikoak kasu. Honek, erbesteko hainbaten etorrera ekarri zuen, eta 50. Hamarkadan oposizioak izan zuen krisiaren erakusleeta bat izan zen. Horrez gain, Polizia internazionalak ere zerikusi nabarmena izan zuen euskal oposizioaren krisian.

Ordura arte Franko buru zen Espainia aislatuta zegoen arren, Gerra Hotzaren testuinguruan, Frankok Estatu Batuekin zein Vatikanoarekin harremanak hasi zituen. Honek, 1953an Vatikanoarekin konkordatu bat izatea ahalbidetu zuen, eta ekintza hauen ondorio da 1955ean Espainia NBE-n sartu izana. Elkartze honetan garrantzitsua izan zen 1948an PCE Eusko Jaurlaritzatik bota izana; baina ez zuten aliatuekin arazorik izan ipar-amerikarrak babesten jarraitu zutelako. Hau zela eta, demokraziaren nahia eta Gobernuaren erbestean mantentzeko nahiak aurrera egin zezan Aguirre, EAJ eta Eusko Jaurlaritzaren aukera bakarra Frankoren Diktaduraren amaiera itxarotea zen. Baina krisiaren puntu garrantzitsuetako bat, 1951n, Frantziak Eusko Jaurlaritzari bere Parisko egoitza kendu eta frankoren Espainiari eman izana izan zen.

Aurrekoak Indalecio Prietok 1947an aurrera eraman zuen estrategiarekin bat egin zuen. Hots, berak Monarkia demokratikoari atea zabaldu zion erantzun ona izango zuelakoan; baina erbestean zeuden alderdiak banatzea ekarri zuen, baita PSOE eta EAJ ere (Telesforo Monzón izan zen Monarkia onartu zuenetako bat).

Hemendik aurrera frankismoaren aurkako euskal estrategia krisian sartu zen. Alderdi batzuek aldaketak egin zituzten, eta garai honetan ez ziren frankismoaren aurkako ekintzak burutu. EAJ izan zen arazo gutxien izan zituena, eta ondorioz, Aguirrek 'Movimiento Europeo' eta 'Internacional Democrata Cristianaren' sortzean parte hartu zuen.

1956an, Parisen, Munduko Euskal Kongresua ospatu zen, zeina Jose Antonio Aguirrek bultzatu zuen, eta gobernu autonomoaren 20. urteurrena ospatzea zuen helburu. Parte hartzea zabala izan zen, eta euskal oposizioko alderdi guztiek hartu zuten parte. Jada ETA lanean ari zen, euskal nazionalismoaren eszizio garrantzitsua izan zena. Euskal antifrankismoaren epe berriaren gertaera garrantzitsuetako bat Jose Antonio Aguirreren heriotza (1960ko martxoan) izan zen.

1960tik aurrera Eusko Jaurlaritzaren oposizioa ahuldu egin zen: alderdien arteko zatiketetatik eta Aguirreren heriotzetatik, bereziki.

#### - ***Eusko Jaurlaritza eta errefuxiatuak***

Eusko Jaurlaritzaren prestigioaren zati handienetako batek Euskadiko gerraren amaierarekin izan zuen zerikusia, errefuxiatuei laguntzea lortu zutenean. Iparraldeko frontea erorri zenean 79.500 euskaldunek Frantziara alde egin behar zian zuten. Baina 1939an Frantziara zeuden euskal erbesteratuen kopuruak behera egin zuen EAJk erantzukizun politikorik ez zuten horien aberriratzea posible zela aipatu zuelako. Nafarroan saiakerak egin ziren arren, hauek ez zuten jarraipenik izan.

Agirreren Gobernuak agintean jarraitu bazuen ere, honek ez zuen 1939 eta 1960an bitartean erbestean zeudenen egoera hobetu. Gainera, arazoa 1939an EAJk erbestetan zeudenei esuakl nazionalismoa definitzea eskatutakoan etorri zen. Erbestean EAJk estrategia ia autonomikoa babestu zuen, bai Britainia Handitik, bai Frantziatik baita Ameriketatik ere.

Munduko gatazkan zehar euskaldunek aliatuekin izan zuten kolaborazioak espioitza lanak izan zituen oinarri 'Red Comète' kasu. Zeinak, aliatuei Bidasoatik alde egiten laguntzen zien, eta 1939an euskal errefuxiatuak Frantziako ejertzitoan lanean jarri nahi zituen, eta 1940an errefuxiatu gehienak Gurseko internamentu esparruan zeuden. Horrez gain, 'Euzko Naia' izeneko erakundea jarri zuten martxan. Azken batean, II. Mundu Gerran Euskadik izan zuen parte hartze zuten bakarra Gernikako Bonbardaketa izan zen. Nahiz eta, EAJko kide batzuek Frantziar naziei laguntzea pentsatu zuten.

Azken estrategia honen puntu garrantzitsuenetako bat 'informazioaren euskal Zerbitzuak' (Servicios vascos de información) izan ziren; zeinak, Luis Alavaren sarearekin zerikusia izan zuten. Baina 1940 eta 1941 bitartean desagertu egin ziren Alemaniak Paris okupatu zuenean, naziek polizia frankistari taldearen informazioa pasatzea lortu zutenean. Euskadiz eta Frantziar gain, Zerbitzuak Madrilan eta Latinoamerikan ere egin zuen lan, ipar-amerikarrek kolaboratu zuten orduan; Argentina, Kolonbia, Panama, Venezuela eta Dominikar Errepublikarekin kasu.

### **Barne oposizioa:**

- 40 eta 50. hamarkadetan, langileen oposizioa izan zen aipagarriena. Horrela, 1947an greba egin zuten, eta 50.hamarkadan areagotu egin zen haien eragina.

Horrez gain, abertzaletasunak ere eragina izan zuen. 50.hamarkadaren hasieran Bilboko Ikasle talde batek EKIN sortu zuen (abertzaleak prestatzeko erakundea). Hasiera batean EKINEK EAJrekin harremana izan bazuen ere, gerora arazoak sortu ziren beren artean.

- 60.hamarkadan oposizioa hainbat sektorek osatu zuten.

Eliza sektore garrantzitsua izan zen. 1960an apaiz talde batek dokumentu bat idatzi zuen Diktadura salatuz eta Euskal Herriaren eskubideen zapalkuntza salatuz. Horren harira, euskal apaizen eta elizaren iherarkiako kide batzuek (Añoberos) ekintzak egin zituzten diktaduraren aurka.

Langileei dagokienez, 1961ean greba ugari egin zuten. Aipagarriena 1966an Etxebarrieta enpresako langileek egindako greba luze eta gogorra izan zen.

Sektore nazionalistei dagokienez, EKIN eta EAJk harremanak lotu zituzten. Dena den, EKINekoek EAJren pasibotasuna kritikatu zuten gerora, eta hauen arteko haustura heldu zen. 1959an EKIN desagertu eta ETA sortu zen haren partez. Hasiera batean autodeterminazioa eta borroka demokratikoa izan zituen ETAK helburutzat, indarkeriarik baliatu gabe.

1960an aldaketak izan ziren ETAREN barruan. Jende berriaren sarrerarekin mugimendu ideologiko berria barneratu zuen: sozialismoa. Horrela, indarkeria baliatzea planteatu zuten. 1966an ETAK Askatasun Nazionalerako Mugimendu Sozialistatzat izendatu zuen bere burua. Ildo horretatik, lehen ekintzak (hilketak) 1968an heldu ziren. Padrines guardia zibila hil zuen erakundeak, eta ordainetan lehen ETAKidea akabatu zuten: Txabi Etxebarrieta. Handik gutxira, mendeku gosez, ETAK Meliton Manzanask hil zuen.

Testuinguru honetan erregimenak errepresio gogorra ezarri zuen: atxiloketak, kartzelaratzak eta torturak kasu. Aipagarria da Burgoseko Prozesua, zeinetan 16 ETAKide epaitu eta 6 heriotza zigorrera kondenatu zituzten (Nazioarteko presioagatik zigorra kendu bazieten ere). Diktaduraren azken garaian, ETA oso aktibo aritu zen.

## 7.GAIA

### ETA

#### EUSKADI TA ASKATASUNA

1959-2011

Oposizio antifrankista indartu egin zen, eta beren taktikak belaunaldi aldaketa bat ekarri zuen. Egoera guzti honek ETAREN sorrera ekarri zuen.

#### **ETAREN SORRERA:**

EAJ erbestean zegoen, eta bertako gazte talde batek frankismoaren aurka egin nahian ETA izeneko talde armatua sortu zen 1959an. Bestalde, nazioartean hainbat talde iraultzaile agertu ziren, tartean 'Brigadas Rojas Italian eta 'IRA' Irlandan.

*'Bilbao, 31 de julio de 1959. Un grupo de estudiantes radicales desidentes del colectivo EKIN (nacido en 1952 para reaccionar contra la pasividad y el acomodo que en su opinión padecía el PNV) funda Euskadi ta Askatasuna. Es el nacimiento de ETA, una alternativa ideológica a los postulados del PNV con cuatro pilares básicos: la defensa del euskera, el etnicismo (como fase superadora del racismo), el antiespañolismo y la dependencia de Euskal Herria: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa'*

- Sabino Aranaren ustetan, Euskal Herria bai Frantziarekin eta Españarekin gerra konstante batean egon ziren. Beraz, talde hau horren aurka egiteko sortu zen.
- ETAK ez dio kasurik egingo Sabino Aranari beren ideiek ez zituztelako berarenak babesten.
- ETAK Euskadi deitu beharrean Euskal Herria deitu du.
- ETAK ez du Iparraldearen independentzia defendatu (Sara Hidalgo)

ETAREN filosofia honakoa zen: akzioa, erreakzioa eta akzioa. Eurek akzio bat egiten zuten, eta ondoren biktimen aldetik erreakzio bat jasoko dute. Orduan, ETAK herrialde osoak armekin erantzungo zuela uste zuten ETAKO kideek.

#### **ETAREN EKINTZAK:**

Hasiera batean aurrera eramaten ziren ekintzak ez ziren oso gogorrak, baina 68an batzuk biolentziaren bidea hartu behar zutelako zuten.

1968ra bitartean ETAK ez du erahilketarik egingo. Lehen erahilketa 1968an egin zuten Jose Pardines Guardia Zibilarena hain zuzen ere. Txabi Etxebarrieta izan zen Guardia Zibila hil zuena. Handik ordu batzuetara Ordizia inguruan Guardia Zibilak Txabarrieta hil zuen.

Trantsizioan akzioak areagotuko dira, batez ere Guardia Zibila eta Poliziaren aurka.

Diktadura ia 40 urtetan jasan eta gero, oposizio antifrankistan zeuden kide gehienek beren akzioak utzi zituzten (ulertzen baitzuten jada ez zutela zereginik, biolentzia erabiltzeak ez zuelako zentzurik). Baina ETAk hiltzen jarraitzen zuen.

1973an ETAk Carrero Blanco hil zuen, eta hau izan zen ETaren ekintzarik esanguratsuenetakoa. ETak pentsatzen zuen bere ekintzek EHri independentzia ekarriko ziotela. Hemendik aurrera, ETak bere ekintza armatua utzi partez ekintza areagotu zituen.

Talde antifrankista bat bazen ere, bere hilketa gehienak demokrazian izan ziren.

ETAPA	URTEA	HILDAKOAK
Diktadura	1968	2
	1969	1
	1972	1
	1973	6
	1974	19
	1975	16
Trantsizioa	1976	19
	1977	12
	1978	69
	1979	85
	1980	118
	1981	33
Kontsolidazio demokratikoa	1982	41
	1983	45
	1984	42
	1985	48
	1986	44
	1987	53
	1988	19
	1989	19
	1990	25
	1991	45
	1992	26
	1993	14
	1994	13
	Sufrimenduaren sozializazioa	1995
1996		5
1997		13
1998		6
2000		23
2001		15
2002		5
2003		3
2006		2
2007		2
2008		4
2009		3
2010	1	

1978 eta 1981 bitartean 'Berun urteetan' izan ziren ETAREN hilketarik gehienak, 305 hain zuzen ere. Gernikako Estatutuaren negoziazioak hasi eta Estatutua onartu bitartean, eman ziren ETAREN hilketarik nabarmenenak hauek uste zutelako Estatutuak arazoak ekarriko zizkiela. 1995etik aurrera hildako gutxiago egon arren, biktimen kopuruak gora egin zuen mehatxu kopuruak nabarmen egin zuelako gora.

## ETA DEMOKRAZIAN

GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación) talde terrorista bat zen, zeina, ETAKideen aurka joaten ziren. Teorikoki GAL ez zen talde paramilitarra, eta talde bat sortu zen estatuaren 'cloacas del estado'etatik, legez kanpoko ekintzak egiten zituen. Hots, hauek estatuak finantzatzen zituen.

Frantziak ez zuen onartu Espainia demokrazia bat zela, eta horrela, Frantziak asilo politikoa ematen zieten ETAKideei. Orduan, GALEko kideak Frantzian sartu ziren ilegalki, eta kide asko eta asko sekuestratu zituzten; horien artean Lasa eta Zabala. Gainera, kide horietako asko ez ziren errudunak. Beraz, garai honetan (1982-1987) GALEk 78 pertsona hil zituen. GALEn ekintzak kaltegarriak izan ziren ETAREN aurkako kanpainak egiterako garaian: Eta GALEn ekintzak zer?

1988an **Ajuria Eneako hitzarmenak** sinatu zen, eta bertan, hainbat alderdi politiko ETAREN aurka agertu ziren; horien artean, EAJ, PSOE, EE, EA, AP eta CDS. Hauek itun bat sinatu zuten, non alderdi guzti hauek ETAREN aurka jarri ziren. HB itunetik kanpo geratu izanak ondorengo urteak markatuko zituen. Lehen urratsa ETAREN deslegitimazio instituzionala burutzea izan zen, eta oso garrantzitsua izan zen honakoa.

Deslegitimazioa garrantzitsua izan zen, izan ere, ETAK ordura arte polizia nazionala, guardia zibila eta oro har, jende frankista akabatzen zuen. 1973an Carrero Blanco hil zutenean, jendartan ez zen aurkakotasun larririk sortu. Hala ere, biktimen eta ETAREN eboluzioarekin batera eman da.

1986an '**Gesto por la Paz**' sortu zen, eta hauek kontzentrazioak egiten zituzten biktimen alde. 1988ko hitzarmen hauek ETARENTZAT eta HBRENTZAT inpaktu bat izan ziren

1992an Bidarten (Lapurdi) ETAKo nagusiak bilduta zeudela txibatazo bat egon zen, eta ETAKo buru guztiak erori ziren. Orduz geroztik, ETAK ez zuen lehen zuen kupula izatea lortu, eta honek ahulezia bat ekarri zuen.

1995ean, Bidarteko ekintza, eta Ajuria Eneako hitzamenaren ondorioz estrategia berriak jarri zituen martxan ETAK. '**Socialización del sufrimiento**'. **Oldartzen** txostenean ageri dena, estrategia honen helburua mehatxua zabaltzea zen. HBk bere politika ekintzak ekintza armatuekin konbinatzen zituen.

*Lo diseñaron como una herramienta para extender el dolor y cien asesinatos y miles de actos de terror después, acabaron por volverse contra ellos. A principios de 1995 Herri Batasuna oficializó una nueva estrategia que consideraba "legítimo" utilizar "todas las formas de lucha, tanto la institucional, la de la calle como la lucha armada" contra sus enemigos. ETA llevaba más de 750 asesinatos, pero no conseguía sus objetivos y la izquierda abertzale dio un paso más que sintonizaba al 100% con las directrices de ETA para aniquilar al discrepante. Se llamaba Oldartzen (acometiendo), y con el tiempo se rebautizó como la de "la socialización del sufrimiento".*

*HBk, halaber, hasia zuen bere hausnarketa prozesua. 1992an aukeratu zuten Mahai Nazionala, eta 1995. urtearen erdira arte aritu ziren eztabaidan. Oldartzen izena zuen ponentzia — ofiziala— irten zen garaile. Horren arabera, «erresistentzia» fasea gainditu behar zuen ezker abertzaleak, ekimen mobilizatzaileen eta «presio sozialaren» bidez. Funtsean, bai ETAk, bai ezker abertzaleak haien ustez Ajuria Eneko Itunak ezarritako alde bakarreko indarkeriaren ikuspuntua eta «bazterketa politikoa» aldatu, eta harreman eta aliantza dinamika berriak behartu nahi zituzten, nork bere erara «tentsioa» areagotuz kalean zein instituzioetan, hainbat kasutan giza eskubideak urratzeraino.*

#### **EUSKAL GIZARTEAREN JARRERA ETArekiko:**

ETA hasieran Frankoren aurka bakarrik bazegoen ere, Trantsizioan aurrera jarraitu zuten. ETAk hainbat frankista hil zituen, baina denbora aurrera joan ahala hainbat Guardia Zibil hil zituen, baita hainbat inozente ere.

Irungo kuarteleko torturatzaileren erailketa edota Carrero Blancoren heriotza ez ziren gaizki ikustita ego. Ordea, gerora, zalantzan jarri zen ETAREN jarduna.

PCE izan zen ETAREN aurka jarri zen lehen alderdia Portugaleten, 1978an. Bertan eman zen ETAREN aurkako lehen manifestazioa PCEk uste zuelako bialentzia ez zela bidea.

ETA UCD eta PSOeko kideak hiltzen hasi zenean gauzak aldatzen hasi ziren poliki-poliki. 1984an Enrique Casas sozialista hil zuten Donostian. 1995ean Miguel Anjel Blanco hil zuten Ermuan, eta eztanda sozial bat gertatu zen. Hemen, ETAk Blanco bahitu zuen Gobernuarekin hitzarmen bat (Presoak 48 orduetan Euskal Herriratzea) sortzeko asmoz, baina ez zen inolako hitzarmenik eman eta Blanco Lasarten azaldu zen hilda. Hemendik aurrera ETAk laguntza eskasa zuen.

2011ean utzi zituen armak erakundeak. ETAREN amaieraren arrazoiak: HBren ilegalizazioa, Frantzia ETAREN aurka jartze hasi zen, teknologiaren ezagutza falta.